

Zu hemen zaude. goiena



EUSKAL ESKULTURA FIGURATIBOAREN MAISU HANDI BATI AITORTZA

Lorenzo Askasibar artista elgetarra omenduko dute asteotan; hari buruzko liburua argitaratu du Miguel Angel Elkorobezibarrek eta erakusketa antolatu du Beart elkarteak / 40

Miguel Angel Elkorobezibar
-L. Ascasibar. Eskultore baten testigantza liburuaren egilea- eta Lorenzo Askasibar, oraingo astean, azken honen estudioan, Gastelzen.

BEÑAT ELKOROBREZIBAR

Positibo kopurua erdira jaitsi da astebetean eta tasa Gipuzkoakoaren azpitik dago / 2

SINADURAK

 ESTEPAN PLAZAOLA / 8	 MANU EGAÑA / 45
 OIANA SANCHEZ / 13	 MIKEL IRIZAR / 56


'PAZKOAK 2021 EZ-JAIK' GEHIGARRIA, ERDIAN / 5

Kirol instalazioen mapa herritarrekin eta klubekin osatu gura du Arrasateko Udalak / 12

Maria Jose Gil atletak Espainiako errekorra ondu du, Durangon Euskadiko Txapelketa irabazita / 38

 + Etorkizunari eusteko, tokikoa babestu
Mari Luz Esteban antropologoari elkarriketa

VOLKSWAGEN ID4 ELEKTRIKOA



TEKNOLOGIA ETA ETORKIZUNA

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 30 • ARRASATE • 943 71 16 70






KORONABIRUSA

Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak 1.000 biztanleko	Intzidentzia-tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Arrasate	28	34	3.026	137,03	280,77
Bergara	11	16	1.561	103,82	179,57
Aretxabaleta	7	17	774	109,32	338,98
Oñati	4	31	1.360	118,59	305,20
Antzuola	3	0	233	106,93	137,68
Eskoriatza	2	9	395	96,27	268,10
Aramaio	0	3	158	106,76	270,27
Elgeta	0	0	64	56,59	0
Gatzaga	0	0	9	36,00	0
GUZTIRA	55	110	7.580	116,96	256,13

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Gipuzkoako tasaren azpitik dago Debagoiena, sei asteren ostean

Azken zazpi egunetan 55 debagoiendar kutsatu ditu koronabirusak; aurreko astean kutsatutakoen erdiak. Positiboek ez ezik, intzidentzia-tasak ere behera egiten jarraitu du egunotan, eta dagoeneko Gipuzkoakoaren eta Bizkaikoaren azpitik dago bailarakoa

Maialen Santos ARRASATE

Azken zazpi egunetan, joan den egunetik eguazten honetara arte, 55 debagoiendar kutsatu ditu COVID-19 gaitzak. Aurreko astean kutsatu zirenen erdiak dira horiek, 110 izan baitziren baieztatutako kasuak. Gauzak horrela, pandemia hasieratik, orotara, 7.580 dira eskualdean kutsatu diren herritarak.

Herrika, Arrasaten (28), Bergaran (11) eta Aretxabaletan (7) izan dituzte positibo gehien. Eta Aramaion, Elgetan eta Gatzagan ez dute kasu berririk hauteman. Aipatzekoa da, gainera, Oñati atzo irten zela eremu gorritik, eta, horrenbestez, ibarrean dagoeneko ez dago herririk gorritz margotuta; guztietan da intzidentzia-tasa 400ndik beherakoa,

hortaz. Hain zuzen, eskualdeko intzidentzia-tasak behera egiten jarraitu du aste honetan ere, eta 256,13koa zen atzo. Gipuzkoako eta Bizkaiko tasa bailarakoa baino altuagoa da astelehenaz goerotik. Oro har, lurralde guztietan behera egiten jarraitu du tasak azken egunetan.

Bestetik, Debagoieneko Ospitaleari dagokionez, bost lagun zeuden atzo koronabirusaren eraginez ingresatuta.

Gotzone Sagardui Osasun sailburuak asteon egin du datuen bilakaerari buruzko balorazioa, eta esan du "positiboa" izaten ari dela eta horrek erakusten duela orain arteko neurriak "eraginkorrak" izan direla. Hala ere, ohartarazi du intzidentzia handia dela oraindik, eta "zuhur-

tziak" jokatzera deitu ditu herritarak, beste behin ere.

MASKAREN ERABILERA OSASUN SAILAK DIO GOIZ DELA MASKAREN ERABILERA ARINTZEKO

Osasun sailburuaren iritziz, oraindik ere goiz da maskaren erabilera arintzeko. "Zalantzarik gabe, hori da guztiok nahi genukeena, baina hori gizartearen gehiengoa immunizatua dagoenean soilik izango da posible", zehaztu du. Eta gehitu: "Osakidetza nahiago du ziurtasunez hitz egin, espekulatu gabe".

Hain zuzen, Espainiako Osasun Larrialdietarako Koordinazio Zentroaren koordinatzaileak,

Fernando Simonek, egindako adierazpenen ondotik mintzatu da Sagardui. Izan ere, koordinatzaileak asteon adierazi du "oso litekeena" dela "egun gutxi barru" maskaren erabilera aldaketak izatea; hots, aire zabalean erabilera arintzea.

BIRUSAREN AURKAKO TXERTOIA BIGARREN DOSIA ASTRAZENECARENA HARTU AHALKO DUTE

Espainiako Osasun Ministerioak eta erkidegoek eguaztenean ebatzi zuten AstraZenecaren lehenengo dosia jaso duten 60 urtetik beherakoek immunizazio prozesua etxe horretako dosiarekin amaitu ahal izango dutela nahiz izanez gero-, baina, horretarako, baimen-dokumentu bat sinatu beharko dute.

Osasun Publikoaren Batzordeak eguaztenean esandakoaren ondotik hartu dute erabakia; izan ere, Carlos III.a Institutuak egindako CombivacS ikerketak ondorioztatu du AstraZeneca eta Pfizer konbinatuz erantzun immunitarioa "hobetu" egiten dela eta ez duela "eragin negatiborik" sortzen. Hala, martitzenean erabaki zuten AstraZenecaren txertoa jaso duten 60 urtetik beherakoek Pfizerren bigarren txertoa jasotzea immunitate maila handiena lortzeko.

Nolanahi ere, hainbat zientzialari eta mediku erabakiaren aurka agertu ziren.

Horri lotuta, sailburuak ohartarazi du AstraZeneca hartu dutenei orain Pfizer jartzeak txertaketa kanpainaren atzeratzea ekar dezakeela, "eta, beraz, txerto horrekin egin beharreko txertaketak bi astez etenda geratuko lirake".

Txertaketa planaren eboluzioari dagokionez, 70 eta 79 urte arteko herritarren txertaketa aste honetan amaitzea aurreikusten du Osasun Sailak. Gainera, 60 eta 69 urte arteko txertaketa prozesua "oso aurreratu" doala jakinarazi du sailburuak, eta 50 eta 59 urte artekoekin ere hasiak direla adierazi du; zehazki, azken talde horretako guztien %28,8 txertatu dituzte jada EAEn.

HERIOTZEK GORA 2020AN 2020KO HERIOTZEN %12,6 BIRUSAREN ERAGINEZ IZAN ZIREN

Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) adierazi emandako datuen arabera, 24.237 heriotza izan ziren EAEn 2020an, eta horietatik %12,6 izan ziren COVID-19aren eraginez; 3.052, hain zuzen. 2019arekin alderatuta, %12,4 gehitu zen heriotzen kopurua EAE osoan.



Bergarako pentsiodunek astelehenean egindako elkarretaratzea. TXOMIN MADINA

Bizikleta martxa, pentsio duinak aldarrikatzeko

Gipuzkoako pentsiodunek pentsio publikoen aldeko ibilbidea egingo dute maiatzaren 24an, Errenterian hasita. Debagoienean ere egingo dute geldialdia; hilaren 26an, Oñatira iritsiko dira; eta Arrasate, Antzuola eta Bergara ere zeharkatuko dituzte

M.S./U.I. BERGARA

Gipuzkoako pentsiodunek bizikleta martxa antolatu dute *Pentsio publiko duinak! Murrizketarik ez!* lelopean. Maiatzaren 24an abiatuko da, Errenteriatik, eta ondoren, bailaratik bi egunetan igaro ostean, 29an bukatuko da, Donostian, gainerako hiriburuetan egingo diren mobilizazioekin bat eginez. Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñean egingo dira manifestazio nagusiak, 17:00etan, eta Bergarako pentsiodunek parte hartzeko dei egin dute aurreko astelehenean herri horretan egindako elkarretaratzean. Gainera, azaldu dute autobusak antolatuko dituztela herri guztietan, mobilizazioan parte hartzeko. Enegarrenez egin dute pentsio publiko duinen aldeko aldarria: "Onartezina da hiru urteko mobilizazioekin lortutakoa arriskuan egotea eta pentsio publikoak, duinak, bidezkoak eta nahikoak bermatzeko urrats irmorik ez egitea". Hala, eragi-

le sozialak, sindikalak eta norbanakoak deitu dituzte protestara. "Pentsioak murrizten ari diren erreformek bere horretan jarraitzen dute, eta murrizketa berriei ateak irekitzen dizkiete", gehitu dute bergararrek.

Eskualdera, hilaren 26an

Itziar Usandizaga Bergarako bozeramaileak azaldu du "originala eta ausarta" dela Gipuzkoako pentsiodunek egingo duten ekimena: bizikleta martxa, hain zuzen ere.

Maiatzaren 26an ailegatuko da martxa Debagoienara; Zumarragatik Oñatira iritsiko da, zehazki, 11:00 bueltan. Olabarrieta auzotik udaletxera abiatuko dira parte-hartzaileak, eta,

"ERAKUTSI NAHI DUGU ARAZO HAU EZ DELA PENSIODUNENA BAKARRIK; HERRITAR GUZTIENA DA"

ondoren, Arrasaterako bidea hartuko dute. Gipuzkoako etorbideetik sartuko dira, 12:30ean, Plaza Nagusira joan, eta Arrasaten bertan bazkalduko dute, 13:00etan. Hurrengo helmuga Antzuola izango da; hara 17:30erako iristea aurreikusten dute. Eta eguneko ibilbidea Bergaran bukatuko da, azkenik; udaletxean, 18:00etan, hain zuzen.

Hurrengo egunean, hilaren 27an, Bergaratik bertatik abiatuko da martxa, 09:00etan, eta Osintxutik Soraluzeako bidea hartuko dute pentsiodunek.

Jendartean eragitea helburu

Itziar Usandizagak azaldu duenez, bizikleta martxaren helburu nagusia jendartean eragitea da. "Propaganda eginez, herri-tarrek kontzientzia hartzea da gure asmoa, eta, bide batez, erakutsi nahi dugu arazo hau ez dela gurea, pentsiodunena, bakarrik; herritar guztiena da, baita gure atzetik datozenena ere", adierazi du.



Arrikruzeko kobetara egindako bisita gidatu bat. GOIENA

Ondare geologikoa ardatz, ekintzaz betetako asteburua

Hitzaldiak, jolasak eta bisita gidatuak antolatu ditu Mankomunitateak; erreserba egin behar da aurrez

Maialen Santos ARRASATE

Eskualdeko ondare geologikoa ezagutzeko, hitzaldiak, jolasak eta bisita gidatuak antolatu ditu Mankomunitateak astebururako.

Zapatuan, 10:00etan, *Arrikruz tantaz tanta, lurpeko geologia argitara* hitzaldia eskainiko du Martin Arriolabengoak. 11:00etan, bestetik, Harri Jasangarriaren paisaia kulturala ezagutzeko ibilaldia egingo dute Leintz Gatzagan. Horren ostean, eguerdian, geo-jolasak egingo dituzte, Oñatin, 8 urtetik gorako haurrek; herriko geologia ezagutzeko ginkana, alegia. Azkenik, Bergarako geologia ezagutzeko bisita gidatua ere egingo dute, Laboratorium museoa hasita.

Domekan, jarraipena

Hurrengo egunerako, domeka, 09:00etarako bi ibilbide antolatu dituzte. Eskoriatzan izango da bata: Degurixan, karstaren bai-

lara ezagutzeko aukera izango dute; eta bestetik, Udaltzeko karsta eta Gongetako meatzeak bisitatuko dituzte Arrasaten. Geologoez gidatuko dituzte ibilbideak. Horrez gain, 09:30ean hasiko da, Aretxabaletan, Uretsen Ibilbidea, eta ordu berean egingo dute espeleoabentura, Oñatiko Arrikruz kobetan. 11:00etan egingo dute berriro ere Leintz Gatzagako ibilbidea. Amaitzeko, 16:00etan eta 18:00etan, Arrasateko Galarragako kobara egingo dute bisita.

Datorren asteburuan ere izango da zer egin: hilaren 29an eta 30ean *Bizi pottoka* hitzaldia eta bisita gidatuko ditu Jon Elorzak.

Edukiera mugatua izango dute ekintza guztiek, eta, beraz, aurrez egin beharko da erreserba, 943 79 64 63 edo 943 71 89 11 telefono zenbakietara deituta, edota infoturismo@debagoiena.eus helbidera mezua bidalita.

Protesta egin dute, gorpuzkiak bilatzeari uko egin izanagatik

Zaldibarko Zabortegiko hondakinen azpian harrapatuta dagoen Joaquin Beltranen gorpuzkiak bilatzeari uzteko erabakiaren berri eman zuen Jaurlaritzako Segurtasun Sailak joan den egubakoitzean.

Erabakiaren ondoren, protesta ekitaldiak egin zituen Zaldibar Argitu plataformak; tartean, Elgetan egin zuten mobilizazioa.

Plataformako kideek azaldu zuten ez zutela erabaki hura espero: "Gorpu bat lurpean eta zaborpean geratzea ez dugu uste erantzukizunak argitu gabe gelditzeko moduko ekintza bat denik". Joaquin Beltran ez aurkitzea "porrot handia" dela gaineratu zuten kideek. "Kalte sozial eta ekologikotik haratago, zabortegiak eragindako kalte humanoak hartzen du gaur protagonismoa, eta sekula itxiko ez den zauri bat zabalik uzten du", azaldu zuten.

"Etorkizuna zure eskura Gamarrako eskolan"

AITOR ETXEBARRIA ETA RAUL DUANDIKOETXEA

GAMARRA OSTALARITZA ESKOLAKO IRAKASLE DEBAGOIENDARRAK

"Eginez ikastea" da helburua, metodologia "aktibo eta kolaboratiboetan" oinarrituz

Lanbide Heziketako Gamarrako Ostalaritza Eskolan izena emateko epea maiatzaren 31tik ekainaren 18ra arte izango da. Hiru ziklo eskaintzen ditu ikasketa mailaren arabera, eta euskaraz egin daitezke erdi eta goi mailako ikasketa guztiak.

Zer da Gamarrako Ostalaritza Eskola?

Lanbide Heziketako ikastetxe integratua eta publikoa. Oinarritzko Lanbide Heziketa, erdi mailako eta goi mailako prestakuntza zikloez gain, langabeentzako eta langileentzako prestakuntza eskaintzen du. Gainera, eskola publikoa denez, ikasketa guztiak doakoak dira. Ikastetxean 40 irakasle, zortzi langile –administratzaile, atezain eta garbitzaile– eta 300 bat ikasle gara.

Ze ziklo eskainiko duzue?

Hilaren 31n irekiko da aurrematrikula epea, eta ezinbestekoa da aurrerago matrikula egin ahal izateko aurrematrikula egitea. Izen-ematea online –Hezkuntzaren webgunearen bitartez– edo gure ikastetxean egin daiteke. Hau da eskaintza: erdi mailan, Sukaldaritza eta Gastronomia zikloan bi talde egongo dira, bata A ereduaren eta bestea D ereduaren; Okintza, Pastelgintza eta Gozogintza eta Jatetxe Arloko Zerbitzu zikloetan, talde bana,



Aitor Etxebarria eta Raul Duandikoetxea, Gamarrako eskolan. GOIENA

B+ ereduaren. Goi mailan, Sukalde Zuzendaritza zikloan bi talde, A eta D ereduaren.

Euskaraz ziklo guztietan izango du presentzia?

Bai. Alde horretatik, gure ikastetxea lan handia egiten ari da alor horretan.

"GURE ESKOLAN ERDI ETA GOI MAILAKO ZIKLO GUZTIETAN DAUKA PRESENTZIA EUSKARAK"

Nork eman dezake izena eskolan?

Erdi mailako zikloak egiteko, gutxienez, DBH edo Oinarritzko Lanbide Heziketa gaindituta izatea beharrezkoa da. Goi mailako egiteko, berriz, batxilergoa eduki behar da gaindituta. Ez dago beste baldintzarik.

Ze eskola topatuko dute ikasleek?

Goi mailako profesionalak aurkituko dituzte, guztiz eguneratuak eta eskarmentu handikoak metodologia berrietan. Horri lotuta, benetako praktika bidezko ikasketak egiten ditugu gure ikastetxean, dendan eta eskaintza

gastronomikoetan. Bestalde, ikastetxeak aurrera eramaten ditu honako hezkuntza-proiektu berritzaile hauek: ETHAZI, etekin handiko zikloen metodologia, erronketan oinarritutako elkarlaneko ikaskuntza; Erasmus+, ikasleek ziklo amaierako lanpraktikak Europako enpresaren batean egiteko aukera eta Europako hainbat ikastetxerekin ikasle-trukeak egiteko aukera; txandakako erregimeneko LH Duala, zeini esker ikasleek partekatu ahal izango duten ikastetxeko prestakuntza eta enpresaren batean lan eginez trebatzea lan kontratu edo beka baten bitartez; eta berrikuntza proiektuak, eskola-baratzea ekonomia zirkularra garatuz –baratzetik mahaira, 0 km–, berdintasun proiektuak, Agenda 2030 eta beste batzuk. Beste alde batetik, ikastetxea guztiz berrituta dago. Sukaldeak, gozogintza, okingintza, jangela, kafetegia... orain dela gutxi berritu dira eta ikasgela asko ere orain dela bi urte berritu ziren, goi errendimenduko metodologi horiek ikaskuntza prozesuan aplikatu ahal izateko.

Zein lanpostutan egingo dute lan ikasketak amaitu ondoren?

Zikloaren arabera lanpostuak dira. Sukaldaritza eta Gastronomia zikloa eginda, sukaldariak edo gozogileak izango dira jate-txeetan, hoteletan, administrazioan, ospitaleetan, zaharren egoitzetan, eskoletan...; Okintza, Pastelgintza eta Gozogintza eginda, okinak, gozogileak edo go-

"ZIKLOEI DAGOKIENEZ, BATEZ BESTEKO LAN-TXERTATZE MAILA %85 INGURUKOA DA"

zoginak izango dira elikagai industria alorreko enpresetan eta gozogileak ostalaritza enpresetan. Azkenik, Jatetxe Arloko Zerbitzua eginda, zerbitzariak, tabernariak, maitreak, sommelierak, jangelako arduradunak edo jatetxe arduradunak izan daitezke. Goi mailako Sukalde Zuzendaritza zikloa eginda, sukaldaria, sukaldaburua, sukalde zuzendaria, catering eragiketen burua eta janari eta edari zuzendaria izan daitezke, eta Administrazio zikloa eginda, arlotan lan egiteko baliagarria den ikas-keta da. Kontutan izan behar dugu, gainera, ostalaritza oso arlo egokia dela esperientzia izan eta gero nork bere enpresa sortu ahal izateko. Gure ikastetxeko zenbait ikasleek bide hori hartu dute eta pozik daude enpresari lanetan; horretarako, Urratsbat programaren laguntza eskaintzen dugu.

Ikasleek erraz topatzen dute lana?

Ostalaritza eta elikagai industria sektoreek pisu handia dute gure ekonomian, eta nahiko erraz aurkitzen dute lana gure ikasleek. Gure zikloen batez besteko lan-txertatze maila %85koa da.

Ze harreman duzue ikasketak amaitu dituzten ikasleekin?

Oso hurbila; ikastetxeak 30 urtetik gora daramatza jardunean eta ikasle asko pasa dira hemen-dik. Hainbat promozioaren ospakizunak egin izan dira eta harremanak oso estuak dira kasu askotan. Ez dira gutaz ahazten, eta hori seinale ontzat jotzen dugu. Bestalde, ikastetxeak lan-poltsa bat ere kudeatzen du. Eskaintzen dizkiguten lan aukerak ikasle ohiei helarazten dizkiegu, eta, lana aldatu nahi izanez gero ere, haiek deitzen dute eskolara, ea zer izan dezagun eskaintzeko.



ETORKIZUNA ZURE ESKURA

FORMAKUNTZA:

TABERNA-KAFETEGIA

SUKALDARITZA

GOZOGINTZA

SUKALDE-ZUZENDARITZA

OKINGINTZA

JATETXEA



ESKOLA PUBLIKOA ETA DOAKOA

Eman izena maiatzaren 31tik ekainaren 18ra

gamarra
ostalaritza eskola • escuela de hosteleria

Informazio gehiago

Tlf. 945 25 80 25
gamarra@gamarraeskola.com
www.gamarra.eus





ZABALIK

ESTEPAN PLAZAOLA

Justizia araugilea

Hogeita hamar urte pasa dira jada EAEko administrazioan lehenengo aldiz hizkuntza eskakizunak ezarri zirenetik. 1989ko dekretu batek finkatu zituen horretarako jarraibide nagusiak: lau maila izango zirela, herri bakoitzeko hizkuntza gaitasunaren arabera finkatuko zela euskara jakitea derrigorrezko izango zuten lanpostuen ehunekoak, euskara jakitea derrigorrezko ez zen kasuetan euskara baloratu egingo zela, eta abar.

Haren ondotik, berehala etorri ziren administrazio bakoitzeko lehenengo euskara planak, eta bertan finkatu ziren lanpostu bakoitzaren hizkuntza eskakizunak. Eta handik aurrera lanpostu batzuk betetzeko euskaraz jakitea eskatu izan da, eta beste batzuk betetzeko baloratu. Dekretuak berak markatzen du derrigortasuna jartzerakoan lehenengo izango dutela herritarrei zerbitzua ematen dieten lanpostuek.

ZERTARAKO AUKERATZEN DITUGU LEGEAK ETA DEKRETUAK EGINGO DITUZTEN ANDRE-GIZONAK?

eskakizunen dekretua aipatu gabe eman du Irungo Udalak hamabi udaltzain plaza betetzeko egin duen deialdiaren gaineko epaia. Bere iritziz, gehiegizkoa da denek euskaraz jakitea eskatzea; erdiei eskatuta nahikoa litzateke euskaldunei zerbitzua emateko: udaltzain bikotean batek jakinda, nahiko; erdaraz biek, baina euskaraz batek jakinda nahiko. Eta hori esan du, hizkuntza eskakizunen dekreturik aipatu ere egin gabe.

Orduan, zertarako balio dute legeak eta dekretuek? Zertarako aukeratzeko ditugu legeak eta dekretuak egingo dituzten andre-gizonak? Zertarako balio du Legebiltzarrean edo udalbatzarretan ahalik eta kontsentsurik handieneko legeak eta planak sortzen ahalegintzeak?

Zer aukera dugu jada euskaldunok legea euren alde izatea ere ez badute behar nahi dutena egiteko?

Orduan finkatutako markoa izan da 30 urteotan guztion erreferentzia. Guztiona, orain arte. Orain, EAEko Auzitegi Nagusiak bere arau eta irizpide propioak sortu dizkigu. Harentzat ez dago dekreturik. Hizkuntza

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Landareak eta loreak

ARANTXA URRETABIZKAIA

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Duela urte gutxi, hedabide batean eguneroko lana nuen garaian, zegokidan nagusiari egun gutxitako oporrak eskatu nizkion, Ingalaterrara nindoalako, hainbat lorategi bisitatzea.

Eman zidan baimena eta, horrekin batera, aholku bat: ez nezala esan zertara nindoan Ingalaterrara, hobe nuela unibertsitate batera nindoala esan, edo arte erakusketa batera.

Harritu egin nintzen. Antzerkia ikustera doaz batzuk Londresera, arropa

erostera edo, besterik gabe, turismoa egitera.

Ulertzen dut norbaitek abortatzera doala ezkutatzea.

Baina lorategiak ikustera?

Botanika zela erantzun nion jefeari, eta ez nuen haren aholkua jarraitu.

Egiaztatu nuen landareak, lorategiak maite dituenari lauso pinpirin-ustea gaineratzen zaiola; kasurik hoberenean, puntu erromantikoa bat.

Egia da gure artean zaletasun hori, gehienetan, emakume kontua dela eta horrek berez dakarrela gutxiespena.

Kulturaren adierazpena da lorezaintza, sasoi bakoitzean dabilzan ideia filosofiko nagusien arabera antolatu izan dira eta dira lorategiak, baina jende gehienak apenas ezagutzen dituen bizpahiru lore, arrosa, krabelina eta bitxilorea.

Berdin zuhaitzekin, pinua, haritza eta besteren bat.

Niretzat, berriz, landareak, plazer estetikoaren gainetik, irakasle ere badira.

Miresten ditut bizitzeko edozein zirrikitu baliatzen duten belar xumeak, miresten dut sustraien bultzada isila, miresten dut hainbat lorategitan gauzatutako jakinduria.

Eta ez nau horrek lotsatzen.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooparatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailtako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

BERBAGAI

"Soka afektiboa izan da 'Arantzazu' aldizkaria"

AITOR SORRELUZ 'ARANTZAZU' ALDIZKARIKO ZUZENDARIA

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Arantzazuko frantziskotarrek aldizkari hori sortu zuteneko mendeurrena bete da gaur bertan. 1921a ezkerro, 1.039 zerbaki argitaratu dituzte.

Zein da sorreraren testuingurua?

Lehenengo saiakera 1918an egin zuten, Arantzazuko Andramari Gipuzkoako zaindari izendatu zutenean. Arrakastarik izan ez bazuen ere, 1920an Zarautzen eginiko bilkuran egitasmoa onartu eta txikikeriarik gabe aurrera egiteko hautua egin zuten, eta inprenta bat erosi.

Geroztik, hilero kaleratu zituzten zerbakiak?

36ko gerran izan ezik, bai. Hiru urte haietan zehar zerbaki gutxi egin zituzten; kalitate eskasekoak paperari eta tintari dagokionez.

Nola bilakatu da paperezkoaren zabalkundea?

Euskal Herrian onarpen handiko aldizkaria izan da, milaka eta milaka etxetara iritsi baita. Lehen zerbakian 6.000 ale banatu zituzten.



Aitor Sorreluz, Arantzazu aldizkari eskuan, Hemen Debagoiena saioan. IBAI ZABALA

Goia 70eko hamarkadan jo zuten, 65.000 alerekin. Azken 13 urteotan beharakada jasan du, eta gaur egun 5.000 ale banatzen dira Euskal Herrian, Espainian eta Hego Amerikan.

Hego Amerikan ere bai?

Hala da. Behin, Buenos Airestik deitu zigun emakume batek; gaztetan Tolosan bizi zela eta datuak aldatu nahi zituela zioen, aldizkaria jasotzen jarraitu ahal izateko.

Itxurari dagokionez, ze aldaketa izan ditu 100 urtean?

Lehen urteetan hizkera barrokoz josita zegoen, oso polita zen irakurtzeko; esaterako, ikaragarria da nola deskribatzen duten auzoaren paisaia lehen zerbakian. Gaur egun, hizkera soilagoa darabilgu, nahiz eta adierazi nahi duguna berdina den. Arantzazuko Andramariari antzeko zerbait gertatu zaio: arropaz estalirik zegoen 60ko hamarkadara arte, eta amabirjina bera ez zen apenas ikusten. Arropa erantzi zioten orduan, eta sekulako indarra hartu zuen soiltasunean, Bitoriano Gandiagak *Harrizkoa zara* olerkian ondo adierazten duen bezala.

Elizaren bilakaerak eragin al du aldizkarian?

Bai. Oso esanguratsua da 1965ean Vatikanoko II. Kontzilioari lotuta Elizan txertatu zen askatasun espirituala. Arantzazuk modu indartsuan bizi izan zuen gertakari hura, eraberritze prozesuan baitzegoen orduan: basilika berriaren eraikuntza, abangoardia artistikoaren eta modernitatearen etorrera... Joxe Azurmendi, Bitoriano Gandiaga eta Luis Villasante autoreak ere bertan genituen. Orduko aldizkariak horren berri ematen du.

Euskaraz eta gaztelerez idatzi izan da beti?

Hasiera-hasieratik. Gerra amaitu eta lehen bi urteetan bakarrik argitaratu ziren zerbakiak gaztelera hutsean. Bestela, euskarak beti izan du bere txokoa; esan genezake testuen %30 euskaraz idatzita dagoela gaur egun. Orekari eustea ez da lan erraza, irakurle askok ez baitute gure hizkuntza ulertzen.

Interneten ere eskura dago.

Hori da; *Liburuklik* estekan. Benetako altxorak daude bertan.

Nola bizi duzu zuk eginkizuna?

Pasio handiz. Aldizkariaren leloak dioen bezala, *bila dabilzan pertsonentzat* jarduten dugu, eta gu ere bilaketa horren parte gara. Begiak irekita edukitzea da gakoia. Erantzunak baino gehiago, erreferentziak eskaintzen dizkiogu irakurleari: kristautasunaren esanahiari buruzkoak, jakinduria jorratzen duten liburuenak, lan-harremanak zaintzeari buruzkoak, auzoko gertaerak, etikaren lanketa humanistikoa... Ez gara erlijio gaietara bakarrik mugatzen. Harpidetu nahi duenak 697 16 08 57 telefono zerbakira deitu edo aldizkaria@arantzazu.org helbidera idaztea dauka.

ITURRI ONETIK

Joseba Sarrionandia, Debagoiengan

Durangeldeko *Anboto* komunikabideak elkarrizketa egin zionean jakin zen Kubatik etorria zela. Idazle iurretarrak Euskal Kulturgintzaren Transmisioa (EKT) ikastaroan parte hartu zuen modu ez-presentzialean, baina bertatik bertara ezagutu zuten ikasleek asteburuan. Eskoriatzako MUREn fakultatean eman zuen eskola. Gaia: *Hizkuntza, literatura eta politika*. Eta Iturrieta sagardotegian bazkaldu zuen, Goienako zuzendari nagusiarekin eta EKTko koordinatzailearekin.

ALBISTE IZAN ZEN

2004-05-23

Erdi Arorantz egin zuen Arrasateko alde zaharrak

Erdi Aroko azoka antolatu zuen Arrasateko Udalak, lehenengoz, alde zaharreko kaleetan barrena. Txotxongilolariz, artisauz, jakien postuz, eta abarrez bete zen, jendearen jakingura asetzeko. Ia 60 postuk eta 15 artisauk osatu zuten azoka, eta hainbat kale ekitaldi antolatu zituzten. Herriko dantzariak eta konpartsek ere hartu zuten parte. Feria beste hiruzpalau urtez egin zuten, baina, azkenean, utzi egin zioten egiteari.



HAU BE BADOGU!

Txiolariak Ceutan jarri dute arreta

Maroko eta Espainiaren arteko mugako liskarren gaia *trending topic* izan da euskaldunen artean ere:

@mrotaetxe: "Espainiako Armadak ospa egin du Tarajalgo mugatik eta Marokoko errege-jendarmeria ari da Ceutara egin nahi duten migratzaileak atzera botatzen".

@GariGaraialde: "PSOEren gobernuak gerrarako ibilgailuak bidali ditu Ceutara sartzen ari diren migranteak gelditzeko".

@ArabaOEE: "Ceutara iritsitako migratzaileen erdia kanporatu ditu Espainiak euren adina egiaztatu gabe".

D2030: ELKARRIZKETA



Jabier Bikuña, Saiolaneko zuzendaria. SAIOLAN

"Sortuko dizkigun aukeren ikuspuntutik hartu beharko genuke klima larrialdia"

JABIER BIKUÑA SAIOLANEKO ZUZENDARIA

D2030 ekimeneko lankidetza sareko kide da Saiolan ere. Enpresa berrikuntza eta sustapenean duen urteetako esperientzia ipini du ekimenaren mesedetan

Miren Arregi ARRASATE

Enpresa berrikuntzarako eta sustapenerako zentroa da Saiolan, 1970eko hamarkadan sortu zenetik hona eskualdean enpresa ekimen berriak sustatzeko jarduna izan duena. Une honetan, D2030 ekimeneko lankidetza sareko kide ere bada. **Berrikuntza, lankidetza, parte hartzea, eskualde garapena, iraunkortasuna... Kontzeptu asko, D2030ek eta Saiolanek partekatzen dituztenak. Ezinbesteko gaur egungo ideiak dira?**

Eskualde edo komunitate baten garapenean ezinbesteko kontzeptuak dira aipatzen diren horiek. Gaur egun,

garapena ezin liteke lankidetza eta parte hartze gabe ulertu. Bestalde, bideragarritasun kontzeptua gaineratuko genuke, ezinbestekoa baita; izan ere, ezin dira beti administrazioen dirulaguntzetan oinarrituak egongo diren proiektuak soilik bultzatu.

Zergatik da garrantzitsua Saiolan D2030 ekimeneko kide izatea?

35 urte baino gehiagoko esperientzia dugu enpresa ekimen berriak sustatzen, lehenetasunez gure eskualdearentzat enplegu iraunkorra, aberastasunaren sortzaile eta jendarte aktibo eta erantzukizuna duen gizarte sortzeko

helburuarekin. D2030ek gure eginkizun edo misioarekin bete-betean bat egiten du, eta, beraz, eskualdeko eragile bat izaki eta lanaren etorkizuna D2030aren baitako eragin eremu bat izanik, bertan egotea ezinbesteko ikusi genuen.

Zer eman diezaioke Saiolanek D2030i? Eta zer alderantziz?

Saiolanek oinarri teknologikoak dituzten aktibitate berritzaileak sustatzen dituen urteetako esperientzia eta bere harreman sarea jarri dezake D2030en mesedetan. Aipatu bezala, 35 urteko esperientzia dugu ekintzaile gazteekin eta Debagoieneko ehun

enpresarialarekin proiektuak sustatzen. D2030ek, aldiz, eskualdeko eragileen ikuskera eta kezkek zein diren jarri ditu Saiolanen esku, eta horrek ideia berrien detekzioan lagun diezaguke. Bestalde, proiektu berritzaileak martxan jarriz, lurraldearen eraldaketa sozialean eragile aktibo bezala indartzea ahalbideratuko digu.

Zuen lana D2030en barruan prototipoak martxan jartzearekin dago lotuta, bereziki. Zertan datza lan hori?

Entzute fasean eskualdeko eragileen eta norbanakoek kezkek jaso ziren; hortik, ko-sorkuntza prozesuen bitartez, erronka eta ideiak ezberdinak azaleratu dira. Prototipazioaren prozesua ideia horiek sor ditzaketan aukera eta egitasmoak egikaritzean datza. Egikaritze horretan Saiolanen zeregina da proiektuari begirako bidelaguntza, kontaktuak, hausnarketak eta orientazioak eskaintzea. Prozesuan zehar hainbat oztopo izaten dira eta, askotan, talde ekintzailea bakarrik sentitzen da.

Orain arte, D2030ekin batera martxan jarritako prototipoak hamalau dira. Nola definituko zenituzke?

Izaera eta eragin eremu askotariko proiektuak daude –lanaren etorkizuna, energia, inklusioa, ekonomia zirkularra, hezkuntza, kultura, elikadura sistemak...–, eta, bakoitzaren trataera ezberdina bada ere, D2030en asmoa ikuskera sistemiko baten bitartez lantzea den heinean, elkarren arteko konexioak aurkitzen eta gauzatzen saiatzen gara.

Nola dago une honetan gure eskualdea, enpresa berrikuntza eta sustapenari dagokionez?

Saiolanen lantzen diren proiektuetan –berritzaileak/teknologikoak–, esan dezakegu enpresa ertain-handiak direla aktiboak. Ekintzaile indibidualei dagokienez, ez ditugu ekintzaileak proiektu asko izan azken urteetan; egoera ekonomiko onaren ondorioz, proiektu propio bat abiaraztea ez da gazteen

lehenetasuna izan. Badirudi azkenaldian aspektu hau ari dela zerbait aldatzen, eta negozio berri bati ekitea erabakitzen duten gazte kopurua pixkanaka gorantz joan da.

Etorkizuneko erronkek eta, bereziki, klima aldaketak zelan eragingo dute gure eskualdeko ehun enpresariarekin?

Ez dago zalantzarik klima larrialdiak eta bere ondorioz ezarriko diren neurri eta legeek eragina izango dutela Debagoienean ere. Aspektu hau mehatxu gisa hartu beharrean, sortuko dizkigun aukeren ikuspuntutik hartu beharko genuke; izan ere, hor aukera berriak sor daitezke ekonomia zirkularren baitan, material berriztagarrietan, energiaren sorkuntzan eta banaketan, hondakinen tratamenduan...

Une honetan, zer-nolako proiektuetan diharduzue Saiolanen?

2020a ziurgabetasunez betetako urtea izan arren, Saiolanek lagundutako proiektuen kalitate eta kantitate egokiarekin amaitu genuen. Aipatutako proiektuak IKT, Fintech, Foodtech, 4.0 industriari eta halako beharrei erantzutera bideratuta egon dira. 2021ean hurbiltzen ari diren proiektuak lerro berean doaz. Ikusten ari gara ideietako asko pandemiak sortutako beharrei erantzuna emateko planteatzen direla: telemedikuntza, merkataritzaren digitalizazioa, biztanleriaren zehartzearrekin loturiko sektoreak, 4.0 teknologiak...

"D2030EK SAIOLANEN EGINKIZUN EDO MISIOAREKIN BETE-BETEAN BAT EGITEN DUELAKO GARA KIDE"

"ZIURGABETASUN HANDIKO URTEA IZAN DA IAZKOA, BAINA PROIEKTU KANTITATE EGOKIA IZAN DUGU"

Bide publikoek herritarren babesa behar dute

JAVIER ERRASTI

ESKORIATZA

Aramaioko herritar batek bide publiko baten salmentaren inguruan egindako salaketaren berri izan dut maiatzaren 7ko GOIENAn. Kasuaren xehetasunak ez ditut ezagutzen, baina salatukoak guztiz sinesgarria dela zalantzarik ez dut, ukazina baita bide publiko baten inguruan hitz egiten ari garela. Horregatik, salaketa egin duen herritarrak ondare publiko bat babesteagatik guztion laguntza eta aitortza merezi ditu.

Tamalez, salatutakoa ez da ezohiko kasua, gure eskualdean bertan antzeko egoerak izan baitira beste herri batzuetan ere. Gipuzkoan, Euskal Herri osoan eta Euskal Herrikanpo ere antzeko kasuak nonahi gertatzen dira. Horrelako egoerak gutxi batzuen berekoikeriaren, beste askoren utzikeriaren eta hainbat eta hainbat udalen jokabidearen ondorio dira. Izan ere, udal askok bide publikoak arazo gisa ikusten dituzte, ez babestu beharreko ondare gisa. Hori dela eta, erabilera publikoko ondasunak babesteko legez dagokien betebeharrari uko egiten diote udal askok, ezin baita ahaztu bide publikoak herri ondarearen parte direla.

Orain dela mende eskas bat, GOIENAn salatutako moduko gertaera bat guztiz ezinezkoa izango zen gurean, Aramaioko herritarren erabateko arbuioa sortuko baitzuen, 1930ean Eskoriatzan geratu zen bezala. Bideak gure historiaren parte dira, iraganaren lekukotasun bizia, baina etorkizuna ere badute. Baina bideak gal daitezten uzten badugu, norbanakoei inolako oztoporik gabe bide publikoen jabe egiten uzten badiegu, bideekin gure

begien aurrean egunero-egunero gertatzen ari dena salatzen ez badugu, nola erakutsiko diegu gazteei gure historiaren parte hori? Nola egin behar dituzte euren jarduerak landa eremuan suhiltzaileek, mendizaleek, kirolariek, ehiztariek... bide publikorik gabe? Zer oztopo aurkituko dituzte landa eremuan edozein jarduera egin nahi duten herritarrek?

Hori dela eta, eskualdeko herritarrei eta mendi taldeei, landa eremuan kirol jarduerak edo kultur ekintzak antolatzen dituztenei, ikastetxeei, komunikabideei, talde ekologistei... bide publiko baten defentsan ari diren Aramaioko herritarrei babesa eta aitortza adieraztea eskatzen diet, etsi gabe lanean jarrai dezaten.

Erreakzionatu, hondamendiaren ondorioak gutxitzeko

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA BERGARA

Carlos Taibok esandakoa da hau: jakingo bagenu meteorito bat erori behar dela data zehatz batean, planeta osoak erreakzionatuko luke ondorioak gutxitzeko.

Edozelan ere, aspalditik dabilta esaten dauzkagun ohitura jasangaitzek etorkizuneko belaunaldien bizi-kalitatea kolokan jartzen dutela, baina horrentzako ez dago erreakziorik.

Beharbada, ez dela gertatuko pentsatuko dute batzuek, kontuan izan gabe planetaren biztanleen erdiak baldintza oso gogorretan bizi direla eta haienezako zaila dela egoera gehiago gaiztotzea.

Gakoa da ondo bizi garen beste erdiok zer egingo dugun.

Izan ere, apenas dago erreakziorik.

Nire galdera da: zer gertatu behar da zure inguruan zuk erreakzionatzeko?

Natura errespetatuz ekoiztutako produktuak erosi, sobratzen zaigun dirua banku etikoetan gorde eta gelditzen zaigun denbora boluntario lanetan sartu.

Horiek dira egin ditzakegun gauza batzuk.

Eskerrik asko, Juanjo Ansoategi

BERONIKA GARAI, XABIER ZUBIZARRETA, INO GALPARSORO, ARKAITZ BIAIN ETA OIHANA ARANBURU

ARRASATEKO EZKER ABERTZALEKO KOMITE LOKAL, ALKATE, ZINEGOTZI ETA IRATIN IZANDAKO BIDELAGUNAK ARRASATE

Aberri Egunaren bezperan utzi gintuen Juanjo Ansoategi, *Esau*-k, lagunartean eta militantzian ezagutzen genuen moduan. Kasualitatea edo ez, Euskal Herri aske eta justua amestu eta borrokatzen dugunok gure etxeetako leihoak ikurrinaz jantzi orduko itzali zen *Esau*, sentimendu abertzale eta balio ezkertiar sakoneko arrasatearra.

Eta bera zen bezala joan zaigu, oharkabean, nabarmentzeko asmorik gabe. Baina *Esau*-ren hutsunea nabarmena izango denik ezin ukatu, bere izaera eta ibilbidea marka uzten duten horietakoak izan baitira.

Tipo serioa zen, serioa bezain umoretsua. Seriotasunez eta konpromisoz bizi zituen Euskal Herriaren errealtate eta afera ezberdinak, askotan umore eta txantxari ere lekua eskainiz. Ezagunak ditugu askok bere azalean frankismoaren aurkako borrokan bizitako pasarte gogorren kontakizun umoretsuak edota sozialismoa zer zen definitzeko gazteak zirikatzen zitueneko momentuak.

Egoera zailenetan ere erreferente izan dugu, bidea argitzeko gaitasuna duten horietakoa. Bisio garbiduna, amesten dugun horri hankak lurtean edukita, herriaren eta pertsonen mesedetan

beti. Horregatik guztiagatik oparoa izan da bere ibilbide pertsonal, profesional eta politikoa. Apaltasunean arduatu den ibilbidea. Gaitasun garrantzitsuak izan arren, horien guztien artean umiltasuna nabarmentzen zelako.

Herrien eta pertsonen askatasunaren alde borrokan aritu zareten eta gure artean ez zaudetenok asanbladan zaudeten leku horretan, eskutitz hau nekez irakurri ahal izango duzu. Baina jakizu klandestinitatean, erbestean, udalgintzan, herrigintzan, presoen eskubideen defentsan, mahai zein batzarretan, edota kafe goiztiarretan, plazera eta pribilegioa izan dela zure bidelaguna izatea.

Zuk bezalaxe guk ere amesten dugun horrekin jarraituko dugu, zugandik ikasi eta jasotako guztiari bide emanez, garaipenera arte. Aurrera bolie!

Bukatzeke, besarkada bana Rosa Mariri eta Euriri. Juanjok utzitako hutsunea betetzea ezinezkoa dela badakigu, baina berak emandako guztia ametsak betetzeko adina izango da.

Birziklapenaren Nazioarteko Eguna zenez maiatzaren 17an

PIITER ENCINAS ETA IGOR URIZAR

ARRASATEKO EKOLOGISTAK MARTXAN ERAKUNDEKO KIDEAK ARRASATE

Unescok (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) izendatu du egun hori. 2005a ezkerro Birziklapenaren Eguna ospatzen da, batez ere, gizarteak eta gizakiok gure hondakinak hobeto kudea ditzagun. Ordezko planetarik ez daukagulako. Beraz, planeta urdin hau zabortege bihurtu nahi ez badugu, gure ohiturak aldatu beharko ditugu; bestela...

Murritz. Askotan, gehiegitan, entzuten dugu herritarrok egin dezakeguna hutsala dela. Baliteke gutxi izatea, ikatza edota petrolioa bezalako erregai fosilen

kontsumoa lehenesten duten enpresa kutsatzaile handiekin konparatuz gero, baina zerbait bada, eta gure harea-pikorrek kontzientzia hondartzak egiten ari gara. Leku guztietara gure kotxearekin joaten ez garenean, plastikoaren erabilera gutxitzen dugunean edo erosketak ahalik eta bilgarri gutxien izan dezala kontuan hartzen dugunean, lortzen ari gara gure aztarna ekologikoa gutxitzea.

Berrerabili. Erabili dugun edozein gauzari beste erabilera ematen diogunean, bere erabilera luzatu egiten dugu. Beraz, zabortegeira edo, okerragoa izan litekeena, erraustegi batera iristea atzeratzen dugu. Horren ondorioz, edozein objektu zenbat eta gehiago erabiltzen badugu, orduan eta zabor gutxiago sortzen dugu; aldi berean, naturari egiten diogun mesedea da sortzen ez dugun zaborraren tamaina baino handiagoa. Gainera, berrerabiltzen duguna ez dugu erosi behar; hortaz, gure poltsikorako beste onura bat.

Birziklatzea. Esan daiteke hori dela hirugarren urratsa ingurumena ez kaltetzeko. Oso nabarmena da edozein aktibitate gehiago edo gutxiago baina hondakina sortzen dugula; hala, lehen saiakera izan behar da hondakin hori zabor ez bihurtzea. Zergatik desberdintzen ditugu hondakina eta zaborra? Jakina da hondakina birzikla daitekeela; zaborra, ordea, ez.

Alderdi politikoak, foru aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak derrigortu beharko genituzke ingurumenarentzat alternatiba faltsuak eta kaltegarriak izaten direnak baztertzera; batez ere, erraustegia eta kontrol gabeko zabortegeak, enpresek kudeatu arren.

Oso nabarmena da Zaldibarko zabortegearen kasua, eta han zer eta nola gertatu zen.

Kirol instalazioen mapa osatu gura du Gobernuak

Musakolako kiroldegiaz gain, Iturripekoa eta Uarkapeko frontoia aztertu gura ditu, herritarrekin, klubekin eta ordezkari politikoekin elkarlanean, eta azpiegituren mapa osatu; hala, ekainean abiatuko den prozesuan parte hartzeko dei egin die guztiei

Eneko Azurmendi ARRASATE

Aurreko agintaldian, Musakolako kiroldegia berritzeko aurreproiektua prest utzi zuen Udal Gobernuak, eta orain, herritarrekin landu gura du herriko kirol instalazioen mapa.

Maria Ubarretxena alkateak dio helburua dela herriko kirol azpiegituren mapa partekatua sortzea "herriko klubekin erabiltzaileekin zein herritarrekin". Sortutako maparen baitan, egungo azpiegituren eta horien berritzearen gaineko diagnosi partekatua sortu gura dute eta, "lehenetsunez", berritze lanak aurrera eramateko hurrenkera adostu. "Taldea posizioaren eta kontsentsuaren arabera, kirol zerbitzuen planifikazioa eta horien ezaugarriak landu eta adostuko ditugu; hala sortuko da kirol zerbitzuak berritzeko proposamena".

Bost fase izango ditu prozesuak

Parte-hartze prozesua bost fasean egingo dute. Lehenengo fasean, diseinua eta egitura sortuko dituzte, bost lantaldeekin: kirol batzordeko ordezkariak, langileak, klubetako ordezkariak eta erabiltzaileak eta herritarrek. Bigarren fasean, diagnostika sortzeko erabakia zehaztuko dute; hau da, interbentzio beharra duten kirol azpiegituren mapa eta diagnostika egin, lehenetsitako interbentzioen ezaugarriak zehaztu, diru aukeren eta mugen gaineko hausnarketa egin eta interbentzioen hurrenkera finkatu. Hirugarren fasean, ordura arte egindakoaren kontrastea egingo dute, herritarrekin zein haurren kontseiluarekin, bost egunez egingo dituzten bilera irekien bitartez. Ondorengo fasean, herritarren ekarpenak eta balorazioak jaso eta aukera berriak aztertuko dituzte. Eta bosgarren eta azken fasean, emaitzen dokumentazioa egingo dute.



Udal Gobernuako ordezkariak, Uarkape pilotalekuko sarreran. E.A.

MAPA OSATZEKO PROZESUA EKAINEAN HASIKO DUTE ETA 2022KO OTSAILEAN BUKATZEA DA ASMOA

Epe luzeko inbertsio plana

Gobernuak nabarmendu du epe luzeko inbertsio plana dela, "hurrengo Udal Gobernuak ere konprometituko dituen". Hori dela eta, "era partekatuan" landu gura dute, "ordezkari politikoekin, herritarrekin zein eragileen artean". Hamar urteko inbertsio plana du buruan Gobernuak, "parte-hartze prozesuan zehazten den proiektuaren arabera egokituko dena".

Instalazioak, "zaharkituta"

2017an 40 urte bete zituen Musakolako kiroldegia, eta, hain zuzen, orduan ekin zion Gobernuak herriko kirol instalazioen azterketari, Musakolako zein Iturripeko kiroldegien eraberritzea helburu hartuta. "Zaharkituta ditugu azpiegiturak, eta txiki geratu dira. Adin guztietarako egokitutako kirol insta-

lazio jasagarriak eta irisgarriak behar ditugu, arrasatearren beharretara era errealean eta etorkizuna aintzakotzat hartuz egokitutako azpiegiturekin".

2018ko lehen seihilekoan egin zuten herriko kirol instalazioen gaineko parte-hartze prozesuaren lehen fasea, eta, era berean, Arrasateko 2019-2029 Kirolaren Plan Estrategikoaren baitan, herritarrekin eta eragileekin egindako prozesuan, kiroldegi berri bat beharrezkoa zela ikusi zuten, "gaur egungoaren aldean, azpiegitura gehiagorekin".

"Behar estrategikoa da"

Alkateak dio "ausardiaz" ekingo diotela herriak duen behar estrategikoa horri. "Herritarrentzako instalazioak dira, eta garrantzitsua bezain aberasgarria da parte aktibo izatea. Egin genuen, ari gara eta elkarlanean gauzatuko dugu. Herritarrekin jorratu nahi dugu Arrasateko kirolaren etorkizuna".

Balorazioa, ondo aztertu ostean EH Bilduk azpimarratu du duela bi egun jaso duela informazioa, eta ondo aztertu ostean emango duela balorazioaren berri.

Urteurreneko dokumentala, Larraitz Ugartek aurkeztuta

Hamargarren urteurreneko erakusketa eta dokumental emanaldia egingo ditu EH Bilduk maiatzaren 28an

E.A. ARRASATE

Datorren egubakoitzean, hilak 28, hamargarren urteurrena gogora ekartzeko hitzordu bikoitza izango du EH Bilduk Arrasaten. Alde batetik, 11:00etatik 19:30era, koalizioaren oinarri eta balio politikoak barnebiltzen dituen erakusketa jarriko dute Seber Altuben, eta 18:00etan, berriz, *10 urte besterik ez* filma proiektatuko dute Kulturateko areto nagusian, Larraitz Ugarte EH Bilduko Komunikazio zuzendari oñatiarrak aurkeztuta.

Hiru Damatxok ekoiztu duen ikus-entzunezkoak, EH Bildun "zeresana" izan duten 26 lagunentzako bitartez, hamar urte "oparo eta erabakigarri hauen errepaso" eskaintzen du, koalizioaren kideen esanetan. Filmak, halaber, ordubete irauten du, eta, edukiera arrazoiak tarteko, sarrera mugatua izango da.



Larraitz Ugarte, Arrasaten. GOIENA

Maiatzean bete dira hamar urte lehen aldiz hauteskunde batzuetara aurkeztu zirenetik. "Tbilbide zail bezain eder honetan hainbat lorpen garrantzitsu lortu ditugu Euskal Herriarentzat, eta gure oinarriekin partekatu eta sendotu gura ditugu".

AEDk sanjuanetarako aterako dituen zapiak leloa behar dute

Udari "ongietorri koloretsua" emateko, lepoko zapiak egingo ditu AEDk, eta leloa aukeratzeko lehiaketa jarri du martxan. "Arrasaten bizi, ikasi edo lan egiten duen edonork har dezake parte, taldean edo bakarka, eta lanak ekainaren 3a baino lehen bidali behar dira, aed@aedl-karteia.eus-era, egilearen izen-abizenak eta telefonoa zehaztuz".

Adinkeriaz ariko da Borja Doncel erizaina martitzenean

Arrasateko Nagusien Kontseiluak antolatuta, hitzaldia egingo du Osakidetza erizain eta EHUn Ikerketa Biomedikoan doktoreak maiatzaren 25ean, Kulturateko areto nagusian, 17:30ean. Edukiera mugatua izango denez, udal webgunean eman beharko da izena, aurrez. Hala ere, *streaming* bidez zuzenean jarraitzeko aukera egongo da, Youtuben.

Maskararen kalteak nola ekidin azalduko dute, hitzaldi batekin

Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkarteak antolatuta, arnas-keta tailerra egingo du Estitxu Uribeetxeberria fisioterapeutak: *Musukoaren erabilerak sortzen dituen kalteak ekiditeko, umeekin egin ahal izateko ariketak*. Etxaluzen izango da, hilaren 29an, 11:00etan, eta geahe.formakuntza@gmail.com helbidera idatzita eman behar da izena.

Afrikaren Nazioarteko Egunaren harira, hitzaldia egunean

Maiatzaren 25ean izango da eguna, eta, horren harira, hitzaldia antolatu du Mundukidek. Hala, maiatzaren 27an, eguna, Gaztelupe gunean izango da Hilaria Vianeke aktibista angolarra, 18:00etan. Saioaren bidez, arrasatearrei Afrikara "bidaiatzeko" eta emakume afrikarren ametsak eta erronkak ezagutzeko aukera eskaini gura die fundazioak.



Pablo Urangako gazteguneko erabiltzaile diren hainbat gazte eta haien gurasoak, sinadurak BAZen entregatu aurretik. E.A.

Erdigunean gaztegunek bat izatea eskatzen dute

Arrasateko Udalak otsailean eten zuen Pablo Urangako gaztegunearen asteburuetakoa zerbitzua, bizilagunen sinadura bilketa baten ondorioz; oraingoan, hango erabiltzaile eta gurasoek batu dituzte sinadurak, erdigunean gaztegunek "duin" bat aldarrikatzeko

Eneko Azurmendi ARRASATE

Hamaika urte dira Udala gaztegunek zerbitzua eskaintzen hasi zenetik Pablo Urangako lokalean, eta Txatxilipurdiko langileak arduratu izan dira 12 eta 16 urte arteko gazteei zerbitzua emateaz. Bizilagunen eta erabiltzaileen artean aspalditik zegoen bizi-kidetza arazo bat zela eta, ordea, Udalak Musakolara lekualdatu zuen asteburuetakoa zerbitzua.

Lekualdatzeak erreakzio uholdea ekarri zuen berehala, eta kaltetu zuzenek, hau da, gazteek, sinadura bilketa bat abiatu zuten segidan, erdigunean gaztegunek bat izatea eskatuz. "Ez gaude ados gutxi batzuen jarre-ragatik gaztegunek ixtearekin, gehienok jarrera egokia eduki izan dugulako", adierazi dute.

Haien eskaera garbia da: adin tarte horretako nerabeek erdigunean, "berdin da non", gaztegunek "duin eta egokia" edukitzea lehenbailehen, "aisialdi hezitzaile egokia izateko adin oso garrantzitsua baita haiena". Gu-

rasoek nabarmendu dute azken hori. Izan ere, gazteak izan dira, euren kabuz, sinadurak batu dituztenak, baina gurasoen babsa izan dute hasieratik.

Musakolakoa, txikiegia eta urrun

Gurasoek azaldu dutenez, hasieran, gazteak hasi ziren Musakolako gaztegunera joaten. "Baina nahiko urrun geratzen zaie eta askok zerbitzua erabiltzeari utzi diote. Lekua ez da aproposena, txikia da eta beste auzo batzuetan bizi diren gazteentzat urrun dago", diote.

Gaineratu dute asteburuetan erabiltzen zutela, gehienbat, zerbitzua. "Asteazkenean ez dute hainbeste erabiltzen, kirol jarduerak eta klaseak dituztelako".

IA 800 SINADURA BILDU DITUZTE ETA BAZ-EN ENTREGATU, UDALARI "ESKAERA ZUZENA" EGITEKO

Gazteendako "alternatiba" falta

Era berean, diote Udalak oraindik ez duela egin bilerarik arazoa bideratzeko, ez gurasoekin ez nerabeekin. "Erantzuna da gauzak argi eduki arte ez dutela gurekin bildu nahi. Ikusten dugu oso luze joan daitekeela hau, eta guk ez dugu gura gure seme-alabak horrenbeste denbora gaztegunek barik egotetik".

Azkenik, Arrasaten 12-16 urte artekoentzat alternatibak falta direla ere plazaratu gura izan dute. "Ludotekak, gaztetxea, kultura etxea, zaharren egoitzak, eta abar ditugu, baina gazteentzako leku apropos bat falta da. Uste dugu haien hezkuntzarako oso garrantzitsua dela halako espazio edo leku bat edukitzea".

Kokaleku "egoki" baten bila

Udal Gobernuak azaldu du Txatxilipurekin ari dela lantzen erdigunean gaztegunearen kokalekua, "egokia izan dadin bai zerbitzuaren ikuspuntutik baita bizilagunen ikuspuntutik ere".

Aniztasun funtzionala dutenentzako saioa bihar

Musikaren Magia saioa egingo dute Etxaluze eraikinean, MUKo ikasle talde batek antolatuta

E.A. ARRASATE

LEINN graduaren baitako proiektu moduan sortu zen BASH, 16 eta 20 urtekoen artean aniztasun funtzionala dutenentzat sormen eta mugimendu espazioak sortzeko asmoz. Hori dela eta, mugimendu orokorra lantzeko ekintzen eta dantzaren bitartez momentu dibertigarri bat izan dezaten saiatzen direla aitortu du Maria Belak, ikasleentzako batek. "Hori lehen ez zeukaten. Klaseak bazituzten, baina estresak askatu eta mugimendua lantzeko saiorekin ez zeukaten, eta horri erantzuteko sortu zen BASH", gaineratu du.

Era berean, proiektua egonkortzeko bidean dagoela adierazi du. Izan ere, Musikaren Magia 2019an egin zuten lehen aldiz. "Askotariko ekintzak egin ditugu; betiere, mugimendua lantzea eta ondo pasatzea, dibertitzea, helburu hartuta".

Izen-ematea zabalik dago

Bihar, zapatua, Etxaluze eraikinean egingo dute saioa, 11:00etatik 13:00etara, eta izen-ematea zabalik dago, 30 euro ordainduta. Interesa duenak 666 66 99 86 telefono zenbakira deitu dezake, edo maria.bela@alumni.mon-dragon.edu helbidera idatzi.

Kolonbiarekin Elkartasun Jardunaldia bihar

Jorge Adolfo Freyter Romero Elkarteak eta Herriok Harro Elkarteak Arrasateko Udalaren laguntzarekin antolatutako saioa egingo dute bihar, zapatua, Kulturategi areto nagusian, 11:00etan hasita. Besteak beste, *Universidades Bajo SOSpecha* liburuaren aurkezpena egingo dute Maria Ruiz Aranguren eta Jorge Freyter idazleek.

NIRE USTEZ



OIANA SANCHEZ

Errua ehortzirik

Albisteak, Zaldibarko 500.000 tona balira bezala, Alberto Sololuzeren senideak lurperatu ditu, maldatik irtendako oihuak betirako isilaraziz, epaiketaren zain, araketa amaitutzat eman baita.

Lur-jausiaren ondorioz izandako ezbeharrek oraindik mintzen dute. Kimikoek piztutako suak erretinetan bizirik dirau. Era honetan, hasieran kutsakorrek ez ziren hondakin-biltegiko pozoiak dagoeneko lurretatik iragazi eta ibaietara iritsiak dira. Gure herri maitean seme-alabek arnas arazoekin jaio eta, zoritxarrez, *Salbutamol* hitza barneratuta izatea ohikoa da. Are gehiago, minbizi puntu beltz izateko lasterketan egindako merezimenduak ere ezin hobeak dira.

Ez dakigu zaborrekin zer egin, ezta kutsatzen ez dutenekin ere. Aitortu ordez, banatzen eta birziklatzen irakasten dugu. Arazoa saihestu, alegia. Fabrikazio tayloristaren kakak mendi magal ezegonkorrean lurperatzea. Horren arduradun eta konplizeen aldetik barkamena adierazteko ere trabak daude.

Errudunok, jakin ezazue: oihuak ez dira inoiz isilduko.

OHARRAK

Laburbira gaztetxean

19:00etan hasita, zortzi film proiektatuko dituzte bihar; tartean, *Ilunabarrean esan*.

Literatura lehiaketa

AEDk sariak banatuko ditu hilaren 27an, Kulturategi areto nagusian, 19:00etan. Gonbidatu berezia Oihana Arana eskoriatzarra izango da. *Streaming*-ez ikusi ahal izango da Goiena.eus-en.



Mondrateko jokalaria, zapatuan, Hirugarren Mailarako igoera ospatzen, Otalora Lizentziaduna kaleko iturrian. JULEN IRIONDO

Behin igoera lortuta, liga irabazteko erronka dute

Areto-futbolean, jada Hirugarren Mailako taldea da Mondrate; balentria hori azken aurreko jardunaldian lortu dute, eta orain, ligako txapeldun izanda borobildu gura dute denboraldia; horretarako, liderra menderatu beharko dute bihar Portugaleten

Eneko Azurmendi ARRASATE Jarrilleros Peñota Dental. Talde hori garaitzea dute helburu arrasatearrek bihar, zapatua, 16:30ean jokatu duten partiduan. Modu horretan, igoerari, ligako txapeldun izatea batuko litzaioke. "Oso pozik gaude igoerarekin, baina erronka polita da liga irabaztea ere, eta ea aukera daukagun horretarako",


azaldu du Jon Zabalak, taldeko entrenatzaileak.

Taldeari eutsi gura diote

Datorren denboraldira begira, Zabalak nabarmendu du "garbi" dutela taldeak hobeak izango direla Hirugarren Mailan. "Baina gure jokoarekin lortu dugu igoera eta gure jokoarekin jarraituko dugu datorren denbo-

raldian ere. Kolperen bat edo beste jasoko dugu, agian, baina gure izaera hori da eta horri eutsiko diogu. Helburu nagusia izango da taldea mantentzea, mailari eustea eta, aurrera begira, Hirugarren Mailan egonkortzea. "Jokalariek lortu dute igoera eta haiek dira protagonista nagusiak. Ez dugu taldea inork uzterik nahi".

Mondrateko hainbat kideren hitzak




JON ZABALA
ENTRENATZAILEA

"Nik esaten nuen talde honi mailaz igotzeko gaitasuna ikusten niola, eta horretarako izan dugun lehenengo aukeran lortu dugu helburua. Bihar beste erronka bat daukagu denboraldia borobiltzeko, ea irabazteko gai garen. Datorren urtean ea jokalaria guztiek jarraitzen duten taldean, hori baita inportanteena guretzat".




IGOR MURGOITIO JOKALARIA
ETA ZUZENDARITZAKO KIDEA

"Urte bikaina izan da, eta igoera lortzeko halakoa izan behar zuen; are gehiago, halako liga batean. Hala ere, erronka polita daukagu bihar, haiek oraindik ez baitute galdu partidurik. Datorren urtera begira, mailari eusten saiatuko gara, ahalik eta lehiakorrenak izaten, eta kantxan ahalik eta gehien gozatuz".



XABI GORROÑOGOITIA
KAPITAINA

"Urte ilusio handiarekin hasi genuen; jokalaria berriekin oso familia polita osatu dugu, talde bikaina osatzeaz gain. Denboraldia aurrera joan ahala, igoeran sinisten joan gara eta, azkenean, lortu dugu. Bihar irabazita, sari potoloagoa lortu dezakegu, eta datorren urtean ikusiko dugu Hirugarren Mailan zer egiteko gai garen".



JOKIN ZEZIAGA
JOKALARIA

"Denboraldi osoan egindako lanaren emaitza da igoera, eta oso harro gaude. Lehen aldiz igo da Mondrate Hirugarren Mailara, eta hor jokatu ahal izatea ederra izango da. Oso talde onak egongo dira, baina guk ere gure onena emango dugu. Bide batez, nire familiari eskaini gura diot igoera, babes handia eman didalako".

Detroit Mercy Titans taldera doa Irene Murua, Louisiana utzita

Urtebete egin du Louisiana Tech unibertsitateko taldean, eta egindako denboraldiarekin pozik dago arrasatearra

E.A. ARRASATE

Louisianako taldearekin konferentziako *play-off*-etako finalurrekoetaraino iritsi da Murua, eta, ezin irabazi izanagatik pena apur bat duen arren, pozik dago egindako denboraldiarekin. "Par-

tidu guztiak jokatu ahal izan ditugu, eta ez da gutxi".

Beste hiru denboraldi talde hartan geratzeko aukera zuen, baina hainbat eskaintza iritsi zaizkio, eta Detroitekoak asko erakarri du. "Hiri handi bat da,

gauza asko egiteko aukera eskaintzen duena, eta arlo akademikoari dagokionez ere aukera ona da niretzat. Entrenatzailearekin hitz egin nuen bideo-dei bidez, eta daukaten saskibalo proiektuak oso itxura ona du".

Liga bereko taldea da Detroit Mercy Titans, Division One ligakoa, hain zuzen, baina beste konferentzia batekoa.

Gogotsu eta ilusioarekin

Gaur egun, Louisianan dago, oraindik eskolak ez dituelako



Irene Murua. EMERALD MCINTYRE

amaitu. "Maiatz bukaeran Arrasatera itzuliko naiz, eta gero, uztailan, Detroitera joango naiz, denboraldi-aurrea egitera", dio.

Era berean, datorren denboraldira begira "oso gogotsu" dagoela onartu du. "Proiektu eta toki on batera noa. Jokalari berri asko egongo gara eta hasieran apur bat zaila izango da harreman berriak egitea eta taldera egokitzea. Baina entrenatzailearen planteamendua asko gustatzen zait eta ilusioz noa", gaineratu du.

Tenperatura igo ahala leher egingo duen drama

Mauma konpainiak 'Lurrin minez' obra taularatuko du Amaian domeka honetan, 19:00etan hasita. Zuzeneko musikak eta biraka dabilen eszenografiak kontaketa garaikide bat proposatuko du, hiru homosexualen arteko enkontru sexuala azaltzeko

Hasier Larrea ARRASATE

Gay sauna batean hiru gizonen arteko ezusteko topaketatik abiatzen da *Lurrin minez* antzezlan. Protagonistak dira saunako langile bat, institutuko irakasle bat eta lehen aldiz halako enkontru batera doan gazte bat. Kontakizuna erlijio kutsuko sinbologiaz beteta dago: Gabon gau batean gertatzen da elkarrekintza guztia, eta Jesus da protagonista gazteenaren izena. "Mistikotasuna eta kontrastea" bilatzeko egin dute aukeraketa hori, Olatz Gorrotxategi obraren zuzendariaren arabera: "Ikusleak txortan egiteko batu diren mutilen arteko gorabeherak jasoko ditu, eta, era berean, iruditeria erlijioso batekin egingo du topo".

Galder Perez gidoiariaren "hitz joko trebee" antzerki forma emateaz arduratu da Gorrotxategi. Ez da lehenengo aldia biek batera lan egiten dutena; "aspalditik" ezagutzen dute elkar, eta 2019an jardun zuten elkarrekin, *Mari eta galleten fabrika* antzezlanean: "Orduan eroso ibili ginenez, obra zuzentzeko pertsona egokia nintzela ondorioztatu zuten Perezek berak eta aktoreek".

Anbientazio "berezia"

Gaizka Chamizo, Jon Koldo Vazquez eta Pelayo Serrano antzeleak dira testuaren zama eramaten dutenak, Joseba B. Lenoir musikariaren presentzia eszenikoaren konpainian. Laugarren pertsonaia horri buruz galdetuta, zuzendariak dio gainontzekoak baino "anbiguoagoa" dela bera: "Non dagoen oso ondo ez dakigun *voyeur* itxurako artista".

Gitarra-jole beratarrak antzezlenerako propio konposatutako "material interesgarria" jotzen du zuzenean, gitarraren, pianoaren, sintetizadoreen eta aho-tsaren laguntzarekin. Osagarri melodiko hutsa izatera mugatu



Alex eta Oskar, Jesus airean eusten dutela. MAUMA KONPAINIA

LEHEN BEGIRATUAN DIRUDIENA HANKAZ GORA JARTZEKO ESTETIKA BEREZIA EMAN DIOTE OBRARI

baino gehiago, pertsonaiak "uler-tu eta sentitzeko bidea" irekitzen dute haren erritmoek, lanari "identitate eta estilo propioa ematearekin batera, ikusleari ihesbidea" bermatuz.

Kontaketa garaikidea

Eta kontatzeko moduari errepertatuta, ikuskizunak plastika eta antzerkigintza garaikidea proposatuko ditu, denbora eta espazio lerroak hautsita. Hori nola egingo duten azaldu du Gorrotxategi: "*Lurrin minez* obraren dekoratua biratu egiten da, eszenak hainbat tokitatik ulertu eta sentitzeko".

Teknika hori baliatzen dute hiru mutilen arteko erlazioaren "konplexutasuna" adierazteko: "Proposatzen dugun sexu triangeluan, lehen begirada batean badirudi pertsonaia bat txarra dela, berez, baina, bigarren ira-

kurketan, perspektiba berri batekin, hobeto ulertzen ditugu eurak eta inguruan gertatzen zaiena", dio zuzendariak.

Xehetasun gehiago

Mauma konpainiaren ekoizpena idatzizko formatuan ere eskura daiteke, Susa argitaletxeak eta EHAZEK (Euskal Herriko AntzerkiZale Elkarte) kaleratu baitute elkarlanean.

Obrak iazko Zinegoak jaialdian ikusi zuen oholtzaren gainean argia lehenengoz, oraindik testua guztiz osatugabe zegoela. Ofizialki Loraldiak jaialdian aurkeztekoa bazen ere, pandemiak eragindako geldialdiaren ostean estreinatu zuten, joan den urrian, eta otsailaren 20an hasi zuten bira, Beran. Hiru hilabete zehar, Oiartzun, Eibar, Agurain, Galdakao, Hernani eta Elorrioko aretoetan aurkeztu dute, besteak beste.

Domeka honetan, hilak 23, arratsaldeko zazpietan hasita izango dute arrasatearrek desioz, pasioz, botere harremenez eta bortizkeriaz blai datorren hiru-ki sozial, erotiko eta politikoa osatzen duten protagonisten istorioan murgiltzeko aukera.

'Gernikako arbola' kantuari buruz ariko dira eguaztenean

Portaloik elkarrekin antolatuta, Iparragirren "euskal ereserkia" errepasatuko du Jose Mari Esparza idazleak

H.L. ARRASATE

Kantuzalea da, batez ere, Arrasateko Portaloik kultur elkarteak, eta jakin badakite jendea batzeko tresna dela kantugintza. Elkarteak kideek uste dute egin-kizun hori "ondo baino hobeto" ordezkatzeko duela XIX. mendean zehar bizi izandako Jose Mari Iparragirre olerkari eta musikagile urretxuarrak, eta, hari aitortza egin nahian, hitzaldia antolatu dute Kulturateko areto nagusian hilaren 26rako, 18:30ean. Bertan, *Gernikako arbolaren biografia* izeneko liburua idatzi

duen Jose Mari Esparzak hartuko du hitza. Autorearen esanetan, hizketagai izango duten kantua "Euskal Herriko ereserki nazionala" da, "mota guztietako jendeak, ideologia guztietakoak, abestu izan duelako Ebrotik Aturrira, kultura, gizarte eta politikako mota guztietako adierazpenetan".

Iparragirren eta *Gernikako arbola*-ren nondik norakoak azaltzeaz gain, kantautorearen abesti esanguratsuenak kantatuko dituztela adierazi dute Portaloikoek.

Hamazazpi emanaldi izango ditu Udaberri ziklo musikalak

Arrasate Musikaleko ikasleek maiatz amaieratik uda hasi arte erakutsiko dute urteetan zehar ikasitakoa

H.L. ARRASATE

2015a ezkerer dihardu Monterron jauregian egoitza duen musika eskolak jendaurreko kurtso amaierako kontzertuak antolatzen. Aurten, hil honen azken ostiralean ekingo diote Udaberri ziklo musikalarri, eta ekainaren 22an amaiera eman. Hiru aste eta erdiko epean, ia egunero egongo da zer ikusi eta zer entzun herrian. Zehatzago esanda, musika eskolan bertan, Kulturaten, San Frantzisko elizan eta Amaia antzokian egingo dira kontzertuak; Arrasate Musikaleko ar-

duradunen esanetan, "edukierek ezartzen duten mugak aintzat hartuta".

Hala, perkusio emanaldiak irekiko du egitaraua Monterron jauregian gaur zortzi, arratsaldeko sei etan. Asteburuko etenaren ondoren, astelehenetik ostegunera, biolin, gitarra, piano eta tronpetak emanaldez gozatu ahalko dute herritarrek arratsaldero. Ekainean zehar balletak, saio libre batek eta kurtso bukaerako kontzertuak ere izango dute tokia Udaberri ziklo musikalean.

bertako
Ilgogituzk | zuzendariak

Euskal Herria hobetzeko prest?

OROTARIKO ZERBITZUA · 100 €-tik / hileko
Arrunta 70€-tik / hileko

📍 Garaia Berrikuntza Gunea · 20.500 Arrasate 📞 943 903 450
✉ info@bertako.eus 🌐 www.bertako.eus

Balkoien garrantzia, baita dotoretasunean ere

'Aramai loratzen' ekimena jarri du abian Udalak: balkoiak, leihoak eta etxe-atariak apaintzeko lehiaketa egingo dute, lehenengo aldiz. Parte hartzeko izena eman beharko da udaletxean, eta irabazleek 200 euroko saria eskuratuko dute

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Aramaioko Udalak *Aramai loratzen* ekimena jarri du martxan. Udalerriko balkoiak, leihoak eta atariak lorez apaindu eta dotore jartzeko; eta aha- legin hori saritzeko lehiaketa egingo dute. Lehen aldiz egingo dute horrelako lehiaketa bat.

Balkoiak, arnagune

Azken urtean balkoiek indarra hartu dute egunerokoan. Etxean nahi baino denbora gehiago pasa beharrak eragin du balkoia izatea etxeko arnagunea. Izan ere, balkoiek garrantzia hartu dute; batez ere, erdigunean bizi direnendako. "Balkoiek garrantzia hartu dute gaur egungo egoeran. Ekimen honekin, balkoien garrantzi hori nabarmendu egin nahi izan dugu, eta proposatu dugu sariketa bat egitea", azaldu du Udaleko Kultura teknikari Itsaso Azpiazuak.

Lehiaketan parte hartzeko udaletxean izena ematea ezinbestekoa izango da. Balkoiek, leihoak eta atariak ekainaren 1etik 23ra bitartean, gutxienez, apainduta egon beharko dute; gainera, parte-hartzaile bakoitzari txartel bat emango diote zerbait batekin, eta txartel hori ikusgai izan beharko du lehiaketak irauten duen bitartean.



Geranioak, Pedro Ignazio Barrutia kalean. A.E.

ERABILITAKO MATERIALA BIRZIKLATUA IZATEA BALORATUKO DU EPAIMAHAIK

Kontuan hartuko dituztenak

Epaimahaiak irizpide hauek hartuko ditu kontuan: originaltasuna, apainketaren kalitatea, erabili diren loreen iraunkortasuna, harmonia eta diseinua, eta erabilitako materiala; ma-

terial birziklatua erabiltzea baloratu egingo dute.

Antolatzaileek badakite ez dela gauza bera balkoia, leihoa edo ataria apaintzea: horregatik, bi kategoria bereiziko dituzte.

Sariak, kategoriatan banatuta

Leihoen eta balkoien kategorian sari bakarria egongo da, 200 eurokoa; eta atarien kategorian ere sari bakarria, 200 eurokoa; gainera, parte-hartzaile guztien artean 50 euro zozketatuko dira. Herriaren itxurari egindako onura da lehiaketaren xedea.

Binakako txapela Aramaiora ekartzeko lan egingo dute

Arabako Binakako Bertsolari Txapelketako finala jokatu dute bihar, Legutioko kiroldegian, 17:30ean

A.E. ARAMAIO

Manex Agirre eta Martin Abarrategi Legution izango dira bihar, Arabako binakako txapelketako finalean. Saioa 17:30ean hasiko da, Legutioko kiroldegian. Sarrerak *bertsosarrerak.eus* atarian eros daitezke.

Aramaioko bikoteaz gain, finalean arituko dira Iñaki Viñaspere eta Unai Anda bikotea eta Manuel Bendala eta Oihane Perea bikotea.



Abarrategi bertsotan; atzean, Agirre. ABE

Bertsotan sendo

Abarrategik dio "gogotsu" dau dela finala jokatzeko. Bikote moduan euren indargunea herrikide izatea dela dio: "Aurrez ezagutzea eta daukagun konfiantza". Agirre finalera saio txukuna egiteko gogoz doa: "Txapelketa honek zerbait ona izan badu, niretzat, bikotekidea izan da. Martin bertsotan sen-

do dabil, zuzen, umore puntu bizi batekin ere bai. Horrek bultzatzen du, eta gauzak hobetzeko gogoia ematen du". Abarrategik nabarmendu du ez dela kasualitatea finaleko saioan oiholtza gainean Arabako hiru txapelkun egotea.

Euskarazko film laburren emanaldiaz gozatzeko aukera

Txirritola Euskara Elkarteak antolatuta, euskarazko film laburrez gozatzeko aukera egongo da. Topaguneak antolatzen duen euskarazko film laburren zirkuitua eroango dute kultura etxera, sortzaileen lanak ezagutarazi eta euskaraz ekoizten jarraitzeko aukera eskaintzeko helburuarekin. Domekan 18:30ean hasiko da emanaldia:

gutzira, zortzi film labor eskainiko dituzte. Emanaldien ondoren, *Ilunabarrean esan* filmeko zuzendariarekin eta lantaldearekin solasaldia egingo dute; bertan egongo da Sara Alonso aramaiarra ere.

Horrez gain, maiatzaren 26an, eguaztena, Katixa Agirre idazlearen *Ame ez dute* liburuaren gaineko hizketaldia egingo dute parkean, 18:00etan. Eguraldiak laguntzen ez badu, berriz, barrura sartu eta kultura etxean izango da saioa.

Jakoba Errekondoren aholkuak

Jakoba Errekondok hitzaldia egingo du datorren martitzenean, maiatzaren 25ean. *Aramai loratzen* ekimenaren barruan izango da, kultura etxean, 18:00etan.

Loreen zaintza

Loreen zaintzaren, estetikaren, eta abarren gaineko aholkuak emango ditu, eta galderak eta zalantzak argitu.



Errekondo, Eskoriatzan. GOIENA

Herriartekoan, Aramaiok Amurrio hartuko du bihar

Arabako Herriarteko Txapelketa jokatzeko dabilta Aramaioko pilotariak. Lehen jardunaldian, 2-1 irabazi zuten Argantzonen aurka; eta bigarren honetan, Amurrio izango dute aurrez aurre. Partiduak Aramaion izango dira, 17:00etan. Hirugarren jardunaldia ekainaren 5-6ko aste bukaeran izango da eta finala, ekainaren 20an.

Ertzaintzak familia batekin "izan duen jarrera" salatuko dute

Gaur, protesta kalejira egingo dute, herritar talde batek deituta, 20:00etan. Salatu nahi dute herriko familia batek Ertzaintzaren aldetik jasan duen tratua: "Konfinatuta egon behar izan duten bitartean, egunero joan zaizkie etxera, gaizkileak balira bezala". Leihotetan zapi gorriak jartzeko dei egin dute; kalejira kultura etxetik abiatuko da.

Adinekoentzako gizarte zentroa, are eta gertuago

Basotxo erretiratuen egoitza, eguneko arreta zerbitzua eta erabilera askotariko aretoa egokituko dituzte Santa Rita komentua izandako eraikinean; lanak aurtengo hirugarren hiruhilekoan aterako dituzte lizitaziora eta 1,8 milioi eurotik gorako kostua dute

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Agustindar mojen komentua izandako eraikina adinekoentzako gizarte zentro bihurtzeko lanak aurtengo hiruhilekoan lizitaziora ateratzea da asmoa, eta datorren urtean hasita lanak, 2023an gertu izateko.

Sarrera nagusia, lorategitik

Lehen faseko lanetan, beheko solairuari helduko diote; 900 metro koadro ditu horrek, eta bertan izango dute kokalekua Basotxo erretiratuen egoitzak –taberna, jantokia eta bulegoa– eta eguneko arreta zerbitzua –jardueretarako aretoa eta asistentzia gelak–. Sarrera nagusia lorategitik egongo da eta tabernak sarbide independentea ere izango du ibai ondoko pasealekura ematen duen fatxadatik. Horiez gain, erabilera askotariko gela egokituko dute kapera izandako lekuan.

Fase horretako lanek 1.873.000 euroko kostua izango dute. "Oinarrizko proiektua onartuta dago, eta orain, exekuzio proiektuaren zain gaude", adierazi zuen Unai Elkoro alkateak komentuan bertan egindako aurkezpenean.

Beste fase baterako, datarik zehaztu barik, utzi dute lehenengo solairuaren egokitzapena. Hala ere, gertu utziko da bien arteko komunikazio-gunea. Lehenengo solairu horretan egokituko dituzte adinekoentzako tutoretzapeko apartamentuak, eta eskaileretatik eta igogailutik sartu ahal izango da hara.

Energia aurrezteko helburu

Adierazi zuten energia aurrezteko eta efizientzia direla instalazioak hornitzailekoan kontuan hartu dituzten bi aldagai. Hain zuzen, horregatik, eguneko arretaren gunean tenperatura baxuko berokuntza sistema jarriko dute –zoru erradiatzaile– eta aeroterminen makinaren bidez hor-

nituko da. Argiztapenerako, ostera, LED teknologia erabiliko dute, eta eraikinaren isolamendu termikoa eta akustikoa hobetu egingo dituzte.

Lehen fasean, kanpoaldea urbanizatu egingo dute; lorategian tabernaren terraza egokituko dute, Errekabarren kaletik irisgarria izango den ibilbide batekin. Eta han dagoen iturriari beste kokapen bat emango diote. Bestetik, komentuko sarrera nagusiaren parean arrapala eta eskailerak egokituko dituzte.

Proiektu estrategikoa

Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Karmele Uribarri oso pozik ager-

tu zen proiektuarekin: "Gureta-ko estrategikoa da zentro hau, zentzu askotan. Osasun krisi honetan, bereziki adinekoek sufritu dute bakardadea eta isolamendua, eta zentro hau sozializazioa eta bizitza aktiboa pizteko izango da. Kokapena bera ere oso aproposa da; herriaren erdigunean egonda, integrazioa sustatuko du, eta belaunaldi askotariko herritarren topalekua izango da".

Basotxokoak, "gustura"

Basotxo erretiratuen elkarteko kideek gertutik egin diote jarraipena proiektuari, eta ekarpenak egin dizkiotela adierazi zuten



Gizarte zentroaren sarera nagusiak eta terrazak izango duten itxura. UDALA

Lehen fasean, beheko solairua

Beheko solairuak 900 metro koadro ditu eta David Sanchez Bellido eta Iturbe Eraikuntza Tekniko Taldea UTEa arduratuko dira horren diseinuarekin. Eraikinaren ipar-mendebaldean autonomoentzako eta mendekotasun baxuko adinekoentzako eguneko zerbitzua egongo da. 166 metro koadroko espazioa izango dute jardueretarako, baita komun egokituak eta bestelako asistentzia gelak ere; orain Arkupen ematen dituzten estimulazio kognitiboko tailerrak emango dira han.

Eraikinaren hegoaldeko hegalean, ostera, Basotxo erretiratuen egoitza egongo da: taberna, 90 metro karratuko jangelarekin; komunak; ataria; galeria eta bulegoa. Ipar-ekialdeko hegalean, ostera, eguneko arreta zerbitzuaren bulego osagarri bat egongo da, eta kaperako erabilera askotariko gela. Erdisotoan tabernako sukalea egongo da, baita gela osagarriak eta instalazioak ere.



Elkoro eta Uribarri udal ordezkariak, Basotxoko Elorzarekin eta Alberdirekin. M.A.

Aitor Alberdi presidentea eta Miguel Elorza zuzendaritzako kideak: "Ahalegindu gara geure beharretara egoki ditzaten bai taberna bai gure lokalak. Eta eskatutakoa lortu dugula esan genezake; hortaz, pozik gaude".

Basotxoren egoitza dagoen egungo eraikinean osasun etxe berria egingo du Osakidetzak: "Lehenbailehen esleitu gura dituzte lanak, eta irailetik aurre-

ra hasi. Horregatik, laster irten beharko dute handik, eta, bien bitarterako, urte eta erdi ingururako, beste kokaleku baten bila gabiltza", azaldu zuen alkateak, baina ez zuen zehaztasun gehiagorik eman.

Erretiratuek gelditu egon behar izan dute azken urtean pandemiaren ondorioz, baina ekainaren 7an elkartu eta martxan hasteko asmoa agertu zuten.

2021-2022 IKASTURTEA
LEIZARRA MUSIKA ESKOLAKO

MATRIKULA EPEA ZABALIK

Maiatzaren 17tik Ekainaren 18ra

5 URTEATIK AURRERA

ESKANEATU QR KODEA

HEMEN

UDALA Ume



Sareren sustatazailea den Ekain Martínez de Lizarduy irrintzia botatzen. EKAIN MARTINEZ DE LIZARDUY

Irrintzilarien Sarera 200 lagun inguru batu dira

Orain dela hiru urte 'Erraiak' dokumentala grabatzerakoan irrintzilariak esandakoak aintzat hartu, eta elkargune bat sortzea erabaki du Ekain Martínez de Lizarduy zuzendariak; ekimenak harrera beroa izan du eta zerrenda gero eta luzeagoa da

Mirari Altube ARETXABALETA

Irrintziaren bueltako *Erraiak* ikus-entzunezkoaren zuzendari Ekain Martínez de Lizarduyk Irrintzilarien Sarea osatzeko egitasmoa jarri du abian. Oraingoz, zerrenda bat egin gura du, eta gero, elkargune bat osatu izena emandakoekin.

Zerrenda osatzen

"*Erraiak* grabatzerakoan irrintzilari askorekin izan nuen hartu-eman eta hainbatek zera esan zidaten: 'Irrintzilariok ez dugu elkargunerik; bertsolariak eta trikitilariak saretuta daude, baina guk ez dakigu alboko herrian irrintzilariak baden ere...'. Eta horri bueltaka nenbilen aspalditxoan", azaldu du Martínez de Lizarduyk.

Sare sozialen bitartez zabaldu duen galdetegia erantzuten dutenekin zerrenda bat osatu gura du. Gaineratu du izena emateko ez dagoela profesional izan beharrik irrintzia botatzen: "Edonork du lekua: irrintzilari

iaioek, hasiberriek edo, nik bezalakoek, autoan bakarrik goazenean saiakeraren bat edo beste egiten dugunok".

Ekimenak harrera beroa izan du, etak egun gutxian, eguaztenterakok hain zuzen, 200 lagunek emana zuten izena: "Horrek agerian utzi du gogo bat bazegoela. Eta argi geratu da Euskal Herriko txoko guztietan daudela irrintzilariak; Bruseletatik ere erantzun du batek".

Pandemia egoerak uzten duenean izena emandako guztiak elkartzeko asmoa agertu du: "Guztiok batzea eta elkar ezagutzea izango litzateke helburua, bizipenak konpartitzea eta, zergatik ez, proiektu berriak sortzea".

**ASMOA DA
IRRINTZILARIEN
ZERRENDA BAT
OSATZEA, ETA GERO,
ELKAR EZAGUTZEA**

'Erraiak' filmak 22 sari

Bi urte pasatxoan ibilbide oparoa izan du *Erraiak* dokumentalak: 50 bat zinema jaialditan aukeratua izan da eta dagoeneko 22 sari jaso ditu. Arrakasta horren gakoa non egon daitekeen esan du: "Irrintzia bada hemengo, baina uste duguna baino unibertsalagoa da, era berean; munduaren beste puntan ere uler dezaketen zerbait komunikatzen du. Izan ere, irrintzi ezberdin asko daude munduan barrena. Nire ondorioa da gure doinu hori ez ezagutu arren ulertu egiten duela jendeak". Sariak Europako, Asiako zein Amerikako herrialdeetatik etorri izanak hori erakusten du, hain zuzen ere.

Dokumentala hango eta hemengo zinemetan aurkeztu jarraitzen du Aretxabaletan bizi den zuzendariak, eta zapatu honetan Mañarian emango du. Horrez gain, *Filmin*-en ere badago, eta hor ere arrakasta handia izan duela esan du.

Estitxu Pinatxo nafarraren kontzertua domekan Arkupen

'Haize gorri batek' diskoko kantak eskainiko ditu; martitzenean, ostera, ipuin kontaketa izango dute umeek

M.A. ARETXABALETA

Estitxu Pinatxo abeslari eta musikariak (Bera, 1987) *Haize gorri batek* diskoko kantuak aurkeztuko ditu maiatzaren 23an, Arkupen (19:00).

Hainbat musikarirekin lan egindakoa da Pinatxo; besteak beste, Erramun Martikorenarekin, Alex Sarduirekin eta Mikel Urdangarinekin. Eta Dama Beltzak proiektuan ere badabil, Mikel Santxezen konpainian. 2019an bakarkako lehen lana argitaratzea erabaki zuen. Euskaraz idatzitako kantuak ukitu

beltza duten musikarekin jantzi ditu, eta ahots indartsuarekin borobildu.

Gaur, egubakoitza, ostera, *Granito Buffet: Vagabundos pirrenicos* dokumentala izango da (19:00), Zاراia aretoan.

Ipuin kontaketa martitzenean

Bego Alabazan ipuin kontalariak *Sagu txiki, sagu maite* ipuin-kontaketa saioa eskainiko die 2 eta 5 urte arteko neska-mutikoei martitzenean, hilaren 25ean (18:00). Izena aurrez eman behar da, liburutegian.

Marokoko ipuinak ezagutzeko aukera dago martitzenean

Kultura askotariko ipuinei lekua egiten jarraituko dute udaletxe zaharrean Auzoko egitasmoko kideek, eta martitzenean, hilaren 25ean, beste saio bat izango da (17:00). Marokoko jatorria duen Imane Chaich aretxabaletarrek hango ipuinak kontatuko ditu.

Maiatzaren 30ean, ostera, *Lazunak azkazaletan* poesia liburua aurkeztuko du (17:00) Oihana Arana Cardenal eskoriatzarrek, Leire Vargas bertsolariarekin.

Segurtasun neurriak errespetatze aldera, kopurua mugatua izango da; hortaz, aurretik eman behar da izena: 685 75 67 29, euskara@loramendielkartea.eus edo Loramendiren webgunea.

Euspot lehiaketaren sariak maiatzaren 27an banatuko dituzte

Euskarazko spoten hamargarren lehiaketak harrera beroa izan du eta 87 lan aurkeztu dira, guztira; iaz baino 36 gehiago. Euskal Herriko toki askotatik bidalitako lanak jaso dituzte; 52 izan dira 18 urtetik gorakoek egindakoak eta 35 spot, 18 urtetik beherakoek.

Maiatzaren 27an egingo dute sari banaketa ekitaldia, Arkupe kultura etxean (19:00). Sei sari banatuko dituzte: spotik onena, 1.000 euro; publikoaren saria, 500 euro; musika sinkronizazioa, 300 euro; gazteen saria, 250 euro; MUko ikasleen spot onena, 500 euro; eta Arizmendiko ikasleen iragarki onena, 250 euro.

'11 gara' sinadura bilketa bihar, Gure Eskuk deituta

Burujabetza lortzeko eta erreferendum lotesle baten eskumena aldarrikatzeko, 2019ko udazkenean abiarazitako sinadura bilketa masiboari jarraipena emango dio Gure Eskuk. Bihar, zapatua, bi mahai jarriko dituzte horretarako (12:30): Herriko Plazan eta Mitarte kalean. Herriarrak "altxatza eta sinatza" gonbidatu dituzte.



Oztopoak gainditzeko gertu daude pilotuak

Entrenamendu saioetara bueltatzeaz batera, Oztopo trialsin taldeko bost pilotu Espainiako Kopan arituko dira, Lizarran, domeka honetan. Horrekin batera, trialsin-gunerako aldaketak ari dira pentsatzen, parkea birmoldatzeko asmoz

Imanol Beloki ARETXABALETAKO

Oztopo trialsin taldeko pilotuak bueltatu dira Aretxabaletako trialsin-guneko entrenamendu saioetara. Gaur-gaurkoz, hogeitau pilotu inguru ari dira taldean, eta oztopoak gainditzeko gogoz daude guztiak. Horrekin batera, txapelketarik gabeko denboraldia izan arren, hitzordua dute Oztopoko hainbat pilotuk domeka honetan. Hain zuzen ere, Espainiako Kopako lehiaketara joango dira, Lizarrara, parte hartzera Alvaro Jimenez, Gorka Merino, Beñat Urbina, Julen Arenaza eta Aimar Irizar pilotuak.



Oztopoko zenbait pilotu Aretxabaletako trialsin-gunean entrenatzen. OZTOPO TRIALSIN

Entrenatzen hasi berri

"Duela hilabete batzuk aritu ginen entrenatzen, baina gero, gelditu beharra izan genuen, itxiera perimetralagatik. Neurriak arindu ostean, joan den astean hasiko ginen, gutxi gorabehera, entrenamendu saioekin. Txapelketei dagokienez, berriz, urte zaila izan da, Euskal Herrian ez da ezer egon, eskola-kiroleko lehiaketak bezala... Hala ere, Oztopo trialsin taldeko bost pilotu Espainiako Txapelketan izango dira domekan, Lizarran, eta gogoz daude", adierazi du Aitor Muruak, Oztopo trialsin taldeko entrenatzaileak.

Oztopo berriak jartzeko asmoz

Uda osterako Aretxabaletako trialera antolatzeke asmoa ere agertu dute. Horretarako, baina, oztopo berriak jarri gura dituzte trialsin-gunean. "Irail alderako trial erakustaldia antolatu nahiko genuke; egoera normalizatzen bada, behintzat. Horretarako, pilatuta ditugun harriak mugitu, eta parkea birmoldatu nahiko genuke".

Argiteriaren aurretik, lanak

Horrekin batera, Aretxabaletako Udalarekin hitzartu moduan,

argiztapena ere jarriko dute eremuan. Hala ere, ezertan hasi aurretik zenbait lan egin behar direla adierazi du Aitor Muruak: "Kontainerrek lekualdatu behar dira, lehenengo, argiteria jartzeko. Bainuetxe arduratuko da horiek kentzeaz eta beste eremu batera mugitzeaz, eta ondoren etorriko da argiak jartzeko. Udalak esan digunez, eguzki-plakekin funtzionatuko duten fokuak izango dira, baina, batez ere, neguan izaten dugu arazoa, goiz iluntzen duelako, eta ezin garelako entrenatu".

"Bi urte hauetan eman didaten babesarengatik eskertuta nago"

MIKEL LARBURU UDA-KO ENTRENATZAILEA

Bi denboraldiren ostean, agur esango dio taldeari

I.B. ESKORIATZA

Ohorezko Erregional Mailako denboraldia amaitzeaz da, eta UDAko entrenatzaile Mikel Larburu zumaiarrak balorazio gazi-gozoa egin du. Zenbait partidu geratzen dira oraindik, ezer ez dago jokoan, baina aurrera begira erabakia hartuta du: bi urtez Aretxabaletako taldeko entrenatzaile aritu ostean, geratzen diren jardunaldiak jokatu, eta agur esango dio UDAREN gidaritzari.

Denboraldi berezia izan da aurten-go. Zer izan da zailena?

Arraroa izan da denboraldia. Ondo hasi ginen. Dena geratu zen, berriro arrankatu genuen, COVID-19 kasuak agertu ziren, partiduak bertan behera geratu ziren... Atipikoa izan da, eta espero dut urte askoan horrelakorik ez gertatzea berriz. Egoera honen aurrean ez da erraza izan gauzak planifikatzea, jokalarien motibazioari eustea... Eta horrek asko eragin du.

Orain, kontsolazio-partiduak izanda, disfrutatzea helburu?

Lortu genuen *play-off*-era sartzea, eta, alde horretatik gustura geratu arren, ez geunden momentu onenean. Hala ere, gol bategatik kanpoan geratu ginen, ia sorpresa emanda, Beti Gazte kanpoan utziz, baina ezin izan zen hala izan. Asteburu honetan, berriz, atsedendaldia dugu, eta gero, Bergararen aurkako lehiak. Lehenengo partidua etxean izango da; derbia, beraz. Partidu polita aurreikusten dut.



Mikel Larburu. JESUS MARI ERAUSKIN

Datorren denboraldiari begira zein asmo duzu?

Zuzendaritzarekin hitz egiten ari naiz, baina ez dut jarraituko. Bi urte egin ditut Aretxabaletan, eta azken denboraldi hau gogorra izan da; lanarekin uztartzea kostatu egiten zait. Beraz, esan dezakegu erabakia ia hartuta dagoela. Espero dut etxeko profileko norbait hartuko dutela, eta, hala baldin balitz, poztu egingo nintzateke. Entrenatzaile gisa jarraituz gero, Aretxabaletan jarraituko nuke; beraz, atsedendaldia tokatzen zait.

Klubarentzat mezurik?

Eskerrak ematea UDAko jende guztiari ni bezalako zumaiar bati taldearen ardura eta aukera emateagatik. Niregan konfiantza izateagatik eta eman didaten babes guztiarengatik oso eskertuta nago. Espero dut *gero arte* bat izatea.



ANDRA MARI
ASESORIA / AHOLKULARITZA

*Etorri eta
lagunduko
dizugu*

2020ko errenta kanpaina

Aholku pertsonalizatua

Araba ibilbidea 20A • ARETXABALETAKO • Tel. / Fax.: 943 79 29 26 • naiara@asesoriaandramari.com



Zuzenak taldeko Martin Perez jokalaria eskoriatzarra Bilbo BSR taldeko jokalaria batekin lehia. ZUZENAK

Kontrario makalaren aurrean ezin hutsik egin

Ohorezko Mailako Gasteizko Zuzenak taldea kategoriari eusteko pauso batera dago. Bi jardunaldi falta dira, eta bihar Madrilen jokatuko dute, Getafe taldearen aurka; irabazi beharra dute. Hala, Martin Perez jokalaria eskoriatzarra baikor dago

Imanol Beloki ESKORIATZA

Ohorezko Mailako Zuzenak aulki gorpilduneko saskibaloitaldeak lau denboraldi daramatza kategorian berean, eta bi jardunaldi geratzen dira bertan jarraituko duen erabakitzeke edo promozio partidua jokatu eta kategoriaz jaisteko arriskuaren aurrean jartzeko. Horretarako, zapatuan Getaferen aurka irabazi beharra dute, nahitaez.

Ezinbesteko garaipena

Joan den astean Las Rozas taldearen aurka funtsezko garaipena lortu zuten Zuzenak taldekoek. Horri esker, denboraldi honetarako ezarri zuten helburua, maila mantentzea, ia bete dute. Hala ere, asteburu honetan jokatuko dituzten denboraldiko azken bi jardunaldietan eginda-koek erabakiko dute euren etorkizuna. Martin Perez Zuzenak taldeko kapitain eta jokalaria eskoriatzarra baikor dago, eta denboraldi honi begirako helburua beteko dutela dio: "Iraba-

zi beharreko partidua joan den astekoa izan zen, eta lortu genuen. Hala ere, zapatuan Getaferen aurka jokatuko dugu, Madrilen, 17:30ean, eta irabazi beharra dugu. Aurkariaren emaitzak ikusita, eginda dagoela eman dezake, baina ezin gera erlaxatu. Denboraldi honetan jokatu-tako 21 jardunaldietatik guztiak galdu ditu Getafek, eta, seguruenik, irabazi egingo dugu. Horren ostean, domekan, Ilunionen aurka arituko gara, 19:00etan; COVID-19agatik atzeratutako partidua da. Kasu horretan, aurkari horiek ez dute denboraldi oso ona egin, baina talde sendoa da, eta irabazteko aukera gutxi ditugu. Gauzak oker irtenez gero, kategoriaz

GETAFEREN AURKA IRABAZI BEHARRA DU ZUZENAK TALDEAK, MAILARI EUTSI NAHI BADIO

jaitsiko ginateke, lehenengo mailara, baina horretarako, Getaferen aurkakoa eta promozio partidua ere galdu beharko genuke", adierazi du Perezek.

Maskarekin jokatzaren alde

Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Espainiako Kirol Federazioak ez du derrigortzen maskarekin lehiatzea, baina Zuzenak taldeak hala jokatzearabaki zuela adierazi du Perezek: "Gure taldean denok jokatzeko dugu maskarekin, eta, gurekin batera, Getafek eta beste talderen batek. Gero, gaintzeko taldeetako jokalaria batzuek euren erabakiz erabiltzen dute...".

Erronka berriak zehazteko gertu

Denboraldia asteburuan amaitutzat eman ostean, entrenamenduekin jarraituko dutelakoan dago Perez, eta datorren ikasturtera begirako helburuak zehazten hasiko direla gaineratu du eskoriatzarrak.



ITZALAK ARGAZKIAK

Podiumetik jaisteko asmo barik

Denboraldi paregabea ari da egiten Iker Eskibel eskoriatzarra. Joan den domekan, Copa Caja Rural BTT txapelketako laugarren lasterketa izan zen, Aiegin, eta han ere sekulako lasterketa egin zuen. Helmugara bigarren postuan iritsi zen arren, sailkapen nagusian liderra da Orekako txirrindularia. Hurrengo proba Zangozan izango du, ekainaren 20an.

OHARRAK

Mapa erliebedunak

Eskoriatzako Udalak Aizkorri-Aratz parke naturaleko mapa erliebedunak jaso ditu dohaintzan. Mapa horietako bat eduki nahi dutenak udaletxetik pasa daitezke hartzera.

Eskoriatzak, kultura agenda berritua

Kultura agendaren irudia berritu egin dute; ohiko webgunean jarraitzeaz gain, sare sozialetan ere izango da ekintzen berri jasotzeko aukera: Twitterren, Facebooken eta Instagramen.

Zinegoak jaialdiko film labor sorta

LGTB Fobiaren Kontrako Egunaren baitan, Zinegoak jaialdiko sei film labor proiektatuko dira gaur, 18:30ean, Zaldibarren.



PAZKOAK 2021 EZ-JAIAK BERGARA

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoiak
Horma-Armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

Gora Bergara!

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com



Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Aurten ere ez da Pentekoste jairik izango Bergaran, baina kultura eskaintza berezia prestatu du Xaxau konpartsak, Koplak Barik bertso eskolarekin eta Udalarekin elkarlanean. Hala, gertu dute adin guztietako publikoari zuzendutako bost ekitaldiz osaturiko *Are you ready?* egitaraua. Gaur emango diote hasiera, Antton Telleriaren *Nekatutak* bakarriketa saioarekin, eta astelehenera arte izango da zer ikusi. Ekitaldiak Usondo parkean edo Seminarixoan izango dira, eta, sarrera guztiak doan izango badira ere, edukiera mugak direla eta ezinbestekoa izango da aurrez erreserba egitea. "Aurten ere, zoritxarrez, ez da jairik egongo", azaldu du Kultura zinegotzi Ekaitz Aranberriek. "Baina ikusi dugu egin daitez-

Pentekoste jairik ez, baina bai egun horietarako kultura 'mokadutxoa'

Bigarren urtez ez da jai egitaraurik izango Bergaran. Xaxau konpartsak, ordea, osasun egoerara egokitutako bost kultura ekitaldi iragarri ditu

keela gauzak, eta kultura segurua dela, betiere osasun neurri guztiak mantentzen baditugu. Xaxau konpartsako kideek lan handia egin dute beraien kultura eskaintza bizi dugun osasun egoerara egokitzeko".

Seminarixoa.eus plataforman eta leihatilan daude eskuragarri sarrerak. Ez utzi azken unerako; izan ere, hainbat ikuskizunetarako sarrerak berehala agortu dira. 7 urtetik gorako neska-mutikoendako hondarrezko

eskulturen tailerrerako erreserbak, berriz, Xaxauren eta Udalaren sare sozialen bitartez egin behar dira. Hain zuzen ere, bertan dagoen formularioa beteta. Ordu eta erdiko lau txanda izango dira.

Film laburren lehiaketa

Xaxau konpartsako kideek garrantzi berezia eman nahi izan diote aurten film laburren lehiaketari. "Egoera aurten ere pixka bat aldrebesa denez, erabaki dugu lehiaketa indartzea, eta gala formatuan aurkeztuko dugu. Sorpresa txikiz betetako ekintza xumea izango da, eta harrera ona izatea espero dugu", azaldu du Xaxauko kide Irati Alberdik. "Seminarixoan izango da gala, baina Youtuben online jarraitzeko aukera ere egongo da". Sari berriak egongo direla azaldu dute antolatzailleek, eta galan lan guztiak ikusteko aukera egongo dela baieztatu dute. Horrekin batera, publikoak botoa emateko aukera izango du; bai gala bertatik bertara jarraituko dutenek, bai etxetik ikusiko du-

'Nekatutak' bakarriketa

HILAK 21, BARIKUA 10:00

Mikro aurrean egotera ohituta dago Antton Telleria, baina berriki estreinatuta da umorezko bakarriketen munduan. Itxialdian idatzi zuen *Nekatutak*, eta martxoan hasi zituen herriz herriko aurkezpenak. Umorea ardatz hartuta, gertutik bizi dituen gai delikatuak lantzen dituela aurreratu du: "Psikologia, futbola, Ertzaintza... Eta, nola ez, irakasleak". Seminarixoan da hitzordua, baina sarrera guztiak agortuta daude.

Bertsolaritza saioa

HILAK 22, ZAPATUA 12:00

Koplak Barik bertso eskolarekin elkarlanean antolatutako bertso saioa da. Usondo parkean egingo dute, eta lau bertsolari izango dira bertan. Txinbok egingo ditu gai jartzaile lanak eta kantuan, berriz, Nerea Elustondok, Beñat Gaztelumendik, eta Maddi Ane Txoperenak eta Sustrai Colinak. Eguraldi ona bada, saioa Usondo parkean izango da; bestela, Seminarixoan. Kasu bietarako hartu behar da sarrera aurrez.

Sua taldearen kontzertua

HILAK 22, ZAPATUA 19:00

Pop rock estiloa jorratzen du Maruri-Jatabeko musika taldeak. Laukotea da. 2018an hasi ziren musika sortzen. Laster lortu zuten ezagun egitea; izan ere, 2019an, Gaztea Maketa Lehiaketa saria irabazi zuten. Hala, 2020an ikusi zuen argia *Ordu beltzak* izeneko lehenengo diskoak. Ez da lortu duten sari bakarra. Urte bereko azaroaren 26an, Gaztea Saria irabazi zuten. Seminarixoan izango dira zuzenekoak egiten.

Xaxau sarien banaketa

HILAK 23, DOMEKA 19:00

Film laburren lehiaketa da Xaxau konpartsaren ekitaldi kuttuna aurten. Bederatzigarren edizioa izango da, eta iaz parte hartze handia izan zuen. Sari banaketari dagokionez, gala formatua emango diote. Apustu berria da, eta harrera ona izatea espero dute. Online jarraitzeko aukera ere izango da. Lehiaketara film laburra aurkeztu dutenek sarrerak jasoko dituzte. Gainerakoak eskuragarri jarri dituzte.

Hondar eskulturak

HILAK 24, ASTELEHENA

7 urtetik gorako neska-mutikoendako hondar eskultura tailerra egingo dute Usondo parkean. Ordu eta erdiko lau txanda izango dira, gehienez ere 25 pertsonakoak, goizean 10:30ean eta arratsaldean 15:30ean hasita, hain zuzen ere. Sarrerak erreserbatu behar dira, Xaxau konpartsaren zein Udalaren sare sozialetan dagoen formularioa beteta. Eurria bada, Boluko frontoian egingo dute tailerra.




- AHOLKULARITZA FISKALA
- AHOLKULARITZA LABORALA
- KONTABILITATEAK
- ERRENTA AITORPENAK

- USUFUKTU DOHAINTZAK
- HAINBAT ZERBITZU
- GESTORETZA

Gu ere bergararrekin!

Ibargarai 18, behea - BERGARA • Tel.: 943 76 12 28
Faxa: 943 76 38 36 • lauki@asesorialauki.com



Antton Telleria. BIDEAN PRODUKZIOAK



Sua taldeko laukotea. DENAFLAWS



Beñat Gaztelumendi bertsolaria HITZA



L.Z.L.

"Aurreko urteko egitarautik tiraka egin dugu aurrera aurten"

ANDREA GONZALEZ XAXAU KONPARTSAKO KIDEA

tenek. Amaitu da lanak aurkezteko epea, eta epaimahai ofizialak aste honetan eman du epaia.

Lan-baldintza zailak

Gutziz ezohikoa den egoeran prestatu dute aurten egitaraua Xaxau konpartsako kideek. "Normalean, irailean hasten gara elkartzeko eta egitaraua osatzeko ekintza posibleak baloratzen. Kontuan hartu normalean sei-zortzi kontzertu antolatzen dituela Xaxau konpartsak. Egoera honetan, zalantza handiak izan ditugu", azaldu du konpartsako kide Andrea Gonzalezek. Azaldu du gaur egun hamazazpi bat lagunek osatzen dutela taldea, nahiz eta une honetan hamar edo hamahiru bat egon aktibo. "Gure helburua zen nola edo hala ekintzaren bat egotea. Elkartzea ez da erraza izan, edozein ekitaldi dela hainbat baldintza bete behar izan dituzte, zenbat

"XAXAUKO KIDEEK LAN HANDIA EGIN DUTE EGITARAUA EGOERARA EGOKITZEKO"

EKAITZ ARANBERRI, ZINEGOTZIA

Goienak, telebistak, saio berezia

Maidar Arregik aurkeztuta Bergarako hainbat sortzaile izango dira protagonista saioan. Seminarioxan grabatuko dute astelehenean, eta bina esku-hartze egingo dituzte Camden Town dantza akademiako kideek, Iker Hiriartek, Oihan Vegak, eta Onthe Go zein The Moodring taldeek.

Horrekin batera, *Zirikatzen* tarte berezia prestatuko du Aitor Agirianok, eta Jone Olabarriak gonbidatuta errezeta goxoa prestatuko du Tartufo jatetxeko Jon Ander Eizagirrek aurretik Cruz Hermanos frutadendan egindako erosketekin. Saioa martitzenean emitituko da 18:00etan, 20:00etan eta 22:00etan.

diru jasoko genuen ere ez genuen argi, eta onarpenak eta beste oso geldo joan dira. Baina, azkenean, atera dugu egitarau bat aurrera, eta nahiko txukuna dela esango nuke".

Arduraz jokatzeko eskaera

Egunotarako antolatutako ekintzetan parte hartzera gonbidatu dituzte herritarrak Xaxau konpartsako kideek. "Aurreko urtekoekin alderatuta egitarau xumea da honako hau, baina bi helburu nagusirekin antolatu dugu: alde batetik, Xaxau konpartsak martxan jarraitzen duela erakutsi nahi dugu; izan ere, Bergarako jaiak izan ohi dira guretzat urteko ekitaldi nagusia. Beste alde batetik, garrantzitsu deritzogu egoera honetan kulturari bultzada bat emateari", azaldu du Irati Alberdik. Hala, jendeari arduraz jokatzeko eskatzen diote konpartsako kideek.

"HAINBAT IKUSKIZUNETARAKO SARRERAK AGORTUTA DAUDE DAGOENEO"

ANDREA GONZALEZ, XAXAU KONPARTSA

lazko esperientziatik ikasita aritu dira aurten lanean Xaxau konpartsako kideak.

Noiz hasi zineten egitaraua prestatzen?

Nahiko berandu, egia esan. laz gertatutakoa gogorra izan zen. Konfinatuta egon arren ekintza sorta prestatu genuen, eta dena lotuta zegoen; musika taldeak hitzartuta, erosketak eginda... Baina bi egun falta zirela jakin genuen ezingo zela ezer egin. Beasaingo jaietan gertatutakoek eragina izan zuten, eta dena bertan behera gelditu zen. Gogorra izan zen musika taldeei esatea dena bertan behera gelditzen zela. Ez genuen nahi aurten berdina gertatzerik, eta egoera zein izango zen jakin barik erabakiak atzeratzen joan gara. Ez genuen nahi, ordea, ezer ez egoterik, eta, azkenean, konpartsaren baliabideekin gertatutako proposamena aurkeztu genion Udalari. Laguntzeko prest agertu ziren, eta baldintza jakin batzuekin baina ekitaldiak antolatzeko aukera ikusten zutela esan ziguten.

Kontzertu bakarra, edukiera mugatuko espazioetan, 18:00etarako amaituta...

Horiek ziren baldintzak; iazko egitarautik egin dugu tira.

Zer-nolako harrera izan du prestatutako egitarauak?

Hainbat ikuskizunetarako sarrerak agortuta daude. Seinale ona da. Badirudi, dena den, batzuek beste zerbaite espero zutela. Ez dakit ondo ulertu den ez direla Pentekoste jaiak, baizik eta jaiak ospatu beharko genituzkeen egunetarako antolatutako kultura eskaintza bat. Bertso saioaren ordutegiarekin, bakarriketaren egunarekin... kexu ziren batzuk, baina bizi dugun egoeraren jabe izan behar dugu. Gure ustez, kontzertu batean ondo pasa daiteke, nahiz eta alkoholik ez egon. Horrela beharko du.

Zertan zabiltzate egunotan?

Soinu probak, aulkiak ipini eta kendu, artistei harrera egin, sarrera-irteerak antolatuta... Bada zer egina. Zapatuan, gainera, bi ekintza daude. Laguntza behar badugu, sare sozialen bidez eskatuko dugu.

Alberto Gorosabel Mendizabal eta Andrea Gorosabel Badiola doktoreak

GOROSABEL
DENTAL

RPS: 258/18

943 76 56 88 • 618 95 90 17
Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA

www.gorosabeldental.com

- Ortodontzia. Odontopediatria. PADI (Osakidetza).
- Estetika eta hortzen zuritzea TEKNIKA BEREZiarekin.
- ESKANER DIGITALA diagnostiko zehatzak egiteko.
- AHO eta INPLANTEEN KIRURGIA punta-puntako teknologiarekin.
- PRGF (PLASMA).
- SEDAZIOarekin, nahi baduzu, kirurgia eta gainontzeko tratamenduak.

*Gure ere
bergararrekin!*

1990. URTETIK ZUEKIN BERGARAN. ESKERRIK ASKO DENOI!

"Moldatutako eskaintza behar zela argi genuen"

GORKA ARTOLA BERGARAKO ALKATEA

Kulturan inbertitzen duen herria "herri aberatsa" dela sinetsita, ekitaldiez gozatzen animatu ditu herritarrak, "erakutsi duten elkar zaintzeko prestutasunari eutsiz"

E.A./J.O. BERGARA

Gaur hasi eta martitzenera arte, udakoaren "mokadua" izango den eskaintza antolatu dute.

Aurten ere, jairik ez; 2022an, hirugarrenean, bai?

Une honetan zaila da jakitea zein egoeratan egongo garen, baina nahiko nuke datorren urtean jaiak ohi bezala ospatzea, osasun pandemia gainditu den seinale izango litzateke.

Bost ekitaldi antolatu dituzue, Xaxau konpartsarekin batera...

Pentekosteak ohi bezala ezingo genituela ospatu ikusi genuenean, osasun egoerak ahalbidetzen dituen ekimenak egitearen aldeko apustua egin zuen Udalak,



Gorka Artola, Bergarako alkatea, udaletxeko balkoian. GOIENA

eta eragileei hala adieraz zitzairen, proposamenak egin zitzaizkien. Ezer ez egitea baino gehiago, egoerari moldatutako eskaintza egin behar zela argi genuen. **Diozue udako kultura ekitaldien "mokadua" direla egunotakoak. Ze duzue buruan udarako?**

Uste dugu, eta bide horretan ari gara lanean, kulturan inbertitzen duen herria herri aberatsa dela, bizipoza eragiten diela herritarrei eta une honetan bereziki gaudela horren beharrean. Horregatik, eta iazko udan hasi eta urte osoan egindako biderei jarraituz, Kultura Mahaiarekin eta beste eragile batzuekin dagoeneko hasi gara udako kultura egitaraua lantzen. Udako menu oso horren mokadua edo aurre-rapena da maiatzaren 21etik 24ra bitarteko hau.

Egun hauetan, jaietako ohiko izan den beste ekitaldiren bat egiteko aukerarik ez duzue ikusi?

Xaxau eta Kopla Barik taldeek prestatutako proposamenen izaera askotariko kultura adierazpenak jasotzen dira, herritarren nahi eta beharrei erantzun-godietan. Adin askotariko bergararentzat pentsatutako

ekimenak dira. Eta horri gehitu behar zaio igandean haur jaioberriei udaletxean egingo zaien harrera.

Aukerarik bada sanmartzialak edo sanmartinak ospatzeko?

Ez dut uste azti-lanak egiteko unea denik. Pandemia honek erakutsi digun gauzetako bat izan da egoera aldakorra dela eta unean-unean hartu behar direla erabakiak; beraz, osasun egoeraren eboluzioak erakutsiko digu hori.

Ekitaldi ofizialik ez egon arren, hainbatek ospatuko dituzte egun hauek. Ze mezu bidali nahi duzu?

Bergararrei eskatu nahi nieke zentzuz joka dezaten egun hauetan ere. Orain arte erakutsi duten elkar zaintzeko prestutasunari eta gaitasunari eustea, ez dezagun azken asteetako osasun egoeraren hoberako joera zapuztu. Horrekin batera, kultura gozatzen ere gonbidatu nahi ditut, egoera zail honi aurre egiten laguntzen duelako eta kultura segurua delako.

Zuk zeuk zer egingo duzu?

Alkatearen ardurak uzten nauen neurrian, neu ere saiatuko naiz ekitaldi horietaz gozatzen.



Lagun Garajea

Santalaitz, 3

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Gu ere
bergararrekin!!



Gu ere bergararrekin!



- Eraikuntza orokorra • Fatxadak • Teilatua
- Terrazak • Birgaitze orokorra • Baserriak
- Unifamiliarrak • Pabilioiak • Proiektuak...

Tel.: 943 76 11 23 - Faxe: 943 76 30 41 | Masterreka 14-16 / 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
goitu@grupogoitu.com | www.grupogoitu.com



Valen Moñuxek hainbat programa informatikoren laguntzarekin iaz egindako jaitsiera birtualeko irudi bat. VALEN MOÑUX

Ez-jaiei ezohiko hasiera emateko, jaitsiera birtuala

Gonzalez Bastidaren 'Pobres y alegres' martxaren doinuekin eta Bergarako Musika Bandaren eskutik egingo du aurten ere Bitorianatxok Seminarixotik udaletxerako bidea, gaur arratsaldean; ikusi nahi dutenek, baina, online jarraitu beharko dute

Jone Olabarria BERGARA

Ikuskizunen sektorearekin lotura estua izan du betidanik Valen Moñuxek. *Alizia* musikalera ikasi zuen animazio birtualak egiten, hainbat programa baliatuz, eta, itxialdian "asko ikasi" ostean, iazko Pentekosteetarako sortu zituen Bitorianatxoren lehen igoera eta jaitsiera birtuala: "Orduko egoera oso ezberdina eta larria zen, eta bergararrekin ospatzeko aukera eman zuen, hein batean".

Aurtengo mezua, gaurkotuta

Egungo egoera kontuan izanda, "itxaropen" mezu bat bidaliko die bergararrei Bitorianatxok, aurten birusak eskatzen dituen neurriekin jaiez gozatu eta datorren urtera begira ohiko festak berreskuratzeko asmoz.

Bitorianatxok urtero egin ohi duen moduan, gaur, egubakoitza, Seminarixotik abiatuko da udaletxeraino, jaitsiera birtualean. Ohitura mantenduz, Miguel Gonzalez Bastidaren *Pobres y Alegres* doinua izango du lagun ibilbidean zehar, eta udaletxeko balkoitik zuzenduko zaie bergarar guztiei.

Harrerarekin eskertuta

Pandemiak eraginda, ikuskizun eta ekitaldi kulturalak bizi duten egoera "ez da ona", baina, hala ere, halako ekimenak "gogoz" hartzen dituzte herritarrek, Moñuxek azaldu duenez: "Iazko egoera eta aurtengoa nahiko ezberdinak dira, baina, hala ere, jaiak ezohikoak izango dira, beste behin. Iazko bideoak mila ikustalditik gora izan zuela ikusteak asko poztzen nau, niretzat izugarria da".

Bitorianatxorekin soilik ez, hiru erregeen desfilea irudikatze ere egin zuen herrian zehar ibilbide birtuala Moñuxek: "Azken orduan erabaki nuen egitea, nire kontura izan zen dena, eta orduan, sare sozialetan zabaldu nuen. Herritar asko gerturatu zitzaizkidan eta esan zidaten oso gustura ikusi zutela, baita sare sozialetan asko ibiltzen ez den adineko jendeak ere".

Martitzenean, kontrako bidea

Gaurko ibilbidea kontrara egingo du martitzen iluntzean Bitorianatxok, datorren urtean plaza bete jende egoteko itxaropena galdu gabe, beste behin.



BERGARA
izan, bizi, ekin

*bizi
kultura*



Pertsonen arteko distantzia gertu



Maskara beharrezkoa

Amaia Txintxurreta BERGARA

Pandemiaren ondorioz, Bergarako Musika Bandak eta Erraldioen Konpartsak ezin izan dituzte ohiko zuzeneko saioak egin, denbora luzean. Baina, bideo bitartez baldin bada ere, presente egongo dira aurtengo herriko ez-jaietan.

Iaz, jaien ongietorriko martxa izaten den *Pobres y alegres* kantuarekin egin zuten bideoa bandakoek. Eta aurten, *Erraldioen martxa* aukeratu dute. Hauxe adierazi du Bergarako Musika Bandako zuzendari Enrike Txurrukak: "Iazko ekainerako kontzertu bat prestatuta geneukan Erraldioen Konpartsakoekin batera, eurek iaz bete zuten 20. urteurrena ospatzeko aitzakia-rekin, baina pandemiagatik hori ere bertan behera gelditu zitzaigunez eta jaietan ere eurak presente egoten direnez, aurtengo bideoan bi taldeak agertuko gara". Gaineratu du herrian *Gigantes* izenez ezagunagoa dela aurtengo aukeratu duten kantua. Melodia oso popularra dauka Jose Mari Gonzalez Bastidak sortutako abestiak gerora bere iloba Alfredo Gonzalez Chirlaquek



Urtebete baino gehiagoan kalera irten barik egon diren erraldoietako batzuk, San Martzialen, bideoarako grabazioan. ANDONI GOITI

Bandako musikariek, erraldoiak izango dituzte lagun, bideo berrian

Aurten ere ezin izango dute zuzeneko saiorik eskaini Bergarako Musika Bandakoek ezta Erraldioen Konpartsakoek ere, baina bi taldeak agertuko diren bideoa sortu dute

moldatu zuen, gainera. Herrian txistulariek jo eta umeez abestu izan dute, erraldoiak eta buruhandiak xaxatzeko.

Bideoak, lagungarri

Aurrez aurreko entseguak eta zuzeneko kontzertuak bertan behera gelditu izanak asko baldintzatu du bandako musikarientzako lana. Egoera "desatseginari" aurre egin nahian, orkestrarekin bi bideo eta bandarekin zortzi oraingoa bederatzigarrena egin dituzte. Musikari bakoitzak bere etxean grabatu ditu abestiak; hori egin ahal izateko, erritmoa jarraitzeko gida jaso dute, horren gainean grabatu, eta, egun osatzen duten 66 musikarientzako muntaia eginda, kantuak osatu dituzte. Ikus-entzunezko horiek egiteak bi helburu izan dituela zehaztu du Txurrukak: "Bata da musikariak bandara lotuta egotea, ez ahaztea instrumentuarekin eta noizean behin gure aurpegiak ikustea; izan ere, hau afizio bat da, baina, batez ere, lagun talde bat gara, eta hori mantendu egin nahi dugu. Bestetik, nahi izan dugu herrian presente egon ere

- **Ibargarai 24**

Tel.: 943 76 70 29

- Super Amaran ere bai:

San Lorenzo pol. 9

Amillaga 18

Tel.: 943 76 99 34

BERGARA

Gu ere bergararrekin!



Murillo Garajea

Auto konponketak orokorrean

Gu ere bergararrekin!

Leizeaga 4 - BERGARA

Tel.: 943 76 13 84

bai. Uste dut biak lortu ditugula". Dena den, "nekagarria" ere izan dela gaineratu du: "Ohitura ez gauden lan bat egitea ekarri digu; etxean kamera aurrean bakarrik jarri, grabatu eta nork bere zatia bakarrik bidaltzeak lotsa pasatzea ekarri du, kasu askotan; gero, muntaiarako, ni ez naiz profesionala horretan, eta niretzako ere lan ikaragarria izan da". Herriko beste talde batzuekin elkarlana bultzatu nahi izan dute bideoen bitartez, eta Alai Taldearekin eta musika eskolakoeekin grabatu dituzte bideoak, oraingoaren aurretik.

Ez jaietarako prestatu duten ikus-entzunezkoan, berriz, Erraldioen Konpartsakoak agertuko dira. Horiek San Martzialen izan ziren grabazioa egiten, eta, erraldoiek eurek dituzten koloreekin, naturaz inguratuta eta airetik hartutako irudiak gehituta, emaitza herritarren gustukoa izatea espero dute egileek.

Ikus-entzunezkoa bandaren sare sozialetan argitaratuko dute eta Goienak eskainiko duen ez-jaietako saioan ikusi ahal izango da, oso-osorik.

Ezohiko hasiera

Enrike Txurrukak 2019ko ekainean hartu zuen Bergarako Musika Bandaren zuzendaritza, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren batuta jaso ostean. Inork ez zuen pentsatuko orduan nola aldatuko zen taldearen jarduna ondorengo hilabeteetan.

Dena den, eta espero gabeko lanak egiten ibili ostean –bideoen muntaiak, esaterako–, espero du berandu baino lehen aurrez aurreko entseguetara eta zuzenekoetara bueltatzea.

Zuzenekoak hasteko zain

Bai Erraldioen Konpartsakoak eta baita bandako musikariak ere zuzenekoak hasteko ilusioz daude. Bandakoen kasuan, Banden Federazioak protokolo bat



Norberak etxean grabatutako irudiekin osatzen dituzte bideoak bandakoek. B.M.B.

"ASKO GUSTATUKO LITZAIGUKE UDA AURRETIK ZUZENOKO BAT EGITEA"

ENRIKE TXURRUKA

zehaztu du, eta hori Eusko Jaur-laritzara bidalita daukate. Orain haren onarpenaren zain daudela azaldu du Txurrukak, eta uste dutela gero banda bakoitzak protokolo nagusi hori bakoitza-

"PALENTZIARA JOATEKO GONBIDAPENA JASO DUGU ABUZZTURAKO"

ANDONI GOITI

ren beharretara egokitu behar duela. Hori guztia onartu ostean, esperantza daukate aurrez aurreko entseguen has-teko eta, horrenbeste denbora pasa ostean, zuzenekoren bat

egiteko: "Askok gustatuko litzai-guke uda aurretik zuzeneko bat egitea. Ez dakit hilabete honetan egin ahal izango den, hurrengoan edo zuzenean irailerako utzi beharko dugun, baina sekulako gogoz gaude. Ez gara betiko sa-soian egongo eta ez dakit zer egin ahal izango dugun; kontzertua ala beste formaturen bat, baina zerbait egiteko deseatazen gaude dagoeneko".

Erraldioen Konpartsakoei ere ez zaie gogorik falta. "Ikaragarriko gogoak daukagu gure erraldoiak kalera ateratzeko. Palentziara joateko gonbidapena jaso dugu abuzturako, eta oso pozik gaude proposamenarekin, baina oraindik ez dakigu joan ahal izango garen. Ikusi egin behar-koko dugu pandemiak zein bide hartzen duen, eta horren arabera erabaki beharko dugu", adierazi du Andoni Goiti taldekideak. Horien kasuan, gaur egun 30 lagun daude talde nagusian eta umeenean, 50 neska-mutiko.

Egoera hobetu eta herritarren artean euren afizioekin gozatzen jarraitzeko gogotsu daude bi taldeak. Bitartean, bideoak ematen duenarekin disfrutatu behar-

IN KONFORT MIS TAK



Saunier Duval

Erabateko lasaitasuna 15 urtez Zerbitzu Tekniko Ofizialarekin, gutxiagorekin konformatzen ez direnentzat.

Gipuzkoa
Zerbitzu Tekniko Ofiziala
943 76 06 61

Galdetu gure
Mantentze Zerbitzuei buruz

www.mantenimiento.saunierduval.es





2019ko jaietako familia argazkia. IMANOL SORIANO

Aurten bai, aurten izango dute harrera azkenekotik hona jaiotako haurrek

Jaietako gainerako ekintzak bezala iaz bertan behera geratu ostean, 2019ko Pentekosteetatik hona jaiotako umeei egingo diete ongietorria domekan, udaletxean. 175 ume inguru dira; bakoitzeko guraso bakarra joango da, pilaketak saihesteko

Julen Iriondo BERGARA

Hamar urte dira aurten ekitaldi hau Bergaran –eta eskualdean– egiten hasi zirela, eta hamargarrena izango da, hain justu, domeka honetakoa –iaz ez baitzen egin–.

2011ko hura egiteko ideia nola sortu zen gogoan du Agurne Barrusok, lau urte lehenagotik herriko alkate zenak –umeen

ongietorri ekitaldi egunean osatu zen, hain zuzen ere, udalbatza berria; agintaldiko azken ekintza izan zuten–: "Domeka batean irratia entzuten ari nintzen arropak lisatu bitartean, eta entzun nuen Bizkaiko herri batean hori egiten zutela, ongietorri soziala-edo egiten zietela aurreko urtebetean herrian jaiotako umeei, eta oso polita

iruditu zitzaidan". Gobernuaren hurrengo bilerara eraman zuen gaia, eta hala erabaki zuten egiten hastea: "Hurrengo urteko Pazkoetarako zapiak atera genituen eta egin genuen harrera".

Eskualdeko beste hainbat herritarra ere zabaldu zen ekintza; jendearen gustukoa gertatu zen, Bergarako lehen edizio hartatik bertatik, Barrusoren arabera:

"Kanpoan bizi ziren bergararrek deitu egiten ziguten, ea euren umeak ekarri zitzaketen galezka, eta etorri ziren Hernanitik, Pasaiatik... Jendeari ilusioa egin zion".

Neurri bereziekin

Iaz egiterik eduki ez ostean, aurten helduko diote berriro umeen ongietorriari. Jaiak behar zuten egunetarako zenbait kultura ekitaldirekin batera antolatu duten bestelako ekintza bakarra da; egoera eta ekintzaren ezaugarriak aztertuta, aurrera egitea erabaki zuen Udalak, Kultura batzordeko buru Kristina Markinak dioenez: "Hamar urtean egin den gauza bat da, eta arrakasta handia duena, eta pentsatzen duguna herritarrei eta guraso horiei ilusio handia egin izan diela. Aztertu genuen beste sasoi batean egiteko aukera, baina iruditzen zitzaigun neurri guztiak hartuta posible zela egitea; nahikoa ekitaldi xumea izango da, moldatu egin-

go dugu, ez da izango, besteetan bezala, hain jendetsua". Hurrengo urterako utziz gero hiru urtetako umeak pilatuko liratekeela eta hobetsi zuten ongietorria egitea.

2019ko jaietatik iazkoetara jaiotako 79 umeen eta iazkoetatik aurtengoetara mundura etorritako 92en –litekeena da azken orduan jaiotako beste batzuk ere izatea– familiei egin diete ekitaldirako gonbidapena; bakoitzari txanda zehatza emango diote, eta gehienez 30 laguneko txandetan egingo dute ekitaldia, domeka goizean. Ume bakoitzeko guraso bakarrak joan ahalko du. Eta badira neurri gehiago: "Badakigu nola gustatzen zaigun argazkiak ateratzea eta; ohitura

"HERNANITIK, PASAIATIK... ETORRI ZIREN; JENDEARI ILUSIOA EGIN ZION"

AGURNE BARRUSO, ALKATE OHIA

itesa

Gu ere bergararrekin!

BERGARA • San Juan auzoa • 943 76 22 97

da Bitorianatxoren irudiarekin gero argazkia ateratzea; baina aurten, geuk kontratatuko dugu argazkilari bat eta *photocall* moduko bat egingo dugu, hori ere pixka bat bideratuta egoteko. Normalean, zapia jarri eta gero, talde argazkia ateratzen da, eta, oraingoan, argazkiak izango dira banaka, ezingo da talde argazkirik atera. Hori da alde handiena. Zapiak jartzeko orduan ere, alkateak-edo jarri izan du orain arte, eta oraingoan, umearekin dagoen heldu horrek jarri beharko dio zapia; guk banatu egingo ditugu eta eurek jarriko dizkiete umeei. Egoerak baldintzatutako aldaketak izango dira".

Gero eta ume gutxiago

Ez da gauza berria gizartearen zahartzearena, eta horretan zirikusi handia du, besteak beste, jaiotza-tasaren beherakadak. Bergararen kasuan, esaterako, aurrekoarekiko alderatuta azken urtean jaiotzek gora egin duten arren, perspektibarekin aztertuta argi ikusten da beheranzko joera hori. Umeen harrera ekitaldia aurreneko aldiz egin zen 2011 hartan, esate baterako, 138 ume jaio ziren, eta gerora gorakadak eta beherakadak, biak, izan diren arren, joera orokorra beherantz da nabarmen; azken hamarkada bi zatitan eginez gero, esate baterako, lehenengoan urteko 135 ume jaio ziren, batez beste, eta bigarrenean, 97 baino ez. 2019a izan zen jaiotza gutxieneko urtea, 77rekin.

"ARGAZKIAK BANAKA IZANGO DIRA, EZINGO DA TALDE ARGAZKIRIK ATERA ORAINGOAN"

K. MARKINA, KULTURA ZINEGOTZIA



"Pandemiagatik, hasieran ez genuen jendearekin egon nahi, baina gero, lasaitu egin ginen"

Ur

ANA BALENTZIAGA
ETA AITZOL GOMEZ
DE SEGURA

Lehen umea dute, eta esperientzia "polita eta, aldi berean, gogorra" izaten ari dela dio Ana Balentziagak; adibidez, umeari lo egitea kosta egiten zaio. Pandemiak ez die askorik eragin: "Hasieran, ez genuen jendearekin egon nahi, badaezpada, baina gero, lasaitu egin ginen".



"Estutasun momentuak ere izaten dira, baina umearekin disfrutatzeke ona izan da etxealdia"

Jakes

HIBAI KAREAGA ETA
SANDRA BRETAÑA

Lehen konfinamendua baino hamabost egun lehenago jaio zen Jakes. "Itxialdiak mesede egin zigun, etxean lasai, bisitarik gabe...", dio aitak. "Estutasun momentuak ere izaten dira, ezjakintasunagatik; baina guk umearekin disfrutatzeke, guretzako oso aberasgarria izan zen etxealdia".



"Ez nintzen etxetik irten maiatzera arte; bideo-dei bidez familia osoak ezagutu zuen umea"

Luka

TANIA MEABE ETA
ODEI ANDUEZA

lazko otsailean jaio zen Luka; esperientzia "polita eta gogorra neurri berean" izaten ari dela dio amak: "Bizitza aldatu egiten da, baina oso pozik". Pandemia iritsi zen laster: "Ez nintzen etxetik irten maiatzera arte", badaezpada. "Bideo-dei bidez familia osoak ezagutu zuen".



"Gurasoekin eta aitona-amonekin nahi genukeen moduan egoteko aukerarik ez dugu izan"

Martin

ANDER
URRIOLABEITIA ETA
MIREIA EGAÑA

Abuztuan izan ziren guraso, eta bizimodu aldaketa ondo daramatela dio aitak. Gauzek ezin izan dute irudikatzen zutena moduan izan, hala ere: "Gurasoekin eta aitona-amonekin nahi genukeen modura egoteko aukerarik ez dugu izan. Egokitu egin behar izan dugu, beti talde txikitetan".

RPS: 227/18



ESTELLA
FARMAZIA-ORTOPEDIA SEKZ.

Matxiategi 5 • Bergara • 943 76 19 63



Gu ere bergararrekin!

Ezeta nola kudeatu, diru-iturriak festetatik bakarrik datozenean

Bergarrek penaz hartu dute Pentekosteetan ohiko egitaraurik egongo ez den albistea, baina pena handiagoa sentitu dute jaien bueltan jarduten duten langileek

Hasier Larrea BERGARA

Badaude sektore batzuk bizirauteko herrietako festen behar handia dutenak. Udaberritik udazkenerako kanpainaren zain egoten dira urtero, hibernatzen duten hartzak bezala, bai baita-kite tenperaturak igotzen direnean heltzen dela naturaren deia; kasu konkretu honetan, telefono bidezko dei eta mezu zaparrada etengabea. Iaz, gorriak pasatzea egokitu zitzairen, eta aurten, espero baino uzta urriagoa jasoko dute, maiatzean ospatzen diren jai patronalen

ohiko egitaraurik ez baitute aurkitu inon. Gogotik saiatu arren, joko eta espektakuluetara dedikatzen diren langileek ezeta kudeatzen ikasi behar izan dute hilabeteotan.

Horren adibide argia dira barrakak jartzeaz eta zezenketak egiteaz arduratzen diren beharginak. Bergaran, euren eta festazaleen mesederako, espazio esanguratsua eskaini izan zaie Pentekosteetan, baina Udalak jaiak bertan behera geldituko zirela iragarri zuenetik asaldatuta daude, ez baitute ulertzen

zergatik ezin dituzten euren ekintzak aurrera atera, beste ekitaldi kultural batzuei aukera hori eskaintzen zaien bitartean.

"Are gehiago, gure ekintzak aire zabalean garatzen dira eta", argudiatu du Juan Pablo Sanzek, Legazpiko Atracciones Sanz enpresako kideak. Ildo berean mintzo da Iñigo Almorza, Bergarako Zezenzale elkartearen presidentea: "San Martin plazan jartzen dugun zezen-plazan 1.200 pertsona sartzen badira, edukiera erdira jaitsi dezakegu, eta, hala, areto batean baino askoz

Datorren uda nolakoa izango da?



NAIARA URRESTI
LAKET ERROMERIA

"Erromeria taldeok geldi gaude, ez dugu tokirik"

"Urtero deitzen digute Pentekosteetarako, eta oso gustura joaten gara. Onartu behar dugu Xaxau konpartsak bikain tratatzen gaituela. Udara begira, oraindik ez dugu eskaririk jaso; parranda giroko taldea garenez gero, momentuz ez daukagu plazetan tokirik. Talde akustikoak, esaterako, badabilta euren kontzertuak eskaintzen, giro lasaiagoetan moldatu daitezkeelako. Baina ez da gure kasua. Ea datorren urtean egoera aldatu eta berriz elkar ikusten dugun!".



KINI NOYA
JAI-KIT MUNTAKETAK

"Bagabiltza deiak jasotzen, baina zail ikusten dugu"

"Jaietako txosnak muntatzera dedikatzen garenez, gizarte mailan talde immunitatea noiz lortuko dugun zain gaude. Hori ez da gehiengoak txertoa jarri arte gertatuko; aurtengo kanpainan baino gehiago, datorrenean, hau da, 2022ko maiatzean, espero dugu ohiko jarduna berreskuratzea. Halere, hasi gara uda honetan zerbitzua emateko eskariak jasotzen, baina badakigu txosnak muntatzeko baimenik ez dagoela. Egoera beltza bizi dugu, fakturaziorik gabe zaila da gastuei aurre egitea".



iBARRALDE
Administrazio zerbitzuak SL

- Fiskalak
- Laboralak
- Kontableak
- Finken administrazio zerbitzua

25.068 kolegiatu
zenbakia

Ibargarai 30 BERGARA
Tel.: 943 76 52 88 - Faxe: 943 76 25 64

Gu ere bergararrekin!



Ordutegia: 08:30 - 20:30 | Ibargarai ibilbidea 11 | Tel.: 943 76 28 92



Gu ere
bergararrekin!



Errekortadorea zezenaren adarkada saihesten, 2019ko Pentekosteetan. GOIENA

jende gehiagok goza dezake ikuskizunez, ez bakarrik zezenketez". Lehen sektoreak "begirune pixka bat" merezi duela uste du, gainera, irabazirik jasotzen ez duten bitartean ganaduak ez sakrifikatzeko erabakia hartu zutelako: "Horrek dakarkigun galera ekonomikoekin".

Udan, "agian, bai"

Pentekosten trena galdu badute ere, horrek ez du esan nahi datozen hilabeteetarako esperantza galdu dutenik, zezenen ikuskizunak eta kultura ema-

naldiak jarri nahi baitituzte kalean: "Apirilean Udaleko ordezkariekin batu ginen, eta galdetu genien ea zezen-plaza jarri genezakeen uda hastearrekin batera, erraldoiek, herriko musika taldeek eta errekkortadore zein zezenzaleek bergararren aurrean agertzeko aukera izan dezaten", aipatu du Almorzak. Udalaren erantzunaren zain daudela dio jai batzordeko kideak.

Kale zurrutaren ajeak

Aurten txosnarik egongo ez denez eta tabernekin egunez bakarrik

irekiko dutenez, "gauetz botila festa egiteak tokiko banatzaileei kalte" egingo diela argi dauka Jokin Zubeldiak, Txomin Zubeldia enpresako langileak. Txosnak eta tabernak edariz hornitzeaz arduratzen da 21 beharginez osatutako Bergarako lantegia; iazko martxotik hona "gorabehera handiak" jasan ditu euren sektoreak, baina joan den udan nabaritarako gorakadak "lasaitasuna" eman die aurtengo kanpainari begira. Halere, maiatzean Gipuzkoako festak bertan behera geratzeak ez die onik egin.

Zerk eragiten dizue amorru handien?



JUAN PABLO SANZ
ATRACCIONES SANZ

"Udal askok ez gaituzte entzun ere egin nahi"

"Zarautzen izan ezik, Gipuzkoan ez dugu barrakak jartzeko aukerarik izan, eta umeentzako parkeak, puzgarriak eta bakarrik ireki ahal izan ditugu. Pandemia hasieran sekulako ahalegina egin genuen egoerara moldatzeko, Ertzaintzarekin joko eta espektakuluen inguruko neurriak hartu genituen, hesiak, panelak, gelak, manparak... Denetik ekarri genuen. Alfer-alferrik. Osasun Ministerioaren baimena izanda ere, gure sektorea gelditu dago hemen".



IÑIGO ALMORZA
BERGARAKO ZEZENAK

"Ekintzak antolatzeko borondatea falta da"

"Zezen ikuskizunak antolatu nahi ez izatearen atzean beldurra sumatzen dugu Udalaren aldetik, nahiago dutelako ezer ez egin, gero egindakoan seinalatuak izatea baino. Kontua da guk Osasun Sailarekin landua dugula protokolo guztia, eta, gainera, praktikan jarri genuen urrian Azpeitian, arrakastaz. Bestalde, errekkortadoreen eta afizionatuen aldetik babes handia jaso dugu, eta eskertzekoa da benetan. Baina, orokorrean, jendea etsita nabari dut, gogo faltarekin".

Bergara ●
metagra
México ●
Group

Gu ere bergararrekin!



Iazko lehiaketan film labur onena izan zenaren fotograma bat: *Pernando Ximonen ordezkoa*. XAXAU JAI KONPARTSA

zein lanentzat izango den aukeratu da.

Kalitatezko epaimahaia

Bergaran zine industriako profesional ugari dago. Hori horrela, ikus-entzunezkoen arloan eta

arte eszenikoetan aritzen diren lau bergararrek osatutako talde ederra antolatu dute lanak aztertze eta saridunak zeintzuk izango diren hautatzeko. Epaimahaikide gisa honako hauek jardungo dute Seminarixoko

galan: Jon Olivares aktoreak, KB Photoestudioko argazkilari eta bideogile Jone Albenizek, gaztetxeko Dynamo zineklubeko Irati Olaziregik eta Zinemaon Bergarako Zinekluba plataformako ordezkari batek.

Lehiaketaren eboluzio ona

Xaxau Jai Konpartsak antolatutako film laburren lehiaketa duela bederatzi urte hasi zen, eta hasi zenetik gaur egunera izan duen eboluzioa nabarmena izan dela adierazi du Etxezarretak: "Hasieran, xumeagoa zen film laburren lehiaketa. Agian, ez zelako hainbeste jenderengana iristen... Baina, urteen poderioz, jaietako hitzordu azpimarragarri bihurtu dela esan dezakegu. Edizioz edizio indartzen joan da, eta, esaterako, duela bi urte, hamaika lan aurkeztu zituzten herritarrek; iaz, urte berezia izan zen, eta, dena online egin genuen arren, oso pozik geratu ginen parte-hartzearekin. Iazko kasuan, epe laburragoa izan zuten parte-hartzaileek lanak egin eta entregatzeko; beraz, baldintzak malguago jarrita antolatu genuen. Esaterako, hiru minutuko lana entregatu behar izatea... Hala, herriko festetan errotu den ekintza bat da, eta, jendeak gustura eta gogoz parte hartzen duen egitasmoa izanda, aurtengoa ere arrakastatsua izatea espero dugu".

Aurten ere parte hartzera



ASIER MUÑOZ
PARTE
HARTZAILEA

"Zenbait ediziotan hartu dugu parte film laburren lehiaketan. Iaz, irabazi egin genuen, eta aurten ere gustatuko litzaike hala izatea. Guztira, bederatzi minutuko ikus-entzunezkoa egin dugu, eta, gehienez bost minutukoa izan behar denez, kostatu egin zaigu lana laburtzea. Horrekin batera, gure taldekide guztiak grabaketarako batzea ere ez da erraza izaten, baina gero, bikain pasatzen dugu, barre asko egiten dugu. Gure lanak umorea du ardatz, baina, esan bezala, moztu egin behar izan dugunez, ea ikusleek ulertzen duten eta gustukoa den".



BERGARA

www.alet-taldea.com

Tel.: 943 765 815
620 56 13 16
669 36 69 53

Ingenieritza eta Instalakuntza

Energia fotovoltaikoa • Energia Termikoa • Geotermia
Biomasa • Zoru Erradiatzailea • Aerotermia

**Autokontsumoko instalakuntza fotovoltaikoetan
eta litiozko baterietan adituak gara.**

Gora bergararrok!



INDUSTRIAS **FEGAR, S.A.**

www.fegar.com



Gu ere bergararrek!

"Geroz eta gazteagoek egiten dituzte brusak"

SANTI FRANCO, MARIAN GALLEGO ETA TRINI URRUTIA TELAETXEKO DENDARIAK
Pentekosteetako bereizgarri eta ikur diren jaietako brusa edo alkandora koloretsurik ez dute saldu azken bi urteotan, baina ohitura horren nondik norakoak azaldu dituzte

J.O. BERGARA

Pentekoste jaiak kolorez janzten dituzten brusa eta alkandorak egiteko oihaletako asko irten dira Elgetarako errepidean dagoen Telaetxe oihal biltegitik. Duela hamarkadak negozioa ireki zutenetik, oihal koloretsuak saltzeko garaia izan ohi da jaien aurrekoa, nahiz eta azken urteak ezberdinak izan diren.

Bergaran oso errotuta dagoen ohitura da jaietako alkandorena...

Bai, aspaldidanik dator jaietarako kuadrillak brusak egitearen ohitura. Haurren kasuan, azken urteetan askok kamisetak egin izan dituzte ere, marrazkiak jartzeko aukera ematen dutela-



Telaetxeiko dendariak, jaietako alkandorak egiteko oihalekin. J.O.

ko, edo izenak idaztekoa; pertsonalizatzeko, azken batean. Hala ere, nagusitzen doazen heinean, alkandora nahiago dute bergarrek. 18 bat urterekin egin ohi dituzte alkandorak kuadrillek; asko, bizitza osorako. Hala ere, orain gero eta gazteago egiten dituzte, hamabi bat urteko umeak ere etortzen dira. **Zeintzuk dira oihal eskatuenak, herritarren gustukoenak?**

Jaietako alkandorak egiteko, zalantza barik, koloretsuak eta estanpatu bizidunak. Zenbat eta deigarriagoak izan, hobeto; horiek nahiago dituzte. Azken batean, jai giro hori ere islatu behar dute brusek.

Alkandoraren forma ere ondo pentsatuta ekartzen dute...

Bai, argi izaten dute poltsiko kremaieraduna nahi dutela, dirua edo telefonoa bertan gorde ahal izateko. Eta mahuka luzedun brusak, beti; bestela, ezin gerrira lotuta eraman.

Oihalen diseinuak mugatuak izango dira; nola egiten duzue kuadrilla bakoitzak berea izan dezan?

Bai; saiatzeko gara ez errepikatzen, edo, behintzat, adinean gertukoak diren kuadrillek berbera ez eros-

ten. Oihal jakin bat zein kuadrillak erosi zuen apuntatzen dugu, eta, horrela, urtez urtekoa gordeta, badakigu zeintzuek duten estanpatu hori. Bezeroren batek interesa duenean oihal jakin batekiko, abisua ematen diogu, oihal hori aurretik norbaitek erosi duen edo ez. Edozela ere, zaila izaten da ez errepikatzea.

Igarriko zenuten azken bi urteetan behera egin duela brusaren salmentak, jairik ez dagoenez...

Bai, igarri dugu, zalantza gabe. Ez dugu oihal metro bat ere saldu jaietako alkandoretarako. 2019ko jaien ostean, oihal diseinu berri ugari eskatu genituen, eta hemen ditugu, jaiak noiz ospatuko zain, biltegian.

Noiz hasten dira enkarguak egiten kuadrillak?

Aratusteen ostean hasten dira oihalak aukeratzera etortzen. Hainbat kasutan, alkandora asko egin behar izaten dituzte, eta jostunak ere behar du denbora. **Bergararik kanpo, etortzen zaizkizue kanpoko bezeroak jaietako alkandorak egiteko oihal bila?**

Batzuk bai, baina hemen bezain beste ez dago errotuta inguruan.

TELAETXE

Oihalen neurketatik etxean
ipintzera arte dena gure esku
Fabrikako preziotan

Elgeta bidea,
gasolindegitik
300 metrora
• BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41
Astelehenetik
larunbatera
10:00etatik 13:00etara
eta
16:00etatik 20:00etara zabalik

Gu ere
bergararrekim!

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolezio berria ikusgai eta orain

ALFONBRAK

Kalean edo etxean, zapien ere nagusi da Bitorianatxo

Orain arteko dinamika aldatuz, pertsona berak egindakoak dira aurtengo jaietako zapiaren leloa eta diseinua. Haurren zapiari dagokionez, Oihana Tabares gazteak eskuratu du lehen saria. Helduen kasuan, Nagore Aranbururena izan da irabazlea

Jone Olabarria BERGARA

Pentekosteetan falta ezin daitekeen elementuetako bat da Jardunek urtero-urtero egiten duen zapia. Aurtengoak gertu daude, azken urteetako parte hartzerik handienetakoa izan duen lehiaketaren ostean: 41 esaldi eta 38 diseinu, guztira.

Euskara eta COVID-19a ardatz

2021eko irabazleak aukeratzeko, pandemia eta euskararen erabilera izan ditu kontuan Jardunek: "Egoera berezi honek bozketan ere izan du isla, nahiz eta umeenetan haien ilusioak izan diren ardatz nagusi; ez horrenbeste koronabirusa".

Lehen zapia jasotzetik, sortzera

Bergarako Udalak egiten duen jaioberrien ongietorrian zapia jaso zuen lehen haurra izan zen Oihana Tabares. Hamar urte geroago, bere esaldia eta leloa aukeratu ditu epaimahaia aurtengo umeen zapiarako. "Jaietako pertsonaia eta ekintzak zeintzuk diren pentsatu, eta Bitorianatxo etorri zitzaidan. Askok gustatzen zait marraztea; tabletan egin dut. Eskolan bertsojaritza lantzen dugu, eta horrek ere lagundu dit zapiarako esaldiarekin".



Oihana Tabares, diseinuarekin. J.E.


"Jaiak ospatzeko beste modu bat islatu nahi izan dut diseinuan"

NAGORE ARAMBURU NAGUSIEN ZAPIAREN IRABAZLEA

2019an aurkeztu zuen diseinu bat lehenengoz zapien lehiaketara Nagore Aranburuk; orduan ere garaile izan zen. **Espero zenuen aurten ere lehen saria eskuratzea?** Sorpresa izan da. Aurrekoan aurkeztutakoaren nahiko antzekoa da aurten egin duen diseinua, eta ezberdinagoa den zerbait saritzea espero nuen. Betidanik asko gustatu izan zait marraztea.

Pandemiak ere izan du islatu zure diseinuan: etxea, leihoa...

Argi nuen aurtengo jaiak pixka bat ezberdinak izango direla islatu behar nuela, nahitaez, diseinuan. Jaiak ospatzeko modu ezberdina izango dela, eta horregatik erabaki nuen Bitorianatxo etxe barruan sartuta irudikatzea. Gaur egun bizi dugunarekin lotu dut.




JARDUN EUSKARA

Leloa ala diseinua, zer izan da zailagoa?

Zailena ideia leloarekin lotzea izan da, esaldia pentsatzea kendu dit denbora luzeen; gero, errazago etorri zen diseinua.


autopullmans
Araba



Gu ere bergararrekin!

Angiozar 3-1 BERGARA • Tel.: 943 76 55 70 - 686 47 68 52

www.arababusbergara.com • info@arababusbergara.com



Ba bai, neska...
Azkenien, separetie
erabaki dogu.
Oin, aholkularitza
edo laguntza
topau biher...



goienaOkmgida

Debagoienean baldin badago,
hemen dago.

Goiena
Okm Gidaren
eskaintza osoa.



THE MOOD RINGS, MUSIKA TALDEA



OIHAN VEGA, BAKARRIZKETARIA



CAMDEN TOWN, DANTZA TALDEA



ON THE GO, COVER TALDEA



BERGARAKO ERRALDOIAK ETA MUSIKA BANDA

IKER HIRIART, RAP ABESLARIA



HERRITIK HERRIRAKO KULTURA MOKADUA

PAZKOAK 2021 BERGARA, EZ-JAIK

GOIENA TELEBISTA,

MAIATZAREN 25EAN, MARTITZENEAN, 18:00ETAN, 20:00ETAN ETA 22:00ETAN

BABESLEA:



BERGARA
izan, biz, ekin



Bergarako
Udala

goiena

Zu hemen zaude.



Eskoriatzako Ausartak antzerki taldeko kideak entsegu orokorrean. IMANOL BELOKI

Badago gogoia Ausartak taldearen lana ikusteko

Maiatzeko kultura agendaren barruan, datorren asteburuan Ibarraundi museo kanpoaldean bi hitzordu izango dira: batetik, 'Zapla' bertso saioa hilaren 29an, 18:00etan; bestetik, Ibil Bedi taldearen kontzertua, 30ean, 19:00etan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Asteburu honetan izango dute estreinaldia Eskoriatzako Ausartak antzerki taldeko kideek. *Las brujas se salem* ikuskizun berriaren bi saio eskainiko dituzte: zapatuan bata eta domekan bestea; eta ekainaren 5ean beste bat egingo dute. Sarrerren salmenta oso ondo doala adierazi dute taldekideek, eta ilusioz daude oholtza gainera igo eta prestatutako lana herritarren aurrean erakusteko.

Sarrerren salmenta, bizi-bizi

Zapatuan 19:00etan izango da estreinaldia, Zaldibar antzokian, eta dozena erdi sarrera geratzen dira lehen saiorako. Domekako

saiorako, berriz, sarrera guztiak agortuta daude, eta ekainaren 5eko hitzordurako ere dezente saldu direla adierazi du Arantxa Unzuetak, Eskoriatzako Udaleko Kultura teknikariak: "Zaldibar antzokiko edukiera 60 laguneko da gaur egun, eta domekarako sarrera guztiak saldu daude. Zapatuko ikuskizunerako sei sarrera geratzen dira, eta horiek eta ekainaren 5erakoak ere salduko direlakoan gaude. Beraz, Eskoriatzako antzerki taldearen ikuskizuna ikusi gura dutenek Manuel Muñoz kiroldegian erosi ditzakete sarrerak, bost eurotan. Anima daitezela herritarrek, sarrera guztiak agortu aurretik".

Aire zabaleko emanaldien alde

Zaldibar antzokian zenbait kultura ekitaldi egin badira ere, datorren asteburuko hitzorduak, behintzat, aire zabalean egitearen aldeko apustua egin dute; eguraldia lagun izaten badute, behintzat. Hain zuzen ere, *Zapla* bertso saioa eta Ibil Bedi taldearen kontzertua izango dira Ibarraundi museo kanpoaldean.

Ingurune atsegina izateaz batera, museo kanpoaldeko ekintzetan 100 pertsona batu ahal izango dira, eta, bi hitzordu horiek doan izango diren arren, gonbidapenak eskatu beharko dira. Eguraldi txarra egiten badu, Zaldibar antzokian izango dira bertso-saioa eta kontzertua.

Hip-hop dantza tailerra izango da hilaren 30ean pilotalekuan

10 eta 12 urte bitarteko haurrendako da, eta izena emateko epemuga maiatzaren 27a da, eguena

I.B. ESKORIATZA

Zapatu honetarako nerabeentzat antolatuta zegoen hip-hop dantza tailerra bertan behera geratu den arren, datorren domekarako, 10 eta 12 urte bitartekoentzat jarri dute ikastaroa.

Pilotalekuko gimnasioan eskainiko dute saioa, 17:00etatik 18:30era. Interesatuak izena eman beharko dute, eta horretarako hainbat bide ezarri ditu Eskoriatzako Udalak: kultura etxera joanda, 943 71 46 88 te-

lefono zenbakira deituta edo gazteria@eskoriatza.eus helbide elektronikora idatzita. Izena emateko azken eguna maiatzaren 27a da eta tailerraren prezioa, bost euro.

Bertan, breakdanceko eta beste hainbat estiloko dantzari Henrike De Souza izango da gidari lanetan. Jaiotzez Brasil-darra da, eta 10 urterekin etorri zen Euskal Herrira. Azken urteetan dantzari profesional gisa aritu da, eta dantza irakaslea ere bada.

Ainhoa Barandiaran eta Dorleta Elkorobarrutia, *Deba* eta *Jarindo* loreontziekin. I.B.

Herriko informazioa teiletan, esaldiak eta pasarteak idatzita

Gatzagako loreontzi pertsonalizatuak lorez bete eta osatzen ari dira, izan duten harrera aprobetxatuz

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Herri ekimen moduan Gatzagan jarri zituzten hamaika loreontzi pertsonalizatuak lorez bete dituzte egunotan, eta, horrekin batera, zenbaiten alboan teilak jarri dituzte; horiek herriko historia, bitxikeria edota pasarte atseginekin osatu dituzte.

Loreontzi bakoitza pertsonaia bat izanda, izenak ere jarri dizkiete margotuta dauden arabea. Esaterako, loreontzi bati *Deba* izena jarri diote, eta bere alboan honako esaldi hau idatzi dute teila batean: *Hiruerreketan jaio, herrian salto, jolastu, bizi, bailaran hazi eta Kantaurin nahasi*.

Loreontziei identitatea eman

Herria apaintzeko sortutako egitasmoa gatzagarren artean gustuko ekimena izateaz batera, Aste Santuko oporraldian izan dituzten turistak argazkiak ate-

ratzen aritu direla nabarmendu dute loreontziak jartzen aritu direnek. Hori horrela, loreontzien egitasmoa indartzea eta osatzea erabaki dute. Horretarako laguntza ere izan dutela adierazi du Dorleta Elkorobarrutia gatzagarrik: "Arrasateko Buart loradendakoa herritik pasa zen behin, eta, loreontziak gustatu zitzaizkionez, loreak ekarri dizkigu; guk, trukean, loreontzi pertsonalizatua egin diogu".

Herriko kontuak aukeratzin

Hamaika loreontzietatik gutxi batzuek dituzte, gaur-gaurkoz, herriko histori zati, istorio edo pasarte bat idatzita, baina loreontzi guztietan jarriko dituzte. Horretarako, buruari bueltak eman, informazioa batu eta horiek irakurtzeko tentagarriak diren esaldiak idatziko dituztela adierazi dute ekimena egiten ari direnek.

'Harri jasangarrien paisaia kulturala' bisita Gatzagan

Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Sailak *Geoturismoa, gure ondare geologikoa* izenpean zenbait bisita antolatu ditu bailarako hainbat herritan. Egitarauaren barruan egingo den bisita gidatuetakoa bat Leintz Gatzagan izango da, zapatuan eta domekan.

Harri jasangarrien paisaia kulturala izenpean egingo dute

Leintz Gatzagako bisita gidatua, 11:00etan –zapatuan zein domekan–, eta bertara joateko interesa dutenek izena eman beharko dute. Horretarako, zenbait bide jarri dituzte: 943 79 64 63 eta 943 71 89 11 telefono zenbakietara deitu daiteke, edo infoturismo@debagoiena.eus helbide elektronikora idatzi.

Harri jasangarrien paisaia kulturala bisita gidatua Aitor Larrañaga Gatzagako Gatz Museo arduraduna arituko da gidari lanetan.

Kukubaso: astelehenean hasita, bazkideen bila

Bertako basoa berreskuratzeko sortu den Kukubaso elkarteak asteen egin du aurkezpena, eta hilaren 24an hasiko dute bazkide kanpaina; ekainaren 20rako zehaztu dute lehen auzolana, Erreka Garbiketa eta Herri Hezitzailea batzordeekin

Jokin Bereziartua BERGARA

Martitzenean aurkeztu zuten "ia erabat" galduta dagoen bertako basoa berreskuratzea helburu duen Kukubaso elkarteak, Seminarixoa. Elkarte bera aurkeztuta, bazkideak eta eragileak erakartzeko unea da orain; astelehenean, hilak 24, abiatuko dute bazkidetza kanpaina, eta bi kuota zehaztu dituzte: herri eragile edo elkarteek 100 euroko sarrera kuota bakarria izango dute eta bazkide aktiboendako urteko kuota 60 eurokoa izango da -2021erako, urte erdiko kuota izanik, 30 euro-.

Datozen bi asteotan herriko eragileekin erronda bat egingo dute eta ekainaren 8rako bilera irekia deitu dute eragile horiekin eta norbanako interesatuekin. Azkenik, ekainaren 20rako lehen auzolana prestatu dute, Herri Hezitzailea eta Erreka Garbiketa batzordeekin elkarlanean eta Udalaren laguntzarekin.

Herri-lurren ideia berreskuratzea

Kukubaso elkarteak argi dute arazoa globala dela, baina lanek etxetik hasi behar dutela sinistuta daude. Herri-lurren ideia berreskuratuz Bergarako basoak bergararren eskuetan egotea nahi dute, jabetza kolektiboa sustatuz eta kudeaketa sostengarriaren bidez. Eta aurkezpenean zehaztu zuten, bost lan-ildo dituzte: lurraldearen zaintza, lurrak lagapenean hartuz, dohaintzak jasoz edo lurrak erosituz; aholkularitza zerbitzua eskaintzea; hitzaldiak eta auzolanak antolatzea; Udalarekin elkarlana bultzatzea; eta proiektu pedagogiko eta hezitzaileak garatzea.

Interesa duten herritarren zantzak eta eragileentzat atak "parez pare" dituzte zabalik Kukubasoko elkarteak, posta elektronikoz (kukubasoelkartea@gmail.com) edota sare sozialen bidez: Telegram, Twitter eta Facebook kontuak dituzte.



Kiko Alvarez, Aitziber Sarobe eta Aihoa Agirrebeña, aurkezpenean. JOKIN BEREZIARTUA

Zein da bertako basoaren egoera?



AITZIBER SAROBE NATURKON TALDE EKOLOGISTAKO KIDEA

"Gizartearen bultzada behar dugu jabeak konbentzitzeko"

"Onartu ezin diren hainbat kalte egiten ari gara; larriena, Lurrari egiten ari garen kaltea. Lurzorua gure balio natural handiena da, oso geldo sortzen dena. Urte gutxian, tonak eta tonak ari gara gure maldetan behera bidaltzen, erreketatik itsasora. Lurzorua kaltetean, beste guztia kaltetzen dugu. Hala ere, itxaropenik ez dugu galduko. Askok aldatu behar dira gauzak; gizartearen bultzada behar dugu jabeak konbentzitzeko. Administrazioak saritu beharko litzuzke guztion intereserako jabeak egiten dituzten hautuak".



IÑAKI MADINABEITIA KUKUBASO ELKARTEKO KIDEA

"Okerrera ezin, hobetzea besterik ez zaigu geratzen"

"Bergarako basoaren %60 baino gehiago koniferen landaketez josita dago; gure lurrak makal eta bioaniztasunik ez apenas. Sentsibiltatea asko aldatu da, eskerrak; jendea kezkatuta dago eta ilusioz ekiten diogu bide berri honi. Bada garaia egoerari irtenbide bat emateko, gure herriko lurrak beste era batera tratatu behar ditugu. Okerrera egiteko apenas dago marjinarik; beraz, hemendik aurrera egoera hobetzea besterik ez zaigu geratzen. Askotariko jendea gaude, lanerako gogotsu".

GORA ETA BEHERA



Esker ona, gaitza bistaratzen laguntzeagatik

Udalari eta K3 enpresari esker ona adierazi diote fibromialgia duen Manuel de Dios bergararrak eta haren emazte Itxaso Torresek, pankarta udaletxean jarri eta gaitza bistaratzen laguntzeagatik. Bizi Bide elkarte ere txalotu nahi dute, gaitza dutenekin egiten duten lanagatik.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo [688 69 00 07](tel:688690007).



I.T.

Bergara Loratzen: ekainaren 4ra arte eman daiteke izena

Bi helburu ditu Bergara Loratzen lehiaketak: balkoiak eta leihoak zaintzen eta apaintzen jarraitzea edo ohitura hori berreskuratzea eta apaintketak ingurugiroari eta herriaren itxurari ekartzen dizkion onurei balioa ematea; naturari keinu bat egitea, hain zuzen. Honako irizpide hauek baloratuko dira: originaltasuna, apaintketaren kalitatea, loreen

iraunkortasuna eta diseinu floristikoa. Horrez gain, egitura moduan berrerabilitako materiala erabiltzea ere baloratuko da. Sari banaketa ekitaldia Oxi-rondoko azokan egingo da, ekainaren 16an (19:00).

Izena emateko, eranskina bete eta Udal Liburutegian aurkeztu beharko da ekainaren 4rako. Sariak herrian trukatzeko bonutan emango dira: lehen saria, 400 euro; bigarren saria, 200 euro; eta hirugarren saria, zozketa bidezkoa, 100 euro.



ARIZNOA GIMNASIA ERRITMIKO TALDEA

Gipuzkoako garaile gazte mailan

Etenaldi luze baten ostean, maiatzaren 16an bueltatu zen lehiara Ariznoa gimnasia erritmiko taldea, Tolosan. Lorpen handiena izan zen gazte mailan Miren Legorburuk, Naia Aranguren, Lierni Azkaratek eta Itziar Alberdik osatutako taldeak Gipuzkoako talde onena izatea lortu zuela. Lau gimnasta horiek Euskadiko Txapelketan lehiatuko dira, Durangon, ekainaren 20an.



Munibe plazan egin zuten 50. urteurrena iragartzeko prentsa agerraldia, martitzen arratsaldean. ION ANDUEZA

50 urte gehiago egiteko "ilusioz gainezka" daude

Aranzadi ikastolak ekainaren 19an beteko du mende erdia, eta orduan hasiko dira urteurrena gogora ekartzeko ospakizunak; betiere, pandemiara egokituta. Gaur egun, 736 ikaslek, 437 familiak eta 70 bat irakasleek osatzen dute ikastetxeko komunitatea

Jokin Bereziartua BERGARA

Ekainean beteko du mende erdia Aranzadi ikastolak. Egungo zuzendari Agurtzane Loidiren arabera, "osasuntsu" dago ikastetxea, eta etorriko diren gainerako urteei ekiteko "ilusioz gainezka" daude komunitateko kideak. Ekainaren 19a izango da urteurrenaren eguna, baina, zuzendariak aurreratu duenez, irailetik aurrera ere hainbat ekintza egingo dituzte; betiere, egoera epidemiologikora egokituta.

Urteurrena, birusak baldintzatuta

Aranzadiko irakasle, guraso eta ikasleak 2019an hasi ziren ikastolaren urteurrenari begira lanean, baina, COVID-19ak behar-

tuta, asmoak aldatu egin behar izan zituzten. "Osasun baldintzek ez ziguten nahi beste gauza antolatzen uzten", dio Loidik. Hala, planteamenduari "beste buelta bat" eman behar izan diote, eta, besteak beste, online denda bat jarri dute -www.serigrafia.eus webgunean-, urteurrenaren bueltan ateratako arropa eta osagarriak zein material didaktikoa saltzeko: "Maiatzaren 30era arte egongo da zabalik, eta asmoa da bailarari eta herriari 50 urte bete ditugula ezagutzera ematea".

736 ikasle eta 70 bat irakasle

Gaur egun, 0 eta 18 urte bitarteko 736 ikasle, 437 familia eta 70 irakasle inguru batzen ditu

Aranzadi ikastolak. Eta, hasieratik ikasle asko izan badituzte ere, ikastolaren sortzaile eta hasierako irakasle ohi Lupe Olabarriaren arabera, bidea ez zen erraza izan: "Lan mordoa egiten genuen; gelak oso txikiak ziren eta ume asko genituen". Beti gustura jardun duela dio, baina ez ditu sasoi gogorak ahaztu: "Ez genuen dirurik, baina gazteak ginen eta ilusioa barra-barra genuen. Eskubide gutxi izaten genituen garai haietan, eta betebeharrak asko, eta lan asko egitera ohituta geunden. Gogoan dut ikastolarako lan egin ostean taberna jartzeko nuela diru apur bat ateratzeko. Askok aldatu dira gauzak...".

1971n sortu, 1975ean legalizatu Olabarria eta Loidiren ilusioarekin bat egiten du Elena Laka presidente ohiak ere. "Komunitateak sortutako ikastetxea da hau; denen partaidetzarekin eraiki den eskola eta hezkuntza-sistema", dio, harrotasunez. Lakak gaineratu duenez, oraindik ere lanean jarraitzeko gogo dago, berrikuntzak egiten jarraitzeko gogo: "Pozgarria da horrelako proiektu batek etorkizuna daukala ikustea".

Aranzadi sortu aurretik, frankismo betean, euskarazko eskolak eskaintzen zituzten bi akademia zeuden Bergaran: Koldo Eleizalde akademia, Komenio kalean, eta San Martin de Agirre, Bidekurutzetan. Ikastolaren lehen urrats haiek gogora ekarri dituzte urteurrenako antolatzaileek: "Esan daiteke bi eskola haiek izan zirela Aranzadiren aitzindariak, Mizpildin zegoen Santa Infancia ikastetxe elebidunarekin bat egitean sortu zen-eta ikastola, 1971ko ekainean. Ikasleen guraso talde batek indarrak batzeko beharra ikusi zuen, eta bategiterako lehen pausoak ematen hasi ziren, Ikastolen Federazioaren aholkuei jarraituz". 1971n sortu bai, baina 1975era arte ikastola ez zen legala izan: "Domingotarrek eta erakunde ofizialetan ondo ikusia zegoen maisu batek egindako bitartekari lanari esker, behin betiko legalizazioa lortu genuen 1975eko uztailaren 10ean. Orduetik, ikastolak Telesforo Aranzadi antropologo bergararraren izena daroa ofizialki. Hasiera hartan, lehendabiziko sei kurtsuak jarri genituen martxan; guztira, 24 gela. 328 ikasle ziren orduan, eta lehen pausoak emateko garrantzi handia izan zuen andereño hasiberrien grinak".

Simon Arrieta sariketa: parte hartzeko azken eguna, maiatzaren 24a

Jaietako klasiko bat den sariketaren 41. aldia antolatu du Beartek, Udalaren laguntzarekin. Hiru multzo egongo dira: 7 urtera artekoak, 8-10 urte artekoak eta 11-14 urte artekoak. Marrazkiak edo pinturak aurkeztu ahaliko dira, eta gaiak jaiekin edo ez-jaiekin lotura izan behar dute. Lana etxean egin ostean, argazki bat atera eta beartelkartea@gmail.com helbidera bidali behar da, egilearen izenarekin, adinarekin eta telefono zenbakiarekin batera. Astelehenerako, hilak 24, aurkeztu behar dira lanak; irabazleak hilaren 25ean jakinaraziko dituzte. Talde bakoitzeko bi sari banatuko ditu Beartek aukeraturako epaimahaia.

Musika eta Dantza Eskola: ikasturte amaierako emanaldiak

Bergarako Musika eta Dantza Eskolak ikasturte amaierako emanaldien berri eman du: maiatzaren 27an, helduen kontzertua Mariaren Lagundiko elizan (18:30); ekainaren 3an, Ahotsak Batuz kontzertua eskainiko dute eskolako umeen abesbatzak eta orfeo gazteak, Santa Marina elizan (19:00); ekainaren 15ean, trikiti, pandero eta perkusio taldeen kontzertua, Seminarixoan (18:30); ekainaren 16an eta 17an, Antzuolako ikasleen kontzertuak, Torresoroan (18:00); ekainaren 18rako, dantzaz beteriko gaua antolatu dute San Martin plazan (20:00); eta, amaitzeko, diplomatuaren kontzertua egingo dute Mariaren Lagundiko elizan (18:30).

Batzokia
Jatetxea

San Pedro 4 Bergara • Tel.: 943 25 37 04

Artisau-izozki naturalak etxera eramateko. Zapora asko dastatu eta gozatzeko
Aukeratu zurea!
500 ml 8€

Lehiatzen hasi eta lehen urtean, txapeldunorde

Duela bi aste Seguran jokotutako txirrindularitza proban Gipuzkoako txapeldunorde izan zen Olatz Gabilondo bergararra, elite mailan, 23 urtez azpiko kategorian. Lehen urtea du lehiaketetan, eta dio "sorpresaz" harrapatu zuela egindako lorpenak

Jokin Bereziartua BERGARA

Maiatzaren 9an Seguran egin-dako lasterketara "proba amaitzera" eta "ikastera" joan zela dio Lokatza Ziklismo Eskolako txirrindulariak, nahiz eta "espero barik" bigarren postua eskuratu zuen azkenerako; eta, horrenbestez, Gipuzkoako txapeldunorde izan zen elite mailan, 23 urtez azpiko kategorian: "Hasieran ez nekien Gipuzkoako txapelak jokoan zeudenik, eta sorpresa handia hartu nuen".

82 kilometroko ibilbidea egin zuen txirrindulariak: "Irten ginenean euria hasi zuen, eta euriarekin lehiatzen nintzen lehen aldia izan zen". Zegama aldera joan zen, lehenik eta behin, tropela, eta taldea "zabalduz" joan zela azaldu du. Aldapan gora zihoazela, abiadura handitu egin zuten txirrindulari batzuek, "eta atzera samar geratu nintzen". Gero, baina, atzetik zetorren taldera batu ahal izan zen Gabilondo, eta, azkenerako, bigarren helmugaratu zen: "Zirkuituari lau bira eman genizkion lasterketan, eta, beraz, zaila egin zitzaigun norberaren sailkapenaren berri jakitea. Hirugarren biran klubeko kide batek esan zidan sailkapenaren bigarren nindoa-la, eta izugarri harritu ninduen". Gabilondorentzat "sorpresa handia" izan zen lorpen hura: "Pozik eta ilusioz hartu nuen".

Lehen urtea lehiatzen

Unibertsitateko ikasketak egiten dihardu bergararrak, eta, horretan hasi aurretik bizikletan zertxobait ibiltzen bazen ere, azkenerako, txirrindularitza alde batera uztea erabaki zuen. "Aurten, hala ere, berrekitea pentsatu dut, baita lehiatzen hastea ere. Hori horrela, esan daiteke aurten hasi naizela txirrindularitzan, eta 21 urterekin hastea ez da batere ohikoa izateko", adierazi du.



Olatz Gabilondo txirrindularia, Segurako proban. ANGEL ELORZA

"KLUBEKO BATEK ESAN ZIDAN BIGARREN NINDOALA; ETA IZUGARRI HARRITU NINDUEN"

Adaptazio fasean dago egun Gabilondo: "Unibertsitatea eta txirrindularitza uztartzen ditut orain. Entrenamendu nahiko gogorak egiten ari naiz, eta, batzuetan, gogorra egiten zait, baina gustura egiten dudana zerbait da". Gaineratu duenez, batez ere, lasterketetan "maila" eman ahal izateko ari da ahal bezain gogor entrenatzen. "Hasierako fase honetan, ilusioa, gogoia eta esfortzua elementu gakoak dira, eta horiek ez zaizkit falta", dio. Elikadura ohiturari buruz galdetuta, aitortu du "betidanik" egin duela elikadura osasuntsuaren aldeko apustua.

Koronabirusa, oztopo

Denboraldia hastear zegoela konfinatuta egon behar izan zuen txirrindulariak, eta, beraz, martxo inguruan lehiatu zen estreinakoz bizikleta gainean:

"Lehen lasterketan, beraz, ezin izan nintzen egon. Hori gutxi balitz, bigarrenaren ere ezin izan nuen parte hartu, protokoloari jarraiki". Entrenamenduak arrabilean egin behar izan zituen garai hartan, eta hori ez zitzaion erosoegia egin. "Gauzak horrela, hiruzpalau lasterketetan soilik hartu dut parte txirrindularitzan hasi nintzenetik", esan du.

Pixkanaka, "erritmoa hartzen"

"Lehen lasterketa egin nuenetik orain arte sumatu dut asko ikasi dudala, nahiz eta oraindik proba gutxitan parte hartu dudana", onartu du. Poliki-poliki "erritmoa hartuz" doala dio: "Eta, batez ere, ikasten ari naiz". Besteak beste, bizikleta gainean aritzeko gakoan artean dago tropelean "nola kokatu" jakitea, haren ustez: "Horri ere neurria hartzen ari natzaio".

Denboraldia amaitu artean lehiatzen ikasi gura duela dio, baita hori eginez disfrutatzea ere. Hurrengo proba asteburu honetan izango du, Lizarran: "Gazte mailako mutilekin arituko naiz, punturik ez lortu arren, esperientziak gozatu guran".

"Aurten asko hobetu dugu, harro egon behar dugu denboraldiaz"

JOSE JAVIER BARKERO BKE-KO ENTRENATZAILEA
Añorgaren aurka galdu ostean, agur igoeraren ametsari

J.B. BERGARA

Asteburuan, Hirugarren Mailarako ametsa zapuztu berri zela, Jose Javier Barkerok GOIENARI esan zion harro dagoela bere mutilek egin duten denboraldiaz. **180 minutu izan dira. Bergara baino gehiago izan da Añorga kanporaketa osoa aintzat hartuta?**

Uste dut indarrak oso parekatuta egon direla. Añorgan jokotutako partiduen lehen zatia oso ona izan zen, baina gola egin ziguten. Gero, aurretik jarri ginen, eta, partidua ondo kontrolatuta genuela uste genuenean, binakoa heldu zen; horrek min handia egin zigun, eta azken minutuan jaso genuen 3-2koa. Agorrosinen ez genuen gure partidurik onena egin, eta Añorgak jakin zuen bere lana egiten. Halakoetan, aurkaria zoriondu besterik ez da geratzen.

Lehen zatiko aukerak aprobetxatu eta gola egin izan bazenute...

Beste partidu bat ikusiko genuen. Aukerak izan bai, baina ez dugu golik egin; pena izan da.

Zelai kanpotik izan bada ere, igarri duzue zale batzuen berotasuna.

Igarri dugu, bai. Lastima da garaipena eskaintzerik ez izatea... Baina ikusi dute Bergarako lehen



Barkero, domekan, Agorrosinen. J. IRIONDO

taldea oso bizirik dagoela, gauzak ondo egiten dituela.

Pozik egindako denboraldiaz?

Iaz oso gaizki pasatu genuen eta aurten asko hobetu dugu, esperientzia hartu du taldeak. Harro egon behar dugu egin dugun lanaz. Hiru partidu geratzen zaizkigu, eta ahalik eta ondoen geratzen saiatuko gara. Balio dezatela denboraldia ondo bukatzeko eta hurrengo denboraldira begira prestaketa ahalik eta ondoen egiteko. Taldeak ahalik eta indartsuen egon behar du datorren denboraldira begira.

OHARRAK

'Trans-formatzen' dokumentala Seminarixoan

Maiatzaren 27an izango da, 19:00etan. Ostean, Naizen elkarteak kide batekin hizketaldia; edukiera librea, aretoa bete arte.

Euskal presoaren aldeko elkarretaratzea

Izan Bidea ekimenaren barruan; gaur, San Martin plazan (19:30). Maiatzaren 30erako, bizikleta martxa antolatu dute, Oñatitik Elgoibarrera, eta hamaiketako Bergaran egingo dute.

Ereindajan topagunearen batzar orokorra

Maiatzaren 26an, UNEDen (18:00). Izena eman beharra dago aurrez: bergara@ereindajan.eus edo 681 66 08 63.

Hondarrezko eskulturen tailerra hilaren 24an

7 urtetik gorakoendako da. Usondon egingo da; euria bada, Boluko frontoian. Udalaren webgunean eman daiteke izena.

Udaltzaingoa lan-poltsarako zerrenda, gertu

Aldi baterako premiei erantzuneko dien lan-poltsaren barruan argitaratu dute onartuen eta baztertuen zerrenda. Onartutakoek derrigorrezkoa den bigarren hizkuntza eskakizuna ziurtatzeko azterketa egingo dute gaur, hilak 21, UNEDen (10:30).

Komunikazio udaleku irekiak. 2021



- **Euskara** hutsean.
- Komunikazioaren mundura hurbiltzeko modu **kritiko, praktiko eta dibertigarrian**. Besteak beste, landuko dira: kamera aurrean nola jarri, fotokazetaritza, youtuber izateko gakoak, podcastak nola egin, benetako albisteak eta faltsuak nola identifikatu...
- Mondragon Unibertsitateko irakasleekin eta Goienako **profesionalekin**.
- Gainera, landuko diren gaietan ezagunak direnek emango dituzte master-eskolak:
Aiora Mujika @probatxoa youtuberra.
Ainhoa Vitoria komunikatzaile eta Gazteako irrati esataria.
Xabier Urzelai Goiena Komunikazio Taldeko kazetaritza-argazkigintzan aditua.

Anima zaitetz eta eman izena!



Noiz:

- Lehen txanda, uztailaren 5etik 9ra.
- Bigarren txanda, uztailaren 12tik 16ra.
- Astelehenetik ostiralera, goizez.

Non:

Mondragon Unibertsitateko
Komunikazio Campusean, Aretxabaletan.

Orduetgia:

09:00-13:30.

Norendako:

DBH-4ko eta batxilergoko 1. mailako gazteak.

Izen ematea:

Maiatzaren 3tik ekainaren 18ra.

Prezioa:

125 euro.

Izena emateko:

www.goiena.eus/bereziak/udalekuak

Informazio gehiago:



600 04 66 89



komunikazioudalekuak@gmail.com

ANTOLATZAILEAK:



Mondragon
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

goiena[“]
KOMUNIKAZIO TALDEA

Maidar Arregi ANTZUOLA

Kalebarrengo Altzarte inguruko paisaia goitik behera aldatu da maiatzean. Garabiek hil honen hasieran hasi dituzte historiaz eta memoriaz beteriko errotaren eta haren inguruaren eraisketa lanak. Izan ere, asmoa da etxebizitzak eraikitzea Altzarten; errota eta okindegia zeuden lekuan, hain justu ere.

Antzuolan, errotaren batek historian zehar uholdeen eraginik jasan izan baldin badu, hori Altzarte edo Errotaberri izenez ezaguna den errota da. Hala ere, zutik mantentzea lortu du orain arte, nahiz eta gaur egun galdua zuen garai bateko indarra.

"Bere lehen aipamen historiakoak 1573 eta 1586 bitartekoak dira; hau da, Sebastian Lopez Ozaetak erosi omen zuen garaiak. Errota hau Bidebarrieta izeneko lur eremuan kokatua dago, zehazki. Errotaberri bezala, aldiz, 1720an azaltzen da lehendabizikoz dokumentuetan". Hori du jasota Iñigo Ramirez de Okariz historialariak *Irinmodo* historia blogean.

Nostalgiaz gogoratzen dute antzuolarrek Altzarte inguruan bizitakoak eta bertako okindegian izandako solasaldiak. Errotaberriko seme Xabier Azkaratek ondorengo agurra eta gogoeta egin dio bizileku izan duen tokiari, sare sozialen bitartez: "Bere momentuan ezin izan nintzan behar bezala agurtu, eta gaur zure paretak jausten ikustean, barrua mugiarazi dit, eta min handia sentidu dut nire barruan. Lehenengo, familia etorri zait burura; amama, aitona, osaba Luis, ama, aita, Belen eta Amagoia. Zenbat poz, haserre, zarata, isiltasun, maitasun, bizipen... bizi izan ditudan bertan eta zenbat ikasketa jaso...



Garabia Errotaberriko eraikina eraisten. MAIDER ARREGI

Errotaberrik ezin izan du azken uholdea gainditu

Errota eta okindegia soila izatetik haragoko bizia izan du Errotaberrik. Antzuolarren elkargune ere izan da urte askoan bertako okindegia. Historiaz eta memoriaz beteriko hormak, ordea, betirako eraitsi berri dituzte garabiek, etxebizitza berriak egiteko

Errotaberriko errota gogoan

Garai batean, Antzuola erreka eta Lizarraga erreka urak hartzen zituen errotak. Uholdeen eragina jasan zuen, ordea, 1834an eta 1988an. Nahiz eta 1994an berriro martxan jarri, azken uholde hark kalte handia eragin zion, eta ospea galduz joan zen pixkanaka.

Irinmodo blogeko argazkian, Kruz Azkarate Errotaberriko errotaria agertzen da.



Kruz Azkarate errotaria. IRINMODO

Eta nola ez, bertan bizitako istorio asko buruan bueltaka. Bizipen oso onak eta baita oso txarrak ere. Txarretatik gauza onak atera, eta beste dena, paretakin batera bertan lagatzea da onena. [...] Zenbat irudi ahaztuta nituela uste nituenak: irinez goitik behera aitona eta osaba Luis labeen lanean, amama sukaldian. [...] Presako amuarriak etxe ostean harrapatzen...".

Azkaratek gogorazi du Errotaberrik beti izan dituela atek herritar guztiendako "zabalik" eta horrela bizi izan dituela "bizitzako urte gehienak". Antzuolako jaietan aterpetxea

zirudiela ere aitortu du: "Ganbaratik edozein jaisten zen, eta obratzaile parean zenbat jende kruasanak jaten goizetan! Erreza ez zen arren, beti eskertuko dut denok etxean egon izana. Ama eta aita bertan lanean –bai Belen, baita zu ere–; gertutasun hori ez dago pagatzerik. Gauza gehiago idatziko nituzke, baina idazten hasten naizenean emozioek gain hartzen naute. Ni Errotaberrikoa sentitzen naiz eta beti sentiduko naiz; hemendik aurrera paretak horien birtartez bada ere".

San Bartolome, zutik

San Bartolome ermitaren arrastorik ez dagoen arren, jatorrizko kanpandorreak, aldiz, bertan segitzen du. "1980ko hamarkadaren hasieran bota zuten. Egoera kaskarrean zegoen. XX. mendearren hasieran, herritarrak saiatu ziren zaintza-lanak egiten. Bereziki, Kalebarrengo bizilagunak. 1975ean, maristak herritik joan ostean, eta auzo berri bat eraikitzeke garaian, ermita botatzea erabaki zen", dio Iñigo Ramirez de Okarizek *Irinmodo* blogean. Barruan zeuden irudiak ez dira galdu. San Bartolome eta Andra Maria Antzuolako parrokian daude.

Hain zuzen ere, Altzarten jarraitzen duen kanpandorreak harrizko gorputza dauka eta egoera onean dago. San Bartolome egunean, abuztuaren 24an, bakarrik jotzen dute kanpaia, bi bider.

NOSTALGIAZ ETA EMOZIOZ GOGORATU DU ERROTABERRIN BIZITAKOA XABIER AZKARATEK

Ezohiko San Isidro azoka

Ez da ohiko San Isidro feriarik izan Antzuolan; ganadurik gabe eta herriko ekoizle eta artisauekin soilik. Hamarren bat postu izan dira, baina kaleari eta zapatu goizari beste itxura bat emateko adina. Askotariko postuak izan dira: gazta zein gozo salmenta, zumitz eta txotxongilo egileen postua, janzteko osagarriena... Kolorez jantzi dute erdigunea.



IMANOL SORIANO

MUJKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

la lau hamarkada odol-ateratzeak bideratzen

Gipuzkoako odol-emaileen elkartearen bitartez antolatuta, urtean bi aldiz egiten dira odol-ateratzeak Elgetan. 39 urte dira ekimena martxan dela, eta laster hartuko dute erreleboa hainbeste urtean ardura hori izan duten herriko boluntarioek

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Kontabilitate-koaderno txiki bat dute ondo gordeta Mariasun Agirrek eta Karmen Ojanguren. Bertan jasota dagoenez, 1982ko maiatzaren 16an abiatu ziren odol-ateratzeak Elgetan. "Odola ematera Bergarara jaisten zen herritar batek egin zigun proposamena orduko Ozkarbi elkarteko kultura saileko ordezkarioi. Uste zuen interesgarria izan zitekeela Elgetan ere odol-ateratzeak egitea, eta ontzat eman genuen. Bergarara jaitsi, Donostiako arduradunekin harremanetan jarri eta hitzaldi bat antolatu genuen". Orduetik, urtean birritan egin dira odol-ateratzeak herrian. Mariasun Agirrek eta Karmen Ojanguren egin dituzte delegatu lanak. Biek dute gogoan hasiera batean medikuaren kontsultan egiten zirela odol-ateratzeak. "Elgetarrek beti erantzun dute oso ondo, eta kontsulta txiki gelditu zen. Orduan hasi ginen odol-ateratzeak udaletxean egiten".

Teknologia berriek asko arindu dute boluntarioen lana, baina hasieran fitxa bat zegoen odol-emaile bakoitzeko, eta idatziz betetzen ziren. "Hori zen gure lanetako bat", azaltzen du Ojanguren. Laguntzaile gehiago ere izan dituzte urteotan.



Mariasun Agirre eta Carmen Ojanguren. L.Z.L.

"ODOLA, ORAINGOZ, EZIN DA INON FABRIKATU, ETA GARRANTZITSUA DA EMAILEAK EGOTEA"

Gaur egun lanak dira Gipuzkoako arduradunekin kontaktua mantentzea, odol-ateratze egunetan espazioa gertu edukitzea eta odol-emaileendako askari txiki bat prestatzea. "Urtean hiru bilera izaten dira. Gero,

egia da pandemia dela-eta ez gairela azken saioetan egon".

Lekukoa uzteko unea

Agirrerri eta Ojanguren heldu zaie, baina, lekukoa pasatzeko unea. Ozkarbi elkarteko zuzendaritzako kideek mahai gainean dute kontua. Bi boluntarioak pozik dira urteotan guztietan elgetarrendik jasotako erantzunarekin. "Baremo batzuk daude, eta Elgetak datu oso onak izan ditu beti. Aurten ere bi elgetarrek jasoko dute elkarteak ematen duen diploma berezia".

Mendian gertatutako heriotzak hizpide domekan Espaloian

Iñaki Peña medikuak 'Mendian hil hirian hil' ikus-entzunezkoa aurkeztuko du, 18:30ean

L.Z.L. ELGETA

Testigantzetan oinarritutako dokumentala egin du Debagoieneko Ospitaleko zainketa aringarrietako medikua Iñaki Peñak. Heriotza eta dolua ditu hizpide, eta mendian gertatutako heriotzetan jarri du fokua. "Bat-bateko heriotzak izaten dira, traumatikoak, eta jende gaztea izaten da. Dolu horiek bereziak dira", azaldu du. Felipe Uriartek, Juanjo San Sebastianek, Mikel Crespo aretxabaletarraren senitartekoez eta Andoni Ormazabalak eman dute lekukotza. Doluan aditu Izaskun Andonegik gaineratu du marko teorikoa. Lanak euskarazko film onenaren saria eskuratu zuen Mendi Film Festival-en, eta Elgetako Udalak Kantsatzeko Mendi Taldearekin elkarlanean antolatutako emanaldia da. Sarrera doan da, eta ez da aurrez erreserba-



Ikus-entzunezkoa grabatzen. ARTEMAN

rik egin beharko. 18:00etan zabalduko dute aretoa, eta 80 lagunendako lekua dago. Atzo ezker, bestalde, zabalik da Mikel Alonsoren argazkiekin egindako *Karakorum* erakusketa zeramika gelan. Domekara arte egongo da ikusgai.



Lorenzo Askasibar. M.A.E.

Lorenzo Askasibar elgetarraren lanari aitortza egin diote

Atzo aurkeztu zuten, Bilboko Berreginen Museoan, Lorenzo Askasibar eskultore elgetarraren gaineko liburua, eta hilaren 28an zabalduko dute haren lanak oinarri dituen erakusketa, Bergarako Aroztegi aretoan. Hainbat omenaldi jasoko ditu hurrengo egunotan, besteak beste, Bergaran eta Gasteizen. Elgetan ekainaren 9an izango da, Espaloian. (Ikus 48. orria).

Familiendako elikadura eskola ekainaren 2an

Ereindajan-ek guraso elkartearrekin antolatuta, eskola jantokiak, elikadura ereduak eta eskualdeko jantoki proiektu berria izango dira hizpide, bidezko elikadura erakundeko Eneko Viñuelak gidatutako saioan. 3 eta 12 urte artekoendako txiki-gune hezigarria egongo da. 18:30ean hasiko da. Interesatuak eskolan eman behar dute izena.

OHARRAK

Ipuinen ordua gaur

Ipuinak, 17:20an, LH-3ko, LH-4ko eta LH-5eko umeendako, liburutegian. Lekua mugatua denez, komeni da aurrez izena ematea.

Plastiko bilteta

Baserriko plastikoak biltzeko zerbitzua emango du Mankomunitateak martitzenean. Ekainean ez da egongo. Eskararak: 943 76 25 47.

Odol premia dela eta, etenik ez

Pandemia egoera ez da odol-ateratzeak bertan behera uzteko aitzakia izan, eta, osasun neurriak hartuta bada ere, odol-emaileen unitateak ohiko bisitak egin ditu Elgetara. Herritarren parte hartzea nabarmendu dute. Azken saioan 40 lagunetik gora gerturatu ziren odola ematera, eta biztanle kopurua kontuan hartuta datu oso ona dela esan dute.



Pandemia dela eta, odol-ateratzeak gimnasioan egiten dira orain. L.Z.L.

Kolunbarioak jarriko dituzte kanposantuan

Hilerriaren alde berrienean jarriko dituzte eta erabilgarri egongo dira hilabete barru. Bitartean, Udala ordenantza prestatzen ari da erabilerak eta ordainketak zehazteko. Oñatin oraindik ohitura handiagoa dago gorpua lurperatzeko errausteko baino

Oihana Elortza OÑATI

Kolunbarioak jarriko dituzte laster hilerrian. Hornitze-lanak egiten hastera doaz eta hilabete barru erabilgarri egongo dira herritarrendako. Herritarren eskaera baino gehiago, Udalaren ideia izan da zerbitzu hori jartzeko.

64 kolunbario

Udalak propio hartutako erabakia izan da kolunbarioak jartzeko, ikusita hilobi kopurua mugara heltzen ari zela. "Udalak izaten ditu hilobiak saltzeko edo beharra dutenei eskaintzeko, baina, egun, lau bakarrik ditugu. Gainera, garaiak ere aldatzen ari dira, herri askotan badituzte dagoeneko, eta erabiltzen dira, errausketaren alde egiten dute eta askok. Oñatin ez zegoen zerbitzu hori lehen, eta martxan jarri dugu orain", arrazoitu du erabakia alkateak, Izaro Elorzak.

Kolunbarioak hilerriaren alde berrienean jarriko dituzte. Hasiera batean, 64 jarriko dituzte, baina badute beste espazio bat, gertu beharra ikusiz gero erabiltzeko; hala, beste 80 bat sartuko lirake bigarren espazio horretan.

Hilobien kopuruari lotuta, Udalarenak diren salmenta etetea erabaki zuten, aho batez, martxoko osoko bilkuran. "Hilobi asko 75 urterako esleitu dira, eta asko epe horretara helduta edo heltzearekin egongo dira. Pentsatu beharko dugu horiekin ere zer egin, eguneratu edo gorpua atera gura dituzten jakin", dio Elorzak. Horrekin batera, kolunbarioen erabileraren ordenantza lantzen hasita daude dagoeneko Udalean. Hor zehaztuko dituzte eskaerak nola egin behar diren, zenbat denborarako izendatuko dituzten eta zenbat ordaindu beharko den. "Ordaindu egin beharko dira, baina nahiko kopuru sinbolikoa jartzea ari gara pentsatzen. Hori bai, gero, urteko mantentze-tasak



Eguzen goizean Oñatiko hilerrian ateratako argazkia. O.E.

UDALAK LAU HILOBI DITU EGUN ETA HORIEN SALMENTA ETETEA ONARTU DUTE AHO BATEZ

ordaindu beharko dituzte, gainerako zerbitzuetako tasak bezala. Iraupenari dagokionez, hamar urterako izatea dugu buruan, baina ordenantzan zehaztuko dugu", dio alkateak.

Gehienak, lurperatu

Oñatiko hilerrian panteoi asko daude eta familiek hortxe lurperatzen dituzte euren senideak; errausken potoa ere panteoian gordetzen dute. "Oñati oso herri berezia da, alde horretatik. Familiako panteoietan lurperatzen dituzte, normala den moduan. Hala ere, oraindik, lurperatzeko ohitura gailentzen da hemen. Ondoko herriekin konparatuta, besteetan gero eta ohikoagoa da gorpua erraustea, baina Oñatin oraindik ez; hemen oraindik gorpua lurperatu egiten dira. Sei bat urte daramatzat lanean herriko ehorztetxeetan eta hiru

bat errausketa baino ez zaizkit tokatu parean", dio Eguzkilore, Moyua eta Oroilore ehorztetxeetan lan egiten duen Mario de la Torrek. Eta gaineratu: "Kolunbarioena zerbitzu ona da, baina Oñatin, agian, denbora pasa beharko da horien erabilera normala izateko, lurperatzearen ohitura oso errotuta dago". Hiletekin ere gauza bera gertatzen dela gaineratu du: "Apenas egiten dira hileta zibilak, erlijiosoak dira gehienak".

Jende asko ibiltzen da

Mikel Ruiz arduratzen da hilerria mantentzeaz, eta, haren esanetan, jende asko joaten da kanposantura. "Jende asko dago egunero edo sarri etortzen dena: landareak ureztatzea, lehorrak kendu eta berriak jartzera, erreztatzea... Askok euren panteoia edo hilobia txukuntzera etortzen dira, eta, egia esan, formal ibiltzen dira, inguruak ere txukun uzten dituzte". Kanposantuaren mantentzeaz gain, hileta egunetan gorpua lurperatzen edo dagokion tokian sartzen laguntzen ere ibiltzen da Ruiz. 1875eko da egungo udal hilerria.



San Martin auzoko hariztia. O.E.

San Martingo hariztian hobetze lanak egitea eskatu du EAJK

Oinezkoen bidea konpontzea eta parkearen azterketa egitea gura du, "mantentzeko beharrak identifikatzeko"

O.E. OÑATI

EAJko udal taldeak beharrezkoa ikusten du San Martingo hariztiaren azterketa egitea eta oinezkoen hango bidea birgaitzea, eta eskari hori EH Bilduren Udal Gobernuari egin diola adierazi du, prentsa ohar bidez. Oinezkoen egungo bidea egoera txarrean dagoela diote oharrean jeltzaleek, "iraganezina" dela, eta, ondorioz, herritarrak belarretan ibiltzen direla. "Eguraldi onarekin eta oinezko mugimendua gutxiarekin, ez dago arazo handirik; baina San Martin auzo berria eta autokarabanan parkearen ingurua direla eta, eremuko zirkulazioa nabarmen handitu da. Ondorioz, jende gehiago pasatzen da parkeko belarditik, eta horrek belarra altxatzea, lokatza agertzea, lurra trinkotzea eta, are gehiago, landare-estalkiko lurzoru emankorra eramaten duten errekatxo

txikiak sortzea eragin du, eta zuhaitzen sustraiak agerian utzi. Laburbilduz, horrek guztiak lurreko landare-estalki hori higatzea eragiten du, eta zuhaitzen aireko eta lurpeko aldearen arteko oreka hautsi", dio oharrean udal taldeko Ingurumen zinegotzi Andoni Altunak.

Hariztiaren azterketa egitea ere eskatu dute jeltzaleek, eta azterketa horren emaitzarekin parkea egoera onean mantentzeko egin beharreko ekintzak identifikatu ahal izango direla gaineratu. Eskaera horiek 2021eko udal aurrekontuetarako proposatu zituen alderdi jeltzaleak, baina ez ziren onartu. Orain, lan horiek egiteko udal gerakina erabiltzea proposatzen dute jeltzaleek, "herritarrentzat aparteko kosturik eragin gabe.

Azterketa herriko beste udal parkeen inguruan egitea ere eskatu dute jeltzaleek.

Oñatiko eta inguruko historiaurreaz arituko da Arrizabalaga

Bailarako arbasoak. Deba Goiena historiaurrean izeneko hitzaldia egingo du datorren astean Alvaro Arrizabalaga oñatiarrak. Oñatiko Udalaren eta EHUko Historiaurreko Ikerketa Taldearen arteko hitzarmenean sartzen da hitzaldia, eta historiaurreaz eta paleontologiaren mintzatuko da. Eguaztenean izango da, 18:30ean, kultura etxean.

Urte asko daramatza Alvaro Arrizabalagak Euskal Herriko historiaurrea lantzen, eta ikerketa eta indusketa askotan parte hartu du. Azkenetakoa, Izurtitzen; duela 30.000 urte inguruko mamuten, beste hainbat animalien eta tresnen arrastoak aurkitu dituzte. Arrizabalagak zuzendu duen taldean Asier Erostarbe oñatiarra ibili da.

Eguazteneko hitzaldian, bertako historiaurreari buruz jardungo du Arrizabalagak, Oñatikoaz eta bailarakoaz.



Santa Anako oholiza gainera igoko diren aktoreak, antzezlanerako prest. XUP TALDEA

Gertu daude 'Beita' antzezlanaren taularatzeko

Bigarren antzezlanaren prestatu du irazan antzerki guneko faktoriatik ateratako Xup taldeak. Euren sortutakoa da hasieratik bukaerara arte, eta drama ukitua izango du. Gaur estreinatuko dute, Santa Anan; biharko saiorako sarrerak bakarrik gelditzen dira

Amaia Txintxurreta OÑATI

Kuadrilla bateko lagunaren arteko konfiantza landu dute antzezlan berriaren Xup antzerki taldeko kideek. *Beita* du izena antzezlanak eta gaur, egubakoitza, estreinatuko dute. Bi saio egingo dituzte gaur arratsaldean, Santa Anan, eta hirugarrena bihar, toki berean, 12:30ean. Hirugarren emanaldirako sarrerak baino ez dira gelditzen.

Konfiantza, tramaren parte

Horrela laburtu dute Xup taldekoek drama ukitua izango duen antzezlan berriaren gertatuko dena, euren sare sozialen bitartez: "Beita amuan arrainak harra-patzeko jartzen den jakia da; arrainak amura erakarri eta horri hel diezaioten. Amu horri heltzera behartuta sentituko dira *Beita* izeneko antzerki horretako lagunak. Sexualki erasotu du norbaitek Izaro eta bere lagunak onenaren bikotekidea jarri dute ustezko erasotzaileen jomugan, gainontzeko lagu-

nak itzaletan dauden bitartean. Baina itzalek beti ezkututzen dute zerbait. Lagunak, batzuetan, itzala dira". Izar Mendiola aktoreak gaineratu du lagunaren arteko konfiantza zalantzan jarriko dela lan berriaren, eta Madi Altolagirre aktoreak adierazi du istorioa aurrera doan heinean kuadrillakoen arteko harremanak guztiz aldatzen joango direla. "Ikusten da nola nork bere burua jartzen duen bere lagunena baino lehen. Horrekin landu edo kritikatu nahi izan duguna da errealitate bat, nahiz eta fikziotik ere jo dugun", azaldu du Altolagirrek. Eta Mendiolak gaineratu nahi izan du bukaerara arte intrigarekin egongo dela ikus-entzulea, "per-

ITXIALDIAREN OSTEAN, LIZARRAN HASI ZIREN SORTZEN ANTZEZLAN BERRIA XUP TALDEKO KIDEAK

tsonaia bakoitzak zer gordetzen duen jakin nahian, zer pasako den deskubritu nahian; horrekin jolastu nahi izan dugu".

Aktoreek oñatiarrez hitz egingo dute Santa Anako agertokian, baina ez dute baztertzeko gidoia euskara batura moldatzea, beste nonbait taularatzeko aukera eskaintzen baldin badiete.

Euren sortutakoa

Gidoia sortu, pertsonaiak landu, trama garatu, antzeztu... Antzerki batek dakarren lan guztia euren egin dute. Pandemia garaian sortutako ikuskizuna da, eta, itxialdiaren ostean, astebe-teko lanketa trinkoa egin zuten taldekideek, Lizarran. Honelaxe azaldu du Danel Teran aktoreak: "Sormen prozesuko lehen etapa Lizarran egin genuen. Nahiko kuriozkoa izan zen, inoiz ez geneukan horrela lan eginda. Etxe batean sartu ginen denok, eta esango nuke taldearendako inflexio-puntu garrantzitsua izan dela irteera hori".



Kadete mailako Euskal Liga irabazi duen taldea. ALOÑA MENDI

Euskal Liga irabazi dute, eta Espainia da orain erronka

Lauko zortzi talde egongo dira lehiaren eta datorren astean jakingo dute lehen fasea non jokatuko duten

Oihana Elortza OÑATI

"Pozik, oso pozik" daude Aloña Mendiko eskubaloiko kadete mailako neskek Euskal Liga irabazita. Joan den asteburuan jokaturako lau finalen lortu zuten garaipena. "Sekulakoa izan da. Oso urte gogorra izan da; berez, ez ditugu entrenamenduak eten, baina zazpi edo zortzi jokalarirekin ibili gara ikasurte osoan. Oso nekatuta bukatu dugu denboraldia eta garaipen hau sekulakoa izan da, merezitakoa", dio taldea zuzentzen duen entrenatzaileetako batek, Andrea Garciak.

Espainiako Txapelketa

Euskal Ligako txapelketa diren poza gainera kendu ezinda, hurrengo erronkan dute orain burua jarrita jokalariek: Espainiako Txapelketako lehen fasea gaintzea. Ekainaren 3tik 6ra bitartean jokatu dute eta datorren astean jakingo dute non izango diren partiduetan. Ziurra dena da lauko zortzi talde egongo direla lehiaren eta bakoitzeko talde onena sailkatuko dela bigarren faseko; lauren arteko lehia jokatu dute talde bakoitzean, eta zortzi irabazleak pasako dira hurrengo fasea.



NIRE USTEZ

MANU EGAÑA

Zu ere bilatzen?

Irakurri U2 taldearen *I still haven't found what I'm looking for* entzunez. Zutabe honen hutsunearen aurrean lehenbiziz jarrita, gure bizitzan batzuetan sentitzen dugun hutsuneaz oroitzen naiz. Pertsonok behar espiritualak ere baditugu eta geure buruarekin erlazioz gertatzen dauden galderak egiten ditugu. Nor naiz? Zein da nire bizitzaren xedea? Non dago nire zoriontasuna? Ba al dago zerbait heriotzaren ondoren?

Espiritualitateak baditu hiru dimentsio: materialtasuna gaintzeko gaitasuna, helburuak eta balioak eta gizakiaren existentziaren esanahia. Zorionez, Gadnerren adimen teoriak gero eta zabalduago daude gure ingurunean, baina ezin dugu ahaztu Gadnerrek berak beste bat gehitu zuela, adimen existentziala. Gai zail eta korapilatsua, baina oso beharrezkoa.

Durkheimen –soziologiaren aitakoa bat– transzendenteari irekitzeko lau leku pribilegiatu erakutsi zizkigun: natura, artea, topaketa eta erlijio kultura. Badaukagu, ba, bide ezberdinak transzendentzia aurkitzeko. Nik hemen jarraitzen dut, galderak eginaz, oraindik aurkitu gabe bilatzen ari naizena.

"Buruz Burukoan, pilota jotzea ez da nahikoa"

BEÑAT REZUSTA ASPEKO PILOTARIA

Bengoetxea VI.a kanporatu eta gero, Bergarako pilotariak gaur, egubakoitza, jokatu du Eskuz Banakako bigarren kanporaketa; Elezkano izango du aurrean, Idiazabalen

Xabier Urzelai ARRASATE

Urteko txapelketa garrantzitsuenetako batean murgilduta dago Beñat Rezusta (Bergara, 1993), eta dagoeneko gainditu du lehenengo kanporaketa. Torneo hori birritan irabazi duen Oinatz Bengoetxea kanporatu izanak erakusten du bergararra maila onean dagoela, eta gaur, Idiazabalen, leitzarraren aurka betetako gidoia errepikatzen saiatuko da Rezusta. Segurtasun neurriak zorrozte aldera, telefonoz egindako elkarrizketa duzue hau.

Torneo garrantzitsu batean murgilduta zaudetenean, kontziente izan gabe ere, gehiago zaintzen duzue dena?

Baliteke. Urte oso bat daramagu pandemian eta egia da une oro ezin zarela ibili egiten duzun guztiarekin kontuz, ezinezkoa da. Baina bai, halako torneo batean murgilduta egonda gehiago zaintzen da dena, inork ez du kanpoan geratu nahi, zer eta kutsatu egin delako.

Oinatz Bengoetxea menderatu duzu lehen kanporaketan. Konfiantza hartzeko modu ezin hobea da.

Bai; partidu ostean ere esan nuen niretzako Oinatz moduko pilotari bati irabazi izana oso garrantzitsua dela, poztasun handia hartu nuen. Ea ostiralean Danel ere estutzen dudan eta nik egindakoarekin gustura geratzen naizen.

Konfiantza diot, baina zalantza gutxi erakutsi zenituen Bengoetxearen kontra. Pilota jotzea baino askoz gehiago egin zenuen.

Txapelketa hasi aurretik beti izaten dira erretoaren gaineko zalantza batzuk, baita norberaren sakean ere... Eskuz Banakakoa ez dugu urte osoan jokatzeko eta ohitu barik iristen gara txapelketara; horrek normalean baino zalantza gehiago sortzen du. Baina bai, garbi neukan pilota jota bakarrik ez nuela Oinatz mendean hartuko, hori



Rezusta, Eskuz Banako atarikoan, 2020an. GOIENA

"EZ DA OHIKOA ATZELARIAK ESUZ BANAKAKOAN AURREAN IKUSTEA; SAIATUKO GARA"

baino askoz gehiago egin behariko nuela eta bere lekutik mugiarazteko, deseroso sentiarazteko, tanto batzuetan arriskatu beharra neukala. Egia da tanto batzuetan intentzioa harrapatu zidala, beste batzuetan nik egin nuela kale, baina, orokorrean, uste dut asmatu egin nuela joakoekin. Eta Danelen kontra ere gidoi berbera eramango dut. **Eskuz Banakakoak ez du gorabeherak izateko tarterik uzten...**

Oso txapelketa azkarra da, hasiarekin batera amaitzen da. Txapelketa lehenengo kanporaketatik hasi dugunok, gehienez, lau partidu jokatu ditugu; hemen ez dago egun txar bat izaterik, etxera bidaltzen zaituzte eta. Baina,aldi berean, hori du ona, momentu onean harapatzen bazaitu txapelketa polita egin daitekeela. Egia da ez dela erraza partidu onak ikustea,

berehala apurtzen direlako, baina partidu parekatu bat egoten denean benetan da ederra. **Komunikabide guztiek nabarmendu dute Zabaletak eta biok atzelarien figura aldarrikatu duzuela.**

Izan ere, azken urteotan, txapelketa hau jokatu ere apenas egin dute atzelariak, eta azkeneko txapeldunaren berri izateko ia hogeit urte egin beharko genituzke atzera [2003an, Patxi Ruizek irabazi zuen]. Baina uste dut entrenamendu saio txukun batzuk egiteko astia izanez gero kapaz garena maila txukunean jarduteko. Ea oraingo asteburuan ere Zabaletak eta biok sustoren bat edo beste ematerik dugun. **Hurrengo geltokia, gaur, Idiazabalen. Danel Elezkano izango duzu zain. Moralki topera izango da, baina zuk denbora gehiago izan duzu txapelketa prestatzeko.**

Bai, garbi dago nik dezente denbora gehiago izan dudala txapelketa prestatzeko, Danel duela gutxi jokatu du-eta Eskuz Binakako finala. Baina ez dut uste Eskuz Banakakora txarto iritsiko denik, inondik inora. Konfiantzarekin etorriko da, partidu mordoa irabazi ditu, eta bistan da txisparekin dagoela.

Gainera, ondo moldatzen da txapelketa honetara, sake-errematera ondo egokitzen da, aireko jokoa ondo dominatzen du eta oso pilotaria da; alegia, jokatze modu ezberdinetara oso ondo moldatzen da. Danel azken urteotan txapelketa honetako finalerdietaraino sailkatu da, eta hori ez da kasualitatea.

Ondo ezagutzen duzue elkar; tartean, txapel bat partekatzen duzue...

Bi txapelketa jokatu ditugu elkarrekin, tartean entrenamendu saio mordoa egin ditugu batera, udan ere asko jokatu dugu batera... Oso harreman ona dugu, baina partiduan bestearen hutsak bilatzen saiatuko gara.

Sekretu gutxi duzue kantxan...

Ondo ezagutzen dugu elkar, bai. Aurrean nire efektu guztiak ondo ezagutzen ditu, eta, hasiera batean, hor ezingo naiz itsu-itsuan sartu, bera aurrelari petoa da eta. Orain, tantoa amaitu behar dudanean ez ditut zalantzak izan behar. Esandakoa, Oinatz partiduko gidoia errepikatzen saiatu behar dut.

Txapelketa alde batera utzita, zelan daramazu pandemia urte hau?


Dagoeneko apur bat nekatuta, gehienok bezala, imajinatzen dut. Gu denbora luzaroan geldirik egon ginen eta ondoren hala-moduz hasi ginen. Orain, berriz, denbora dezente daramagu hutsik dauden pilotalekuetan jokatzen, eta hasieran arraroa egiten zen, baina horretara ere ohitu gara. Hala ere, bistan da egoera honetan ezin garena luzaroan egon, jendea behar dugu harmailetan, nahiz eta horrek, hasieran, inpresioa emango digun, seguru.

Egongo da publiko barik jokatzen erosoago ibiltzen denik.

Egongo da bateren bat, seguru, baina frontoiak jende barik ikustea seinale txarra da. Gerta daiteke partiduren baten pilotaria komeni dena baino urdu-riago egotea, baina hori ez da horrenbeste harmailak jendez beteta egoten direlako, nork bere buruari ezartzen dion presioagatik baizik.

Udako torneotarako izango duzu normaltasunik?

Normaltasun berba erabiltzea, akaso, askotxo izango da, baina badirudi egoera hobera doala, beste kirol batzuetan ere zaleek poliki-poliki harmailetara itzuli behar dutela... Baina ez, erabateko normaltasunik ez dugu izango oraindik.



Malen Ruiz de Azua. GOIENA

ATLETISMOA Ruiz de Azua, Europako Txapelketara

Europako herrialdeen arteko Superligan egongo diren 50 atleten zerrenda eman du Espainiako hautatzaile Jose Seirok, eta aukeratuen artean dago Malen Ruiz de Azua. Txapelketa datorren asteburuan egingo dute, maiatzaren 29an eta 30ean, Polonian (Chorzow). Joan den astean, Zaragozan, 4,37ko marka egin zuen, eta 4,51koa egiteko saiakera onak egin zituen.



Joanekoa, Bergaran. GOIENA

PILOTA Zail dute kanporaketa gainditzea

Herri Arteko Txapelketako lehen jardunaldian Debagoieneko taldeek emaitza txarrak batu zituzten. Bergarak, sikiera, kadete mailan irabazi egin zuen, baina oñatiarrek eta aretxabaletarrek hiru partiduak galdu zituzten. Asteburuan itzulerakoak jokatu dituzte. Bergarak Astigarragan gaur (18:00), Oñatik Azpeitian (18:30) gaur eta Aretxabaletak Hernanin domekan (16:30).



Maria Jose Gil, aste barruan, Mojategin. x.u.

Inoiz ez da berandu errekorrak hausteko

ATLETISMOA Euskadiko Txapelketa irabazi berri du Maria Jose Gilek Durangon, eta 800 eta 1.500 metroko probetan Espainiako errekorra ondu du, 80 urteko kategorian: "Helduei esango nieke ez geratzeko etxean, mugitu beharra dagoela!"

Xabier Urzelai ARRASATE

Domekan, master kategoriako Euskadiko Atletismo Txapelketa jokatu zuten Durangon, eta, 80 urterekin, Maria Jose Gil izan zen bere kategoriako onena. "Ondo ari nintzen entrenatzen eta entrenatzaileak esaten zidan errekorrak ontzeko moduan nengoela. Nik halakoetan esaten diot uzteko bakean, nire helburua lasterketak amaitzea izaten dela [Barre]".

Urrea irabazi bai, baina Espainiako errekorra hautsi zuen bai 800 metroko proban (4.15) eta baita 1.500ekoan ere (8.25). "Bai, aurreikusi baino hobeto joan da txapelketa".

Kirola, zoriontasun iturri

Maria Jose Gilek lasterketeta distantziak adinera egokitu baditu ere, lehenago maratointan ere jardundakoa da: "Eta gehien maite izan dudana modalitatea krosak izan dira; indarra neukan hanketan eta ondo moldatzen nintzen. Orain, pis-

tan ez dut horrenbeste gozatzen, baina gustura ibiltzen naiz entrenatzen. Niretako hori da onena, egunero egiten dudana korrikalditxoak".

Lehen maratoia, 57 urterekin

Arrasatearra berandu hasi zen atletismoan. Berak ere ez daki zenbatetan izan den Euskadiko edo Espainiako txapeldun. Europako eta Munduko Kopako txapeldun ere izan da, beterrano mailan beti. 57 urterekin egin zuen lehen maratoia, Donostian, 1993an; arrasatearrak urrea jantzi zuen bere kategorian. Baina 1994an egin zuen markarik onena maratoian: "3.30eko denbora egin nuen. Entrenatzen nik uste dut kilometro gehiegi

EUSKADIKOA IRABAZITA, EKAINEAN MALAGAN IZANGO DA, ESPAINIAKO TXAPELKETA

egiten genituela. Arrasaten zenbait buelta ematen genituen eta Osintxura joan-etorria egiten genuen ondoren, pasada ederrak hartzen genituen".

Ibilbide horretan, baina, zenbait traba gainditu behar izan ditu. Duela gutxi, koronabirusa pasa dute etxeko guztiek, eta aitortu du ez duela erabat gainditu, albo-kalderen bat utzi diola; tarteka, buruko mina, jateko gogorik eza... Baina 2007an eskuin hankan izandako tumoreak ez bazuen geldiarazi, ezta 2012an izandako bularreko minbiziak ere, COVID-19ak jai dauka. Hain zuzen, 2012an, bularreko minbizitik errekuiperatzen ari zela korrika egiten jarraitu bai baina lehiazeari uzteko erabakia hartu zuen. Eta halaxe adierazi zion Arrasateko Atletiko Taldeko ordezkari Fernando Zufriari. Ez zioten halakorik egiten utzi; konturatu orduko, Durangoko beterranoen taldean zegoen: "Badakit geratzen banaiz garabi batekin jaso beharko nautela".

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko maiatzeko sariak!

Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: Errigora

ERRIGORA



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
OSTATZARREN BAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.farmasandenda.org
Diruzko Merkataritza produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: klub@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "konkretuz" [barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira "goiena app"-a / zozketa atalean. Parte hartzearen artean egingo da zozketa.

Indibiduen dagun LOPD 15/1997 legearen arabera jakinarazten dugu, zure datu pertsonalak Goiena Forumariako Zerbitzuaren fitzategi automatizatu baten sartuta daela. Datu-bilaketaren helburua bilario datuak indarrez dagoen sartapenean jartzea da. Eskubide onargarria: datuak zuzentzea, hain zuzentze alderantzizkoak, helbide konfiantzazkoak: klub@goiena.eus

Irabazi tarta bat

GOXO-GOXUARI ESKER

Begiratu Puntua aldirikako Otorduan atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: maiatzak 25



943 25 05 05



klub@goiena.eus



"goiena app"-a / zozketa atalean.



KLUBA Jotetxea

[barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko udalari esker

Idoia Asurmendiren kontzerturako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amalia Antzokia | Maiatzaren 29an | 19:00etan

PARTE HARTZEKO: MAIATZAK 27

E-postaz: klub@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "Konkretuz" [barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira "goiena app"-a / zozketa atalean. Parte hartzearen artean egingo da zozketa.

Indibiduen dagun LOPD 15/1997 legearen arabera jakinarazten dugu, zure datu pertsonalak Goiena Forumariako Zerbitzuaren fitzategi automatizatu baten sartuta daela. Datu-bilaketaren helburua bilario datuak indarrez dagoen sartapenean jartzea da. Eskubide onargarria: datuak zuzentzea, hain zuzentze alderantzizkoak, helbide konfiantzazkoak: klub@goiena.eus



Puntua aldirikako jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 30€

Deitu: 943 25 05 05 • klub@goiena.eus



DESKARGATU
GOIENA
APP-BERRIA!

goienakluba

Euskara irabazte, denok irabazte!

Aitziber Aranburuzabala BERGARA

XX. mendeko bigarren zatiko euskal eskultura figuratiboko adierazle gorentzat jo izan da Lorenzo Askasibar (Elgeta, 1930). *Art in stone* aldizkari espezializatuak zioen Ameriketako Estatu Batuetako eskultura erlijiosoko sortzaile onenetako bat bihurtzeko bidea zeramala Askasibarrek. Mario Angel Marroddan arte kritikariak, berriz, hauek idatzi zituen *Pintores y escultores vascos de ayer y hoy y mañana* liburuan: "Figurazioko euskal eskulturaren zizelkatzaile bat da. Egikera hain pertsonala duen eskultorea independentziaren eredu da, zintzotasunaren eredu". Edorta Kortadi kritikariak ere esan du Jorge Oteizak ere Askasibarren obra miretsi zuela: "Higinio Basterra eta Julio Beobide eskultoreen oinordeko duintzat jotzen zuen, haiek bezala salbatu ei baitzuen *bibelot*-eko -apaindurako figura txikiak- eskultura goxo, belaxka eta gatzik gabea bihurtzetik, eskultura errealista, oso patxadatsua, oso lasaia egiteari esker".

Apenas zegoen ezer idatzita Askasibarri buruz, eta eskultorearen Gasteizko estudioan egindako berriketaldi luzeen fruitua da Miguel Angel Elkoroberezibarrek idatzi eta atzo Bilbon aurkeztu zuten *L. Askasibar. Eskultore baten testigantza* liburua. "Bere bizitza eta ibilbide artistikoa ia hutsetik eraiki behar izan dut. Hustuketa bat izan da, atzera buelta bat eta hausnarketa ariketa sakona, eta biziki eskertzen diot bere ahalegina eta eskaini didan aukera. Simon Arrieta Bergarako artistari buruz 2015ean plazaratu nuen liburua dokumentatzeko Askasibarrek ere egon nintzen, Arrietak asko lagundu baitziren Askasibarri gatzetan, eta orduan konturatu nintzen han beste istorio interesgarri bat zegoela. Gerora etorri zitzaidan liburua idazteko proposamena eskultorearen Bergarako lagun batzuen bidez. Ez nuen zalantzarik egin. Protagonista bizirik egoteak bere abantailak ditu, zuzeneko testigantza jaso daitekeelako, baina, askotan, muga ere izan daiteke, kontatzen dena gehiago neurtzen delako".

Bizitza osoa eskulturari lotuta

700 lan baino gehiago egin ditu; egurrezkoak, harrizkoak eta brontzezkoak. Debagoienean ere

Atzerrian ospea, etxean ezezaguna

Lorenzo Askasibar eskultore figuratiboaren ibilbidea eta bizipenak jaso ditu Miguel Angel Elkoroberezibarrek 'L. Askasibar. Eskultore baten testigantza' izeneko liburuan; maiatzaren 28an haren lanen erakusketa zabalduko dute Bergarako Aroztegi aretoan



Lorenzo Askasibar, Gasteizko estudioan. MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

haren lan asko daude, baina askorentzako ezezaguna da Askasibar. "Ez da inoiz komunikabideen aurrean agertu-zalea izan, pertsona isila eta umila da, eta, batez ere, langilea".

"Eskulturari eman diot bizitza eta eskulturak bizitza eman dit",

"BERE BIZITZA ETA IBILBIDE ARTISTIKOA HUTSETIK ERAIKI DUT"

"PERTSONA UMILA ETA ISILA DA, ETA, BATEZ ERE, LANGILEA"

"GORAIPTZEKO DA HERRIKO ENPRESEK EMANDAKO BABESA"

M. A. ELKOROBEREZIBAR, EGILEA

aitortu du Askasibarrek liburuaren lehen orrian, eta zera gaineratu: "Atzera bueltatuko banintz, neure gogoz berriz izango nintzateke eskultore, baina, kontuan hartuz nolakoak jasan behar diren, bitan pentsatuko nuke. Oso gogorra da, lan handia darama. Lan egitea gustuko ez baduzu, hobe duzu honetan ez aritu".

Txikitatik abila marrazten

Elgetako Jalotza baserrian jaio zen; gurasoak nekazariak ziren, eta lau anaia-arreba izan zituen. "Umetatik izan dut marrazteko joera. Jo eta ke aritzen nintzen inguruan nuen guztia marrazten. 6 urte nituela, gogoan dut Gernika bonbardatzera zihoazen hegazkinak marraztu nituela. Donostiatik ihesi gure baserrira bizitzera etorri ziren senitarteak; horien artean, tipografoa

zen Anselmo osaba, eta harekin ikasi nituen batuketak, kenketak, idazten eta gatzelaniazko hitz batzuk ere bai. Hark irakatsita-koak oso lagungarriak izan zitzaizkidan geroago maristen ikastetxera joan nintzenez. Marrazketa eskolak jasotzen

"FIGURAZIORAKO ZALETASUNA PIZTU ZIDAN JESUS OKINAK"

"NIRE IKASKETEN 'MEKA' BERREGINEN MUSEOA IZAN ZEN"

"MIGUEL ANGELEK BIHOTZA JARRI DU PROIEKTUAN"

LORENZO ASKASIBAR, ESKULTOREA

genituen han, eta asko gozaten nuen. Arterako sentsibilitate handia nuen. Eskasia handiko urteak ziren, baina oso zoriontsu ginen. Guk egiten genituen jostailuak. Esan daiteke goitibehera eta egurrezko jostailu haiek izan zirela nire lehen artelanak".

Elgetako Erostarbe Hermanos enpresan hasi zen lanean, 16 urte zituela, eta egurra lantzeko lehen urratsak han egin zituela dio Elkoroberezibarrek: "Gubia garai hartako altzarien apaingarriekin erabiltzen ikasi zuen, baina laster konturatu zen aurrera egin eta figuratiboa landu nahi zuela. Bergaran zizelkari on bat zegoela esan zioten, Jesus Okina, eta harengana jo zuen bere lanbidea osatzeko".

Jesus Okina, lehen maisua

Taillagina eta delineatzailea zen Jesus Okina, eta tailerlean "atsegin handiz hartu" zuela dio eskultoreak: "Modelatze, tailla eta marrazketa ikasi nituen harekin. Figuraziorako zaletasuna piztu zidan hark. Askok zekien taillatzeari buruz, bereziki, altzari-gintzaz, baina haren zaletasuna urrutirago zihoan; eskultore sentitzen zen, eta ni bide horretara zirikatatu eta bultzatu ninduen, eta haren gogoak kutsatu egin zidan".

Jesus Okina izan zuen lehenengo maisu eta mentore, baina haren anaia Miguel margolaria-rengandik ere asko ikasi zuela aitortzen du Askasibarrek. "Jesusekin asko aurreratu nuen, eta, geroago, Simon Arrietarekin ere bai, baina esan beharra dut Miguelekin ikasi nuela marrazketa arloan gehien".

Egurra lantzen hasi zen eta buztinari heldu zion, Okinak lagunduta, geroago. Urte gutxian, egur tailla eta buztin moldaketa ugari egin zituen. "Bergaran nire obran aritzeko giro egokia aurkitu nuen". Okinaren tailerretara sarriratu joaten zen Simon Arrieta pintorea, eta hark asko lagundu ziola dio: "Oso gustuko zuen eskultura eta asko gustatzen zitzaion gurekin Rodini, Victorio Machori eta beste eskultore batzuei buruz berba egitea. Arte eta Ofizioen Eskolara joatera animatu ninduen hark. Okinaren eta Arrietaren bidez garai hartako puntako artistak eza-gutzeko aukera izan nuen; Julio Beobide eta Carlos Elgezua, besteak beste. Azken hark proposatu zidan Bilboko Berreginen

Museora ikastera joatea. "Zoaz hara, atera bizimodua ahal bezala, eta, eskultore lanetan huts eginez gero, arotza ere izan zaitzke", esan zidan".

Bilboko Berreginen Museora

1949an, Bilboko senitartekoen etxera bizitzera joan zen, eta lau urte eta erdi egin zituen han. Higinio Basterra izan zuen Bilboko Berreginen Museoa nire ikasketen meka izan zen. Horrez gain, Basterraren estudiora ere

joaten nintzen. Haren azken dizipulua izan nintzen".

1955ean, Madrilerara joan zen, ikasketekin jarraituz; ordura, inauguratuta zuen bere lehen eskultura publikoa, Aramaioko Vicente Goikoetxearena. Mugarria izan zen lan hura beretako, eta, berehala, monumentu gehiago egiteko eskaerak jaso zituen; besteak beste, Gasteizko esploratzaile Manuel Iradierrena, Jesus Guridi musikariarena, Bergarako San Pedro elizarako *Pietatea eta Zutabeko Kristorena...*

Ameriketako Estatu Batuetara

Felix Rubio eta Angel Barbero eskultoreekin batera itsasoaren bestalderako saltoa egin zuen elgetarrak, 1958an. "Eskuak poltsikoetan, ezer barik, baina ideia garbiekin joan zen. Alde egiteko beharra sentitzen zuen, prisma berriak bilatzeko eta bere lanari etekina ateratzeko. Batez ere, Vermont, Connecticut eta New York estatuetan egin zuen lan. Eskultura eta pieza monumentalak egin zituen hilerrietarako eta toki publikoetarako, eta ospe

handia lortu zuen. 70eko hamarkadaren lehen erdian itzuli zen Euskal Herrira, Gasteizera; gaur egun ere han bizi da", azaldu du Elkoroberezibarrek.

Herriko enpresen laguntzarekin

Bilboko Berreginen Museoa aurkeztu zuten liburua atzo, eguena, eta datozen asteetan Bergaran eta Elgetan ere egingo dituzte aurkezpen ekitaldi gehiago. "Aroztegiko erakusketak irauten duen bitartean liburua han erosteko aukera izango da,

15 eurotan, eta, datorren astean hasita, Elkar liburu dendetan", azaldu du egileak.

Aipatzekoa da Bergarako edo Bergararekin lotura duten hamabost enpresaren laguntza izan duela Elkoroberezibarrek liburua argitaratzeko. "Bizi dugun garai zail hauetan Bergararekin halako lotura estua duen artista bati buruzko liburua kalertzen laguntzea, artea eta kultura sustatzeko egindako apustua, alegia, benetan goraiatzekoa da. Herrigintza da hori".

"Liburu oso atsegina eta edukiz betea idatzi du; oso pozik nago"

LORENZO ASKASIBAR ESKULTOREA

Ez du gustuko bere buruaren propaganda egitea; horregatik, orain arte komunikabideetan apenas agertu izan da. Pozik dago, baina, Miguel Angel Elkoroberezibarrek idatzi duen biografia-liburuarekin.

Gustatu zaizu liburua?

Asko. Oso liburu atsegina eta edukiz betea da; jendeari gustatuko zaiola uste dut.

Zelan izan da liburua egiteko prozesua?

Asko harritu ninduen Miguel Angelen proposamenak; sekula amestu bakoa. Prozesu oso interesgarria izan da, luzea eta zehatza. Miguel Angelek lan handia egin du, asko kostatu zaio nire urratsak topatzea, Euskal Herrian eta baita nire bizitzako zati handi bat utzi nuen Ameriketako Estatu Batuetan ere. Bihotza jarri du Miguel Angelek proiektuan; pertsona oso sentikorra da.



BENAT ELKOROBEREZIBAR

Maiatzaren 28an hasita erakusketa izango duzu Aroztegi aretoan. Zelakoa?

Denetarik obrak daude, nire ibilbidearen gainbegiratu da. Egurrezko eta brontzezko askotariko eskulturen erreproduzioak izango dira, eta baita hainbat argazki ere.

Bergaran erakusteak ilusio berezia egiten dizu?

Hala da, bai; oso eskertuta eta pozik nago. Bergaran azkeneko erakusketa jarri nuenetik urte asko pasa dira eta.

Liburua, erakusketa eta omenaldiak

- **Begarako Aroztegi aretoan erakusketa** Maiatzaren 28tik ekainaren 20ra bitartean. Inaugurazio ekitaldia maiatzaren 28an, 18:00etan. Beart elkarteak antolatuta.
- **Lorenzo Askasibar Eskultore baten testigantza liburuaren aurkezpena** Bergarako udaletxean, maiatzaren 28an, 18:30etan.
- **Begarako omenaldia** Udaletxean, ekainaren 6an, 13:00etan.
- **Elgetako aurkezpen-omenaldia** Elgetako Espaloian liburua aurkeztuko dute, 18:30etan.
- **Gasteizko harrera-omenaldia** Udaletxean ekainaren 15ean, 19:00etan.



Askasibar eta Elkoroberezibar, Bergarako San Pedro elizan. MIGUEL LAZPIUR

Aroztegi aretoan, kalean eta elizan

Eskultorea atzerabegirakoan izena du maiatzaren 28tik ekainaren 20ra bitartean Bergarako Aroztegi aretoan ikusgai izango den erakusketak. "Guztira, 53 pieza egongo dira. Garai desberdinetako obrak eta horien argazkiak ikusteko aukera izango da. Hastapenetako urteetan, batez ere, egurra landu zuen; harria, berriz, Ameriketako Estatu Batuetan; eta Euskal Herrira bueltatu zenean, brontzea", azaldu du Miguel Angel Elkoroberezibarrek.

Begarako txoko askotan daude Askasibarren lanak; esaterako, San Pedro elizako Pietatearen irudia eta Simon Arrieta plazako pintorearen omenezko brontzezko eskultura.

Horiez gainera, besteak beste, Arrasateko Eskola Politeknikoan du Jose Maria Arizmendiari egin ziona eta Aramaion, Vicente Goikoetxea musikariari eskainitakoa.

LIE DETECTORS

GOIENA TELEBISTA, KOOLTUR KONTZERTUAK

MAIATZAREN 21EAN, EGLUBAKOITZEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN

goiena
Zu hemen zaude.



IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. Etxebizitza salgai Matxiategi kalean. Berrituta dago. Hiru logela dauzka eta hauetako bat intsonorizatuta dago. Sukaldea, egongela eta komunak. Sotoa dauka eta igogailua ere bai. Dena kanpoaldera begira eta eguzkitsua. 128.000 euro. 634 45 30 97

Oñati. Atikoa salgai Atzeko kalean. Bi logela, bainu-gela eta sukalde-egongela. 43 metro koadro. Horrez gain, 14 metro koadroko terraza, 10 metroko bi ganbara eta 12 metroko garajea. Prezioa: 200.000 euro. 605 72 64 43 edo 696 36 97 17

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Familia biki bat gara eta etxebizitza behar dugu errentan, prezio onean, ahal bada erdiguenean. Behoko edo lehenengo solairua izan behar du. 680 87 38 66

Bergara. Bergarako neska bat naiz eta etxebizitza behar dut errentan. Prezioa da. 690 75 61 18

105. ETXEA OSATU

Bergara. Logela ematen da errentan, erdialdean. Etxe berria eta kanpora begira. 607 32 74 32

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Ibargarai kalean, ostiralek astelehen goizera arte, garaje plaza bat ematen da errentan. Apartaketa oso erosoa eta prezio onean. Telefonoa: 609 41 32 11

204. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Erdiguenean edo San Andresen garajea edo ganbara bat hartuko genuke errentan, prezio onean. 650 96 23 08

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Menpekotasuna duen 76 urteko emakumeari oinarriko zereginetan eta irteeretan lagundua eta etxeko lanak egiteko emakumezko baten bila gabiitza. Goizez, 3 orduz, eta menpekotasuna duten pertsonen laguntzeko ziurtagiri ofizialduna. Jari haremaren WhatsApp bidez, 15:00ak eta 21:00ak bitartean. 680 61 96 99

Bergara. Soziosanitario titulua duen neska euskalduna behar dugu,

pertsona nagusia zaintzeko, Bergaran. Autoa ezinbestekoa. Informatzeko, idatzi Whatsapp mezua edo deitu zerbaki honetara: 629 55 58 08

Etxeko langilea Antzuolan. Asteburuan, autonomia duen pertsona nagusi bat zaintzeko emakume behar da. Soziosanitario titulua beharrezkoa. 696 17 90 64

402. ESKAERAK

Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Soziosanitario titulua daukat eta pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan egin nahi dut, egunean zehar. Garbiketa lanetarako ere prest nago. 685 46 91 11

Arrasate. Emakume arduratsua lan bila. Orduka, egunka, gau edo asteburuetan. Legezko agiri eta titulazioa daukat. Telefonoa: 685 22 54 01

Bergara. Emakume euskalduna, soziosanitario titulua daukana, eskaintzen da arratsaldetan eta asteburuetan lan egiteko. 656 74 78 43

Bergara. Soziosanitario titulazioa duen pertsona arratsaldetan edo asteburuetan pertsona nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. 688 74 00 14

Debagoiena. Arratsaldetan edo asteburu zein jai-egunetan zaintza lanak egingo nituzke. Baita ere estetika arloan, titulazioa daukat-eta. Autoarekin. 631 98 15 50

Debagoiena. Asteburuetan nagusiak zaindu eta orduka denetarik garbiketarako egingo nituzke. Telefonoa: 632 25 27 26

Debagoiena. Asteburuetan pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. Zaintzan, garbiketan eta abar. 632 25 27 26

Debagoiena. Asteburuetan lan egingo nuke. Zaintzan, garbiketan eta abar. 632 25 27 26

Debagoiena. Edozein lanetarako prest nago. Tituladuna eta esperientzia handikoa naiz. Telefonoa: 688 62 06 22

Debagoiena. Egunean zehar nagusiak zaintzen, garbiketan edota sukaldean lan egingo nuke. Legezko agiri guztiekin. 648 21 28 55

Debagoiena. Egunez garbiketarako eta zaintza lanetarako prest nago. Astelehenetik ostiralera. Legezko agiriak. Telefonoa: 673 71 15 27

Debagoiena. Emakume agertu jende nagusia

zaintzeko arratsaldeak. Zaintzaile titularekin. 696 84 19 51

Debagoiena. Eraikuntzan, margotzen edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 604 27 26 52

Debagoiena. Esperientzia duen neska nagusiak zaintzeko gertu. Telefonoa: 602 31 98 60

Debagoiena. Esperientzia handia duen mutila gertu nagusiak zaintzen, denetarik garbiketarako edo zerbitzari lanetan jarduteko. 638 85 43 36

Debagoiena. Esperientzia handia duen neska gertu nagusiak zaintzen, denetarik garbiketarako edo zerbitzari lanetan jarduteko. 654 11 15 14

Debagoiena. Garbiketa lanetan edo pertsona nagusiak zaindu lan egin nahi dut. Soziosanitario titularekin. 612 53 92 72

Debagoiena. Garbiketan eta nagusiak zaindu lan egingo nuke. Telefonoa: 631 26 22 51

Debagoiena. Gizona lanerako gertu: nagusiei kalera lagundu, mandatuak egin eta abar. Baita denetarik garbiketarako ere: tabernak, atariak, baserriak eta abar. Edo banaketak. Autoa daukat. Telefonoa: 645 72 92 87

Debagoiena. Gizona nagusiak zaintzeko edota atari eta abarrak garbitzeko gertu. Soziosanitario titulazioarekin. Telefonoa: 643 73 62 36

Debagoiena. Goizez zein arratsaldeak, orduka, lan egiteko gertu nago. Soziosanitario, garbiketa eta sukaldaritza formazioa daukat. 602 61 69 26

Debagoiena. Ikasketa soziosanitarioak, sukaldaritza oinarriko ezagutzak eta garbitasun esperientzia daukat. Lanaldi partzialeko edo osoko lan bila, menpeko pertsonak zaintzeko. Telefonoa: 642 98 98 06

Debagoiena. Lan bila nabil: baserrian, nagusiak zaintzen, garbiketan eta abarrean. Garbiketa titulazioa daukat. Telefonoa: 632 28 52 37

Debagoiena. Mutil arduratsua lanerako gertu: eraikuntzan, lanbide astun zein arinetan, jostintzan, garbiketan, eta abar. Telefonoa: 612 28 05 29

Debagoiena. Mutila gertu etxean bizi izaten,

egunez zein orduka lan egiteko. 633 49 27 40

Debagoiena. Nagusi zein haurren zaintzan, etxe garbiketan edo animalien zaintzan lan egiteko gertu gaude. 643 47 39 37 edo 643 47 42 33

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zaintzen edota garbiketan lan egingo nuke. 617 20 79 97 edo 642 59 66 96

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketan lan egingo nuke. 612 41 02 49

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketan lan egingo nuke. 631 19 75 84

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketan lan egingo nuke. 632 37 65 40

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke. Soziosanitario titulazioa eta berehala hasteko prestasuna. 632 79 91 43

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke,

etxean bertan bizi izaten, gauz eta asteburuetan. 626 91 49 04

Debagoiena. Neska arduratsua lan bila. Esperientzia daukat garbiketetan, nagusiak edota umeak zaintzen. Telefonoa: 678 12 28 56

Debagoiena. Neska bat gertu, astelehenetik ostiralera gauz eta asteburu eta jai egunetan, nagusiak zaintzeko. Soziosanitario titulazioa du. Deitu 647 31 48 17 telefono zenbakira.

Debagoiena. Neska euskalduna lan bila: fabrika, dendan, ostalaritzan, zaintzan eta abar. Telefonoa: 656 79 28 37

Debagoiena. Nikaraguko mutila gertu asteburuetan nagusiak zaindu, baserriko lanak egin eta abarretarako. Telefonoa: 631 79 31 92

Debagoiena. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izanda lan egingo nuke. Soziosanitario titulua, legezko

agiriak eta erreferentziak daukat. 652 50 77 68

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. 662 02 45 80

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Erabateko prestasuna. 604 37 70 41

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan eta garbiketa lanetan esperientzia handia daukat. 612 20 35 71

Debagoiena. Soziosanitario eta legezko agiriak dituen emakume prest nagusiak zaintzeko. Telefonoa: 647 31 48 17

Debagoiena. Zaintzan lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten. Legezko agiriak daukat. Telefonoa: 602 12 79 79

8. DENETARIK

801. SALDU

Lursailak. Lursailak salgai edo errentan ematen dira Aretxabaletan. Telefonoa: 618 76 34 40

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

LIE DETECTORS TALDEAREN ZUZENEKOA

'Kooitur kontzertuak' Egubakoitza, 21:00 eta 23:00.



GOIENA

'HERRITIK HERRIRAKO, KULTURA MOKADUTXOAK'

'Bergarako ez-jaiak' Martitzena, 18:00, 20:00 eta 22:00.

EGUBAKOITZA, 21	ZAPATUA, 22	DOMEKA, 23
08:00 Hemen da Miru 35 08:30 Harmailatik 09:00 Debagoiena eraldatzen	09:00 Hemen da Miru 35 09:30 Hemen da Miru 36 10:30 Lehen lerroan: Iñaki Rezusta	08:00 Hemen da Miru 37 08:30 Hemen da Miru 38 09:00 Hemen da Miru 36 09:30 Lehen lerroan: Iñaki Rezusta
09:30 Galdegazte: Mireia Gabilondo 10:00 Hemen Debagoiena eraldatzen	11:00 Asteko errepasoa 11:30 Elkarrizketa: Ibilii Bedi	10:00 Elkarrizketa: Ibilii Bedi 10:30 Harmailatik 11:00 Debagoiena eraldatzen
11:30 Hala Bazan: Herriak 12:00 Hemen Debagoiena eraldatzen	12:00 Kooitur: Lie Detectors 13:00 Hemen Debagoiena eraldatzen	11:30 Hemen Debagoiena eraldatzen 12:30 Asteko errepasoa 13:30 Debagoiena eraldatzen
13:30 Elkarrizketa: Ibilii Bedi 14:00 Hemen Debagoiena eraldatzen	14:30 Asteko errepasoa 15:30 Debagoiena eraldatzen	14:00 Harira 14:30 Hala Bazan: Herriak
15:00 Albisteak 15:30 Debagoiena eraldatzen	16:00 Hemen Debagoiena eraldatzen 17:00 Harira	15:00 Elkarrizketa: Ibilii Bedi 15:30 Asteko errepasoa 16:30 Hemen Debagoiena eraldatzen
16:00 Albisteak 16:30 Elkarrizketa: Ibilii Bedi	17:30 Galdegazte: Mireia Gabilondo 18:00 Harmailatik	17:30 Debagoiena eraldatzen 18:00 Harmailatik 18:30 Hemen da Miru 38
17:00 Albisteak 17:30 Harmailatik 18:00 Hemen Debagoiena eraldatzen	18:30 Kooitur: Lie Detectors 19:30 Hala Bazan: Herriak 20:00 Asteko errepasoa	19:00 Kooitur: Lie Detectors 20:00 Hemen Debagoiena eraldatzen 21:00 Harmailatik 21:30 Asteko errepasoa 22:30 Elkarrizketa: Ibilii Bedi
19:00 Lehen lerroan: Iñaki Rezusta 19:30 Debagoiena eraldatzen	20:00 Hala Bazan: Herriak 21:00 Hemen Debagoiena eraldatzen	22:00 Elkarrizketa: Ibilii Bedi 22:30 Hemen Debagoiena eraldatzen
20:00 Hemen Debagoiena eraldatzen 21:00 Kooitur: Lie Detectors	21:00 Kooitur: Lie Detectors	

ASTELEHENA, 24

KIROL ERREPORTAJEAK ETA ELKARRIZKETAK

'Harmailatik'

21:30/23:30

MARTITZENA, 25


'HARRIRA': UEMAK 30 URTE. IRAITZ LAZKANORI ELKARRIZKETA

21:30/23:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

EGUAZTENA, 26



GOIENA

ZUHAITZ GURRUTXAGARI ELKARRIZKETA

'Elkarrizketa'

21:00/23:00

EGUENA, 27

TELMO ESNALEKIN HIZKETALDIA

'EKT'

21:30/23:30

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz zer daitezkeen operazioen erantzukizunik.

HILDAKOAK

Jabier Igartua Korta

Oñatin, maiatzaren 5ean.
70 urte.

Maritxu Ezpeleta

Txintxurreta

Bergaran, maiatzaren 6an.
86 urte.

Rosario Lonbide Ezpeleta

Bergaran, maiatzaren 6an.
93 urte.

Maria Luisa

Gallastegi Gabilondo

Bergaran, maiatzaren 6an.
90 urte.

Jesusa Basauri Unamuno

Oñatin, maiatzaren 6an.

Mariano Lopez Paton

Oñatin, maiatzaren 6an.
73 urte.

Mari Paz

Letamendi Olalde

Oñatin, maiatzaren 6an.
78 urte.

Antonio Carmona Alonso

Arrasaten, maiatzaren 7an.
80 urte.

Teodora Acebes Robles.

Arrasaten, maiatzaren 7an.
92 urte.

Milagros Ramos Barba

Bergaran, maiatzaren 7an.
89 urte.

Begoña

Iruarizaga Uriarte

Oñatin, maiatzaren 7an.
91 urte.

Marcelino

Merino Pinacho

Arrasaten, maiatzaren 8an.
94 urte.

Juan Arbulo Ugarte.

Aretxabaletan, maiatzaren
10ean. 85 urte.

Alberto Larrañaga

Muñagorri

Bergaran, 10ean. 81 urte.
Amaia Gorroñoigoitia Gonzalez

Arrasaten, maiatzaren 12an.
89 urte.

Miguel

Iñurritegi Urzelai

Oñatin, 12an. 95 urte.

Anita

Uribetxeberria Letamendi

Oñatin, maiatzaren 12an.
94 urte.

Pedro Maiztegui Goitia

Oñatin, maiatzaren 12an.
90 urte.

Francisco Javier

Unzueta Echevarria

Aramaion, maiatzaren 13an.
82 urte.

Julita

Gonzalez Garro

Aretxabaletan, maiatzaren
13an. 88 urte.

Susana

Maiztegi Ariznabarreta

Oñatin, maiatzaren 14an.
86 urte.

Fernando

Erdabide Lonbide

Bergaran, maiatzaren 14an.
69 urte.

Margarita

Badiola Arizmendiarieta

Arrasaten, maiatzaren 15ean.
95 urte.

Maria Luisa

Unzueta Ibarzabal

Arrasaten, maiatzaren 15ean.
90 urte.

Valentina

Blanco Rodriguez

Arrasaten, maiatzaren 15ean.
89 urte.

Carlos Korujo Gorostiaga

Eskoriatzan, maiatzaren
15ean. 71 urte.

Maria Isabel

Aranburu Gorostidi

Oñatin, maiatzaren 15ean.
90 urte.

Consejo Bengoa Leibar

Aretxabaletan, maiatzaren
15ean. 85 urte.

Aurea Perez Prieto

Arrasaten, maiatzaren 19an.
95 urte.

Jesus Jimenez Navas.

Arrasaten, maiatzaren 19an.
78 urte.

OROIGARRIA

Fernando Erdabide Lonbide



2021eko maiatzaren 14an hil zen, 69 urte zituela.

Har ezazu zure soziedadeko bazkideen azken agurra.

Zuloa elkartea.
Bergaran, 2021eko maiatzaren 21ean.

OROIGARRIA

Mari Paz Letamendi Olalde



2021eko maiatzaren 6an hil zen, 78 urte zituela.

Gure artetik joan zara baina elkarrekin igarotako uneak ez ditugu inoiz ahaztuko. Gure bihotzean jarraituko duzu, Mari Paz.

Olaldetar lehengusuak.
Oñatin, 2021eko maiatzaren 21ean.

ESKER ONA



Fernando Erdabide Lonbide



2021eko maiatzaren 14an hil zen, 69 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2021eko maiatzaren 21ean.

ESKER ONA

Pedro Maiztegui Goitia



2021eko maiatzaren 12an hil zen, 90 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, maiatzaren 22an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zuretik eskerrik asko.

Oñatin, 2021eko maiatzaren 21ean.

ESKER ONA

Consejo Bengoa Leibar



Javier Igarturen alarguna

2021eko maiatzaren 15ean hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2021eko maiatzaren 21ean.

ESKER ONA

Julita Gonzalez Garro



2021eko maiatzaren 13an hil zen, 88 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2021eko maiatzaren 21ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 21	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea 1 / 943 77 16 30
Zapatua, 22	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
Domeka, 23	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Astelehena, 24	FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Martitzena, 25	IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Eguaztena, 26	SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Eguena, 27	ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 21	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Zapatua, 22	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Domeka, 23	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Astelehena, 24	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87 X
Martitzena, 25	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguaztena, 26	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Eguena, 27	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 21	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Zapatua, 22	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Domeka, 23	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Astelehena, 24	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Martitzena, 25	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguaztena, 26	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguena, 27	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

ARRASATE GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2021eko abuztuaren 15era arte:
ETXEBERRIA: Zarugalde kalea 1 / 943 77 16 30

BERGARA GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2019 osoan:
ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

ESKER ONA

Francisco Javier Unzueta Echevarria



2021eko maiatzaren 13an hil zen, 82 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aramaion, 2021eko maiatzaren 21ean.

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.



Gure eskerrik beroenak guran izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi



Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

TXUTXU-MUTXUAK

**1. Urrezko dominarekin**

Gasteizko Klub Nautikoko kide Telmo eta Lia Ayerbe anai-arreba bergararrak onenak izan ziren Uribarri Ganboako (Araba) urtegian egindako San Prudentzio estropadan.

3. 'Bergara oinez': bigarrena

Aranzadi ikastolakoen gidaritzapean 21 lagunek egin zuten Agorrosin-Murinondo-Ernai-Agorrosin ibilaldia Bergaran. Hurrengoa hilaren 27an egingo dute.

5. 50 urte ezkontuta

Paco Raso eta Matilde Herraiez eskoriatzarrek urrezko ezteiak beteko dituzte bihar. "Etxekoen partetik, primeran ospatu egun berezi hau! Mereziduzue. Bihotz-bihotzez, zorionak!".

2. 50 urte ezkontuta

Miguel Angel Lana eta Itziar Garaitonandia aramaioarrak Azkoaga auzoan ezkondu ziren 1971ko maiatzaren 22an. "Zorionak, bikote, familiaren partetik!".

4. Urrezko ezteiak

Itziar Aguirre eta Jose Mari Cuevas bergararrak maiatzaren 22an ezkondu ziren, orain dela 50 urte. "Familia osoaren partetik, zorionak eta egun polita izan, bikote!".

6. Urrezko ezteiak

Joxe Mari Kortabarria eta Maria Pilar Igartua oñatiarrek urrezko ezteiak bete dituzte. "Zorionak, bihotz-bihotzez! Jarraitu beti bezain zoriontsu izaten. Musu handi bat!".

7. Ezkontza eguna

Nagore eta Ander arrasatearrak bihar ezkonduko dira. "Primeran ospatu zuen familiekin. Ostean ospatuko duzue lagunekin. Zorionak, bikote!", gertukoaren partetik.

ZORION AGURRAK



OÑATI
June Urtaza Ronda
Maiatzaren 27an, 10 urte. Zorionak, June! Ondo pasatu eguna eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.




BERGARA
Aritz Leturia Zurutuza
Maiatzaren 26an, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako! Besarkada handi bat maixte zaitxugun danon partetik.



ANTZUOLA
Hodei Aranzabal Fernandez
Maiatzaren 25ean, 10 urte. Zorionak, potxolo! Etxeko txikiena eta jada 10 urte! Oso ondo pasatu zure urtiak, etxekoen partetik!



ARETXABALETA
Peio Uribe Coves
Maiatzaren 25ean, 4 urte. Zorionak. Besarkada eta patxo handi mordo bat jaso, zure urtebetetze egunean.



ARAMAIO
Galder Ibaguren Beltran de Guevara
Maiatzaren 23an, 7 urte. Zorionak, Galdertxo! Ondo-ondo pasatu zure egunean. Musu erraldoi bat danon partetik.



BERGARA
Alain Davila Iza
Maiatzaren 23an, 10 urte. 10 urte, Alain! Zorionak! Ondo pasatu eguna eta muxu pila bat familiako guztien partetik. Asko maite zaitxugu!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik argitaratuko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



ARETXABALETA
Inge Berridi Errasti
Maiatzaren 23an, 10 urte. Zorionak, Inge! Ze pozik, Oinatz lehengusu jaioberriarekin! Ederto ospatu eguna! Besarkada eta muxu handi bat etxeko danon partetik!



ARRASATE
Izar Ayastuy Perea
Maiatzaren 22an, urtebete. Zorionak, Izar, txiki polit! Urtebete bat gurekin parrandan, eta geratzen dienak. Muxu erraldoi bat Pauletxoren partetik.



OÑATI
Luken Olalde Agiriano
Maiatzaren 21ean, 10 urte. Zorionak, Luken! Zelako aguro pasatu diezen 10 urte! Jarraituz halako mutiko jatorra izeten eta muxu handi bat!



OÑATI
Uxue Beitia Maisterrena
Maiatzaren 21ean, 7 urte. Zorionak, Uxue! Patxo handi bat etxeko guztien partetik! Ondo ospatu zure 7. urtebetetzia!




OÑATI
Aimar Hernandez Otxoa-Aizpurua
Maiatzaren 20an, 12 urte. Zorionak, txapeldun! Disfrutatu zure eguna topera eta muxu handi bat familia danon partetik. Mua, mua!!



OÑATI
Unai Ibahe Kerexeta
Maiatzaren 19an, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako, Unai! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo handi bat guztien partetik! Bereziki Egoirena!



BERGARA
Anartz Azula Errexil
Maiatzaren 19an, 12 urte. Zorionak, Anartz! Ondo-ondo pasatu zure egunean. Muxu pottolo bat zure familiariaren partetik. Bereziki Jonena.



ARRASATE
Beñat Alonso Lopez
Maiatzaren 19an, 18 urte. Zorionak, Beñat. Ederto ospatu egun berezi hau. Zoriontsu izan. Maite zaitugu!



ARRASATE
Martin Elorza Zenigaonandia
Maiatzaren 17an, 6 urte. Zorionak, Martin! Asko esperotako eguna azkenian heldu da eta zuk merezi dozun moduan ospatuko! Patxo handi bat familiara guztixaren, eta bereziki, Beñaten partetik!



ARETXABALETA
Iñigo Zuazo
Maiatzaren 18an, 46 urte. Zorionak, aitatxo! Jarraitu zaren bezalakoa izaten. Asko maite zaitugu! Amatxo, Izar eta Unax.



ARRASATE
Sergio Canales Arribas
Maiatzaren 16an, 42 urte. Zorionak, aitatxo! Ondo pasatu zure eguna! Asko maite zaitugu!



ARRASATE
Dunixe Tena Perez
Maiatzaren 17an, 12 urte. Zorionak, Dunixe! Oso ondo ospatu zure eguna, maitia. Muxu asko familia osoaren partetik.



BERGARA
Oxel Uriarte Sebal
Maiatzaren 13an, 3 urte. Zorionak eta ondo ospatu eguna! Patxo asko familia osoaren partetik.



ARRASATE
Iargi Sanzberro Iria
Maiatzaren 13an, 10 urte. Zorionak, printzesa! Primeran pasatu egun berezi hau eta disfrutatu zuk dakizun moduan! Patxo pottolo bat familia guztixaren partetik!



OÑATI
Nahia Aramburu Moreno
Maiatzaren 12an, 7 urte. Zorionak, printzesa. Zazpi kandela amatatzeko eguna heldu zaizu eta zurekin batera ospatu nahi dugu. Asko maite zaitugu. Musutxuak lauron partetik.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 21

ELGETA Ipuinen ordua

LH-3, LH-4 eta LH-5 mailetakoko neska-mutikoendako, boluntarioen eskutik.
Liburutegian, 17:20etan.

ARAMAIO 'Bide argiak: euskalgintza, feminismoa eta iraunkortasuna, eraldaketa sozialerako estrategiak' hitzaldia

Lorea Agirre kazetariak, Mikel Otero ekintzaile ekologistak eta Ainhoa Olaso Bilgune feministako kideak egingo dute berba.
kultura etxean, 17:30etan

OÑATI 'Beita' antzezlanaren sarrerak agortuta-

Xup antzerki taldeko aktoreen bigarren lana.
Santa Ana antzokian, 18:00etan.

ARRASATE Bideo emanaldiak eta mahai ingurua

Ekinek egindako *Bi lurraldean artean* bideoa aurkeztuko dute.
Kulturaten, 18:00etan.

ESKORIATZA Zinegoak 2021

Leo y Alex en pleno siglo XXI, Mall, Karaokea, La Amante, Red Bay eta *Hemen* pelikula emango dituzte.
Zaldibar antzokian, 18:30etan.

ARETXABALETA 'Granito Buffet. Vagabundos pirenaios' ikus-entzunezkoa

Iñigo Iruretagoienak eta Iban Roucok Pirinioetako 214 hirumilakoak igotzeko egindako bidaia. Sarrerak, hiru euro.
Arkupen, 19:00etan.

BERGARA 'Nekatutak' bakarriketa saioa

Antton Telleriaren eskutik. Debalde, baina sarrera behar da.
Seminarixoan, 19:00etan.

ZAPATUA 22

OÑATI Autodefentsa feminista ikastaroa

Jabetze Eskolaren baitan, eta Maitena Monroy gidatuta.
Euskaldun Berria gelan, 10:00etan.

ARRASATE 'Munduko arrozak' egitasmoaren aurkezpena

Hamar elkarte inguru egongo dira, lau pertsonako taldeetan banatuta.
Seber Altube plazan, 10:00etan.

ARRASATE 'Arrasateko udaletxea' bisita gidatua

10:00etan euskaraz eta 11:00etan gazteleraz.
Herriko Plazan.

OÑATI 'Arrikutz tantaz tanta, lurpeko geologia argitara' hitzaldia

Mikel Arriolabengoak egingo du berba. Edukiera mugatua.
Arrikutzeko harrera etxean, 10:00etan.

ARRASATE Kolonbiarekin elkartasun jardunaldia

Kolonbiaren egoeraren inguruko aurkezpena eta *Universidades bajo SOSpecha* liburuaren aurkezpena.
Kulturaten, 11:00etan.

LEINTZ GATZAGA 'Harri jangarriaren paisaia kulturala' bisita gidatua

Izena emateko: *infoturismo@debagoiena.eus* eta 943-79 64 63.
Leintz Gatzagan, 11:00etan.

ARRASATE 'Musikaren magia' saioa

Aniztasun funtzionala dutenendako emanaldia. Edukiera mugatua.
Etxaluzen, 11:00etan.

BERGARA Bertso saioa

Maddi Ane Txoperena, Sustrai Colina, Beñat Gaztelumendi eta Nerea Elustondo bertsoetan.
Debalde, baina sarrera behar da.
Usondo parkean, 12:00etan.

BERGARA Sinadura bilketa

Gure Esku dinamikaren eskutik.
Irala kalean, 11:00etan.

ARETXABALETA 'Hamaika gara' sinadura bilketa

Gure Esku dinamikaren eskutik. Bi mahai jarriko dituzte: Herriko Plazan eta Mitarte kalean.
Bi lekuetan, 12:30etan.

ARRASATE Sinadura bilketa

Gure Esku dinamikaren eskutik.
Herriko Plazan, 12:30etan.

ANTZUOLA Landatxoperen urteko batzarra

2021erako asmoen berri emango dute zuzendaritza taldekoek.
Torresoroan, 16:30etan.

ESKORIATZA Hip-hop dantzen tailerra

Hip-Hop dantzari batek gidatuta, 12-16 urte artekoendako.
Pilotalekuan, 17:00etan.

BERGARA 'Bergarako geologia eta ondarea' bisita gidatua, familiendako

Izena emateko: *infoturismo@debagoiena.eus* eta 943-79 64 63.
Bergaran, 17:00etan.

ARRASATE Laburbira 2021

Ilunabarrenean esan filmaren zuzendari Xabi Vallina egongo da. Debalde, baina sarrera hartuta.
Gaztetxean, 19:00etan.

ESKORIATZA 'Las brujas se salem' antzezlanaren

Emakumeen errebindikaziotik eta umoretik landuta, Ausartak taldearekin. Sarrerak, bost euro.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

BERGARA Sua taldea

Debalde, baina sarrera behar da.
Seminarixoan, 19:00etan.

DOMEKA 23

ARRASATE 'Gongetako meatzeak eta Udalatxeko karsta' mendibilbidea

Aurrez eman behar zen izena.
Udalako elizan, 09:00etan.

ESKORIATZA Degurixara ibilaldia

Izena emateko: *infoturismo@debagoiena.eus* eta 943-79 64 63.
Eskoriatzan, 09:00etan.

OÑATI Espeleo-abentura

Izena emateko: *infoturismo@debagoiena.eus* eta 943-79 64 63.
Arrikutzen, 09:30etan.

ARETXABALETA 'Uretsen ibilbidea' bisita gidatua

Izena emateko: *infoturismo@debagoiena.eus* eta 943-79 64 63.
Arexabaletan, 09:30etan.



MAUMA

ARRASATE 'Lurrun minez' ikuskizuna

Hiruki arrosa. Daviden erreinua izeneko gizonen sauna batean kokatzen da Mauma taldearen lana. Gaizka Chamizo, Pelayo Serrano eta Jon Koldo Vazquez dira protagonistak. Sarrerak, hamar euro.
Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:00etan.

LEINTZ GATZAGA 'Harri jangarriaren paisaia kulturala' bisita gidatua

Izena emateko: *infoturismo@debagoiena.eus* eta 943-79 64 63.
Leintz Gatzagan, 11:00etan.

BERGARA Haur jaioberriei ongietorria

2020an jaiotako umeei zapi ipiniko diete, taldeetan banatuta.
Udaletxean, 11:00etan.

ARRASATE 'Galarrako koba' bisita gidatua

16:00etan eta 18:00etan. Izena emateko: *infoturismo@debagoiena.eus* eta 943-79 64 63.
Arrasaten.

ELGETA 'Mendil hil, hirian hil' ikus-entzunezkoa

Iñaki Peñak egindako lana. Horren ondoren, zuzendariarekin hizketaldia.
Espaloian, 18:00etan.

ARAMAIO Laburbira 2021

Ekitaldian bertan, *Ilunabarrenean esan* filmean parte hartu duen Sara Alonso aramaioarra egongo da. Debalde da, baina sarrera hartu behar da.
Kultura etxean, 18:30etan.

ARRASATE 'Lurrun minez' ikuskizuna

Hiruki arrosa. Daviden erreinua izeneko gizonen sauna batean kokatzen da Mauma taldearen lana. Sarrerak, hamar euro.
Amaia antzokian, 19:00etan.

ESKORIATZA 'Las brujas se salem' antzezlanaren

Emakumeen errebindikaziotik eta umoretik landuta, Ausartak taldearekin. Sarrerak, bost euro.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

ARETXABALETA 'Haize gorri batek' emanaldia

Estitxu Pinatxoren kontzertua. Sarrerak, lau euro.
Zaraia aretoan, 19:00etan.

BERGARA Film laburren lehiaketako sari banaketa

Debalde, baina sarrera behar da.
Seminarixoan, 19:00etan.

ASTELEHENA 24

ARETXABALETA Odol ateratzea

Deialdi irekia. Orduetia: 09:45-13:00 eta 16:45-20:00.
Durana kalean.

BERGARA Hondarrezko eskulturen tailerra

7 urtetik gorakoendako. Orduetia: 10:30-13:30 eta 15:30-18:30. Eurria egiten badu, Boluko frontoian.
Usondo parkean.

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
San Martin plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

OÑATI Idazketa lantegia

Ikasturteko azken saioak Joxe Mari Iturralde gidatuta.
Lburutegian, 17:00etan.

ARRASATE 'Economía, cooperación y conciencia' hitzaldia

Nekane Juradok egingo du berba, Harremanek gonbidatuta, Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Egunaren harira. Edukiera mugatua.
Kulturaten, 18:30ean.

MARTITZENA 25**ARETXABALETA Ipuin kontaketa**

Hainbat kulturatako ipuinak ezagutzera emateko helburuarekin, Loramendiren eskutik.
Udaletxe zaharrea, 17:00etan.

ARRASATE 'Adinagatik diskriminatua sentitzen zara?' hitzaldia

Osakidetzako erizain Borja Doncelek egingo du berba. Aurrez eman behar da izena.
Kulturaten, 17:30ean.

ARAMAIO 'Aramaio Loratzen' hitzaldia

Jakoba Errekondok egingo du berba, etxeko balkoiak, terrazak eta atariak nola zaindu kontatzeko. Sarrera erreserbatu egin behar da.
Kultura etxean, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Sagu txiki, sagu maite' ipuin kontaketa

Bego Alabazanen eskutik, 2-5 urte arteko umeendako. Aurrez eman behar da izena, liburutegian.
Arkupen, 18:00etan.

OÑATI Literatura solasaldia
Oihane Amantegiren *Ibaiertzeko ipuina* liburuaren gaineko saioa, Yurre Ugartek gidatuta.
Zinema aretoan, 18:30ean.

EGUAZTENA 26

BERGARA ¿Por qué Elkano regresó por Oriente? hitzaldia
Daniel Zulaikak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
Seminarixoan, 10:00etan.

ARRASATE Sasoibide irteera
Elkartzen direnen artean erabakiko dute nora joan.
Seber Altube plazan, 16:00etan.

ARAMAIO Literatura solasaldia
Katixa Agirre idazlearen *Amek ez dute* liburuaren gaineko saioa egingo dute. Egilea solasaldian bertan egongo da.
Parkean, 18:00etan.

BERGARA Eguaztenetako azoka
Herriko baserriarren garaiko produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:30ean.

OÑATI Oñatiko historiaurreari eta paleontologiari buruzko hitzaldia

Alvaro Arrizabalagak egingo du berba, Oñatiko Udalaren eta EHuko Historiaurreko Ikerketa Taldearen arteko hitzarmenaren baitan.
Kultura etxean, 18:30ean.

ARRASATE 'Gernikako arbolaren biografia' hitzaldi kantatua

Jose Mari Esparzak egingo du saioa, Portaloi elkarteak gonbidatuta. Joxe Mari Iparragirreraren hainbat kantu abesteko aukera egongo da.
Kulturaten, 18:30ean.

BERGARA Patologia dualari buruzko hitzaldia

Osakidetzako psikiatra Roser Martinezek egingo du berba.
Irizar jauregian, 18:30ean.

ARRASATE 'Solo las bestias' pelikula

Dominik Moll-en pelikula, eguaztenetako saioan.
Amaia antzokian, 19:00etan.

BERGARA 'La gomera' pelikula
Zineklub emanaldia, Jatorrizko bertsoan eta azpitoluekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoan, 19:00etan.

EGUENA 27

ARRASATE Sasoibide irteera
Meatzerreka-Salturri ibilaldia egingo dute.
Biteri plazan, 10:00etan.

ARETXABALETA 'Hizkuntza indigenak. Ama lurra zaintzen' erakusketa

Munduan dauden hizkuntza gutxituen gaineko bilduma, Garabide Elkartearen eta EHuren UNESCO Katedraren eskutik.
Arkupen, 11:00etan.

OÑATI 'Krikuren ibilaldia' Ipuin musikatua

4-5 urte arteko umeendako, Turukutupa konpainiaren eskutik.
Haurren liburutegian, 17:30ean.

DEBAGOIENA 'Energia berriztagarriak zure etxean... posible da' tailerra

Ordu eta erdiko tailerra. Izena emateko: argitu@gipuzkoa.eus edo 943-16 41 72.
Online, 18:00etan.

ARRASATE 'Afrikan emakume jaiotzea' hitzaldia

Hilaria Vianeke aktibista angolarrak egingo du berba, Mundukidek gonbidatuta.
Gaztelupen, 18:00etan.

BERGARA 'Trans-formatzen' dokumentala eta solasaldia

HiKiru taldeak ekoiztutako dokumentala emango dute. Ostean egingo den solasaldian Naizen elkarteko kideek parte hartuko dute. Emanaldira joateko ez da aurrez sarrerarik hartu behar.
Seminarixoan, 19:00etan.

ARRASATE Literatura lehiaketako sari banaketa

Oihana Arana idazlea izango da gonbidatua. Berak banatuko dizkie sariak idazle gazteei.
Kulturaten, 19:00etan.

OÑATI 'Hamar urte baino ez' dokumentala

EH Bildu koalizioak bete duen hamarkadari buruzkoa. Aurrez hartu behar dira sarrerak.
Zinema aretoa, 19:30ean.

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA**

Bajo las estrellas de Paris
Zapatua eta astelehena: 19:00.

Bobby, el erizo
Zapatua: 16:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA**

Ilargi guztiak
Egubakoitzetik astelehenera: 19:00.

GASTEIZ**BOULEVARD**

Spiral
Egunero: 16:00, 18:00, 20:00.

Egunero, martitzena izan ezik: 17:00, 19:00.
Martitzena: 17:00.

Poliamor para principiantes
Egunero: 16:00, 18:00, 20:00.

El viaje de Chihiro
Egunero, martitzena izan ezik: 19:30.

El señor de los anillos

Egubakoitza: 18:00.
Zapatua: 18:30.
Domeka: 18:15.

Este cuerpo me sienta de muerte
Egunero, martitzena izan ezik: 17:30, 19:45.
Martitzena: 19:45.

Guardianes de la noche
Egubakoitzetik domekara: 19:30.
Astelehenetik eguenera: 17:20.

Ilargi guztiak
Egubakoitzetik domekara: 17:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:45.

Aquellos que desean mi muerte
Egubakoitzetik domekara: 20:00.
Astelehenetik eguenera: 19:50.

Una joven prometidora
Zapatua: 16:00.
Astelehenetik eguenera: 19:35.

Tom & Jerry
Egubakoitzetik

domekara: 17:20.

El olvido que seremos
Egubakoitza eta zapatua: 19:20.

Nomadland
Domeka: 16:00.
Astelehenetik eguenera: 17:15.

Upsss! Ahora donde está Noe?
Zapatua eta domeka: 16:00.

GORBEIA

Raya y el ultimo dragon
Egubakoitza eta zapatua: 18:10.
Domeka: 12:00, 18:10.

Tom & Jerry
Egubakoitza eta zapatua: 17:30.
Domeka: 12:00, 17:30.

Una joven prometidora
Egubakoitzetik domekara: 20:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Earwing y la bruja
Domeka: 12:00.

Nadie
Egubakoitzetik domekara: 20:15.

Astelehenetik eguenera: 20:00.

Aquellos que desean mi muerte
Egubakoitzetik domekara: 20:05.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Ilargi guztiak
Egunero, domeka izan ezik: 17:30.
Domeka: 12:00, 17:30.

Borrar el historial
Egunero: 20:00.

Poliamor para principiantes
Egubakoitza: 18:15, 20:25.
Zapatua: 16:35, 18:30, 20:30.
Domeka: 12:00, 16:35, 18:30, 20:30.

Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Cascarrabias
Egubakoitza eta zapatua: 17:30.
Domeka: 12:00, 17:30.

Mia y Moi
Egubakoitzetik domekara: 17:50, 20:15.

KRITIKA**Ilargi guztiak ★★★★★**

Zuz.: Igor Legarreta. **Herr.:** Espainia (2021). **Aktoreak:** Haizea Carnero, Itziar Ituño, Josean Bengoetxea. **Iraupena:** 80 minutu.

Denborarekin, arazoak**ANTONIO ZABALA**

Ilargi guztiak filmak Amaia neskatiaren bizitza erakusten digu, 1876tik 1936ra arte. 60 urte pasa arren, Amaiak, itxuran behintzat, neskati izaten jarraitzen du. III. Karlistaldi garaian, hilzorian dagoela, emakume misteriotsu bat agertzen zaio eta bere bizitza salbatzen du, baina, horretarako, ezinbestekoa da banpiro bihurtzea. Horiek, denok dakigun bezala, ezkutuan bizi dira, gauean mugitzen dira, eguneroko argira irten barik, eta odola da beraien janaria. Amaiak heriotza gainditzen du, eta, hortik aurrera, denboraren eragina gainditzeko ahalmena izango du. Baina ahalmen hori zigor bihur daiteke. Filmak eta pertsonaiek arazoak izango dituzte denborarekin.

Ilargi guztiak pelikularen osagai aipagarriena estetika da. Argiarekin jokatzeko modua, paisaiak eta gaua filmatzeko moduak, musikaren garrantzia ia denbora guztian, pertsonaia nagusira hurbiltzeko modua... Itxura aldetik filma nahiko landua dago, baina, istorioaren indarrari dagokionez, esango nuke ez duela pisu dramatikorik lortzen.

Istorioren zehar 60 urte pasatzen dira, baina ez dugu denbora horren eraginik igartzen. Kontakizun osoa jarraian gertatzen dela ematen du, pertsonaia agertu eta desagertu egiten dira... Horrela, proposamena nahiko sakabanatuta geratzen da, osotasun, indar eta sendotasun dramatikorik lortu barik.



AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

AED biziberritzen

Gogoeta prozesu betean dabil AED, euskara elkarteek aitzindari arrasatearra. Laster bere lehen 40 urteak beteko ditu, eta Euskaltzaleen Topagunean bidelagun dituen beste herrietako elkarrekin batera, eragiten jarraitzeko eta eragina handitzeko bidea aurkitu nahi luke.

Izan ere, 40 urteotan gauza asko eta oso azkar aldatu dira gure gizartearen baitan, eta dinamika sozialetan eragin nahi duenak oso ondo aztertu behar ditu aldaketa horiek, bere ekimenak, diskurtsoak eta antolamenduak ahalik eta eraginkorren izan daitezten. Irudipena daukat, oro har, azterketa zorrotza izaten ari dela eta ondo identifikatu direla jorratu beharreko ildo estrategikoak: ahalduntzea, aktibazioa, antolamendua, sozioekonomia, aisialdia... Horrez gain, Arrasaten eta Debagoienean oso errotua dago lankidetzaren publiko soziala, gizartearen ekimena eta erakundeen ahalmena uztartzen dituen, herri garapenaren mesedetan.

AEDren eredu oso zabaldua dago Euskal Herrian zehar, eta badaude dinamika euskaltzaleen adimen kolektiboa eta berrikuntza eraikitzeko. Prozesu horretan, ziur nago, berriro eraginkorra izango da Arrasaten burutzen ari den gogoeta.

BUKATZEKO

"Herrian zerbitzu asko egotea ezinbestekoa da"

MAITE AGIRRE AMAGARA ESTETIKA ZENTROKO ARDURADUNA

Bezere bakoitza "bakarra" den filosofiari eutsiz, pertsonen poztasuna baloratzen du gehien bere lanean Agirrek. Estetika eta tokiko zerbitzuen garrantziaz aritu da

Jone Olabarria ARRASATE

Estetika zentrorra sartu, eta bezere batekin berbetan ari da Maite Agirre, telefonoz. Laser depilazioari buruzko informazio eskean deitu du Amagarara. Zentrorra gerturatu eta lehen kontsulta bat egitea proposatu dio Agirrek, doan. *Goiena Okm gida*-ren bitartez, aplikazioa erabilita, hitzordua egin eta tratamendu ugari egiteko aukera eskaintzen dute Agirrek eta bere lantaldeak, baita estetika produktuen aholkularitza eta salmenta ere.

Zurean bezere bazina zer tratamendu jaso nahiko zenuke? Zergatik? Aurpegirako edo gorputzerako tratamenduren bat, zalantza barik. Plazer hutsa direlako, erlaxatuta eta guztiz biziberrituta irtetzen delako.

Zenbat urte daramatzazu estetika arloan lanean?

Dagoeneko 30 urte daramatzat Amagaran lanean, eta aurretik beste hamabost urte egin nituen ile apaingegia batean lanean, estetika kabina txikitxo batean tratamenduak egiten.

Estetika arloa eta moda oso lotuak egon dira; zaintzen duzu hori ere? Bai, jarraitzen dut. Hala ere, nork bere ezaugarri eta gaita-



Maite Agirre, Arrasateko Erdiko kalean dagoen estetika zentroan. MARKEL ARRAYAGO

Konfiantzazko erlazioa, "gakoa"

"Astelehenetik ostiralera lanean ibiltzen naiz; beti esaten dut ia gure estetika zentroan bizi naizela. Asteburuetan herrian geratu eta trankil egotea gustatzen zait, deskantsatzea. Arrasatek aukera ematen dit horretarako; presaka nabilela, dendariari deitu eta behar dudana prestatzen dit, geroago pasatzeko bila, edo etxean probatzeko aukera ematen didate, inongo konpromisorik gabe bueltatu edo aldatzeko. Hori baloratu behar dugu, izugarria da".

sunak ezagutu behar ditu, eta tendentziak horretara moldatu; norberaren egin, azken batean. **Zeri erreparatzen diozu gehien zure lanean?**

Bezereen azalaren egoerari erreparatzen diot gehien; azala mami-sua duten, bizitasunari... Edo erretzailea den; kalte handia egiten du azalean horrek.

Zu ez zara erretzailea izango...

Ez; izan nintzen gaztetan, baina laga egin nuen. Erretzailearen azalak asko sufritzen du, eta, estetika profesionala izanda, eredugarri izan behar dut.

Asko zaindu behar duzu irudia?

Irudi ona proiektatu behar da, eskaintzen den horren emaitzaren isla izan. Era berean, eskaintzen dena probatu eta ezagutu behar da.

Zer da lan honen onena? Eta, kontrara ere, txarrenea?

Bezerearen poztasuna da onena, tratamendu baten ostean bere esker ona eta gustura geratu dela ikustea. Okerrena, aldiz, bezere batzuen errespetu faltak: txanda hartu eta huts egitea, ez abisatzea... Zorionez, oso bezere fidelak eta onak ditugu, eta gutxitan gertatzen zaigu horrelakoren bat.

Gertutasuna aipatuta, baduzu ohi-turirik kanpora erostera joateko?

Egia esanda, ez; egunerokoan, Arrasaten erosten dut. Herrian bertan zerbitzu asko egotea ezinbestekoa da.

Eta Internet bidez?

Interneten egon behar da, eta negozioa ezagutzera eman, baina ni ez naiz oso iaioa sarean.



DESKARGATU GOIENA
APLIKAZIO BERRIA!



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen

www.multiopticas.com

2 mó
bat eguzkitakoa izan daiteke
99€
+
ukipen-lenteak opari

Kontuztatutako optikaren kargopainaren ezaugarriak.

